goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2012-03-16
EGUBAKOITZA
501. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## Giroa prestatzera Kataluniara

Iban Velascok askatasun handiagoa izango du Italian | 28



## "Lanposturik ez du sortuko erreformak"

**Antton Perez de Calleja**
Ekonomian aditua | 8

Debagoieneko artzainen lehen azoka bihar Arrasaten | 4



Herri ekimeneko hedabideak: 600 lanposturen arduradun | 5





Antzuolan 180 tona organiko batu da urtebetean atez atekoarekin | 22



Mikel Izagirre (Ezker Anitza), Rebeka Ubera (Aralar), Goiatz Arana (moderatzailea), Denis Itxaso (PSE-EE), Maria Eugenia Arrizabalaga (EAJ) eta Juan Karlos Alduntzin (Bildu).

LEIRE KORTABARRIA

# HONDAKINEN KUDEAKETAK DEBATE BEROA ERAGIN ZUEN

Debagoieneko Mankomunitateak eta Goienak antolatuta, hondakinen kudeaketaren gaineko mahai-inguru bizi-bizia izan zen eguenean Zabalotegi aretoan. Bost alderditako ordezkariek, nork berea tinko defendatzeaz gainera, aretoa lepo bete zuten herritarren galderei erantzun behar izan zizkieten. | 2

## "Urtea bukatu orduko, ospitale gunean ehun aparkaleku pasa izango dira"



INAZIO AZKARRAGAURIZAR
Arrasateko alkatea, Goiena telebistako HARIRAn | 14









## SINADURAK


Krisia | 6
ANDONI URZELAI


Lehiakortasuna gizatasunez | 6
MIRARI ALTUBE


Atez atekoa | 20
JABIER ALTUBE


Hedabideak kinka larrian | 24
GORKA ETXABE


Zaborren menpe? | 40
AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRITARRAK 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | GAZTEAK 34 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36 | EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38



Bost parte-hartzaileak eta Goiatz Arana moderatzailea, mahai-inguruaren une baten. | LEIRE KORTABARRIA

# Hondakinen arazoak debate beroa sortu zuen

- Mankomunitateak eta Goienak mahai-ingurua emititu zuten
- Bildu, EAJ, PSE-EE, Ezker Anitza eta Aralarrek hitz egin zuten
- Jarrerak ez ziren hurbildu, baina nork bere iritzia argi utzi zuen

**LEIRE KORTABARRIA** | BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateak eta Goienak antolatutako hondakinen kudeaketaren gaineko mahai-inguru bizi-bizia izan zen eguenean Zabalotegi aretoan. Bost alderdiko ordezkariak izan ziren (PPkoak ezin izan zuen joan): Juan Karlos Alduntzin (Bildu), Maria Eugenia Arrizabalaga (EAJ), Denis Itxaso (PSE -EE), Mikel Izagirre (Ezker Anitza) eta Rebeka Ubera (Aralar).

**JUAN KARLOS ALDUNTZIN**
BILDU

## "Prest gaude, inork beste sistema hobea badu, ezartzera"

"Etxean sortzen duguna etxean bertan kudeatzen has gaitezke, eta guk garbi daukagu atez atekoa dela emaitza onenak dituen sistema. Prest egongo ginateke, beste sistema batek emaitza hobeak emango balitu, hori ezartzeko".

"Zabortegira botatzen ari da gipuzkoar bakoitza 304 kilo urteko. Hortik %60-%65 gutxienez berriz erabilgarria edo birziklagarria da. Birziklatzen dugu sortzen dugunaren %34. Bilketa sistema aldatuta, birziklatze tasa hori %80ra, %78ra handitzen da. Hori gezurra da?".

"Ezagutzen ditugu datuak eta sistemak. Zergatik ez dugu onartzen egokiena? Eta bildu ondoren, eztabaida dezagun biltzen dugun horrek ze tratamendu izan behar duen. Errraustegiak behar-beharrezkoak ditu pisua, eta hori organikoak ematen ditu; eta erregaia, eta hori paperak eta plastikoak ematen dute. Horregatik ez da inolako aurrerapausorik eman organikoa tratatzeko eta 5. edukiontzi hori, ona baldin bada, modu eraginkorrean zabaltzeko".

"Hamarkada pasatxo daroagu borondatez birziklatzen, eta bere goia jo du. Birziklatzeak derrigorrezkoa izan ebhar du. Hori guztia herritarrekiko parte-hartze prozesuekin egin behar da: jakin egin behar dugu zaborrekin zer gertatzen den, eta horrek denok kezkatu behar gaitu; eta galdetzekotan, ziklo osoari buruz galdetu beharko dugu: hondakinekin gure herrian zer egiten dugu, eta ez bakarrik nola biltzen ditugun".

**M. EUGENIA ARRIZABALAGA**
EAJ

## "Denbora aurrera doa eta ez dago inongo planifikaziorik"

"Gure politika da Europan markatutako zuzentarauek diotena: nazio aurreratuenetan eramaten duten eredua hona ekartzea. Argi daukagu 5. edukiontziaren alde egiten dugula. Birziklatzearen alde egiten dugu, konpostajearen alde, eta kudeaketa integral baten azken pauso bezala, azken teknologiadun errauskailuen alde egiten dugu".

"Nahasten ari gara zaborra nola bildu eta kudeatu. Nahasketa hori politizazioaren eskutik dator eta interesatua da. Atez atekoa da zaborra biltzeko modu bat. Beste gauza bat da zaborra bere osotasunean, ingurumen kalte guztiak kontuan hartuta eta Europak agintzen duenera egokituz nola kudeatu. Eta horretarako beti azpiegitura bat beharko da".

"Aurreikusita zegoen biometanizazio planta Bildukook hori izozkailuan sartu duzue. Eta aurretik egindako planifikazioak ez du ezertarako balio, eta aurreikusitakoak, nahiz eta erabilgarria izan, ez du aurrera biderik. Zabortegiak gainezka hasiko dira, Bizkaiak erabakiak hartu beharko ditu, Espainiara erbesteratzen hasi zarete gure zaborra, kamioi horiek kutsadura eragiten dute… Nahiko nuke hori guztia balantzan jarri, ea zein den azken emaitza. Baina denbora aurrera doa eta



## ESANAK



### "Galdetzekotan, ziklo osoari buruz galdetu beharko dugu"

JUAN KARLOS ALDUNTZIN | BILDU



### "Bi gai, bilketa eta kudeaketa, interesagatik nahastu dira"

M. EUGENIA ARRIZABALAGA | EAJ



### "Konpostaje plantarik gabe, organikoa batzen ari gara"

DENIS ITXASO | PSE-EE



### "Bosgarren edukiontzia kendu eta guzti egin da"

MIKEL IZAGIRRE | EZKER ANITZA



### "Diputazioak denok mahai baten batzea proposatu du"

REBEKA UBERA | ARALAR

ez da inongo planifikaziorik betetzen ari".

"Familia bakoitzari, errauskailua urtero 31 euro inguru kostatuko zaio, eta tona bakoitza eramatea kostatuko da, gaur egun zabortegira eramatea adina".

**DENIS ITXASO**
PSE-EE

### "Atez atekoarekin hondakinen %30 bakarrik batuko da"

"Atez atekoak limiteak dauzka. Gure iritziz, zikinagoa da, garestiagoa da, eta jendearentzat askoz deserosoagoa. Horrek guztiak ez du konpentsatzen ustez emango diren birziklatze-tasa handiagoak, gakoak beste leku baten daudelako. PSEk oso argi dauka 5. edukontzia askoz garbiagoa eta merkeagoa dela, eta zabortegi edo errauskailuaren artean, nahiago ditugu errauskailuak".

"Atez ateko sistema 34 herrik aukeratu dute. Zabor horiek dira Gipuzkoak ekoizten dituen zaborren %30 bakarrik. Gainontzeko herriek ez badute sistema aldatzen, eta ez dirudi hala izango denik, gainontzekoak berdin jarraituko luke. Diputazioak erabaki dute gaur egun dagoen planifikazio guztia hankaz gora jartzea. Eman dezagun soluzio integral bat".

"Konpostaje planta nahiko martxan jarri gabe hasi gara materia organikoa biltzen. Bizi osoan egon bagara hura jaso gabe, itxoin dezagun bi urte, eta hemendik bi urtera egin dezagun konpost onena. Baina jendeari aha-

> **DATUA**
>
> **82**
>
> IKUSLE
>
> *Goiena.net*-ek zuzenean emititu zuen mahai-ingurua, eta 82 ikusle eta 127 sarrera izan zituen.

legina eskatzen zaio sukaldean bereizteko, eta gero hori doa Iparraldera Segoviara edo Burgosera. Goazen etxea azpitik hastera eta ez teilatutik".

"Berlinen, metroan sartu, inork ez du tiketik eramaten; jendeak ordaindu egiten du, baina fede onez, kontzientzia zibikoa dagoelako. Guk ere konturararazi behar dugu jendea ingurumena garestia dela, baina ez tratatzea garestiagoa izango dela".

**MIKEL IZAGIRRE**
EZKER ANITZA

### "Hondakinak birziklatzea obligazioa izan behar da"

"Sortzen ditugun hondakinen ardura geuk hartu behar dugu. Guk atez atekoaren aldeko apustu garbia egiten dugu, birziklatze tasa handienak eta egokienak ematen dituelako".

"EAJkook diozue errauskailua edo zabortegiaren artean aukeratu behar dela, baina errauskailua eta zabortegia da, errauskailuak zabortegia behar duelako. Eta bestalde, zer egin duzue EAJkook orain arte? Bosgarren edukiontzia zenbat lekutan ipini duzue? Donostian ia kendu ere egin duzue".

"Materia organikoa Iparraldera doa, bai, baina gestionatzera, ra, konposta egitera. Usurbilen, konpost gehiago behar dute baukaten lurrerako".

"EAJkook, zuen lehenbiziko planifikazioan hiru erraustegi proposatzen zenituzten Gipuzkoarako, 380.000 tona gestionatzeko. Gu bronkan hasi ginen garaian ikusi duzue ez zela posible. Gainera, hasieran %4a bakarrik konpostatuko zela esan zenuten".

"Azken 30 urteotan zergatik derrigortu gaituzue hainbat gauzara? 79an, errenta-deklarazioa derrigorrezkoa bihurtu zen; tabernetan ez erretzea ere derrigorrezkoa da; segurtasun uhala ere derrigorrezkoa da. Eta Konstituzioaren aldaketak PSOEk eta PPk egin dituzue beste inori galdetu gabe. Gakoa hauxe da: hondakinak birziklatzea herritarren obligazioa izan behar da, bai ala ez?".

**REBEKA UBERA**
ARALAR

### "Bilketa selektiboa herri bakoitzera egokitu behar da"

"Aralarrek bat egiten du Zabor Zerorekin. Horrek hau esan nahi du: lehenengo, ahalik eta zabor gutxien sortzea, ahalik eta gehien berrerabiltzea eta birziklatzea, eta sailkapenean sistema eraginkorrenak bilatzea, herri bakoitzaren ezaugarrietara egokituta. Atez atekoaren barruan ere, ez dago eredu bakarra, eta eredu horiek herritarrekin herri bakoitzean egokitu daitezke. Gakoa da materia organikoa ahalik eta ondoen biltzea, eta errefusa kentzea. Baina gero horiek tratatzeko azpiegiturak behar ditugu".

"Bi printzipio nagusi izan behar ditugu: hurbiltasuna, zaborrak sortzen diren lekutik ahalik eta gertuen kudeatzea; eta guk geuk kudeatzea gure zaborrak".

"Europako zuzentarauak 2006. urtea ipini zuen muga gisa tratatu gabeko hondakinik zabortegietara ez botatzeko, eta Gipuzkoan jarraitu dugu botatzen. Hori ekidin egin behar da. Lehentasuna da herri eta eskualdeetan bilketa selektiboarekin hastea".

"Lehenengo fasea, bilketarena hobetuta, bigarrenean eragin positiboa izango du: itxiera fasera iristen dena oso gutxi izango da eta azpiegitura txikiagoa beharko da. Erraustegia egiteko, ekonomikoki hipotekatuta geratu gara; arau aldetik ere bai… Gauza larri asko gertatu dira inorekin kontrastatu gabe eta galdetu gabe".

"Konfrontazioa utzi egin behar dugu. Orain Diputazioak badu proposamena kontseilu aholkulari bat eratzeko talde guztiekin, eta sistema eragingarrienak eta azpiegiturak adosteko".

> **IKUSLEEN GALDERAK**
>
> **Errauskailuaren alde daudenek onartuko lukete bere herrian ipintzea?**
> DENIS ITXASO: Ni herri horretan bizi naiz eta ez genuen nahi, hori da egia. Askotan, pisu handiagoa du norberaren arazoak arazo orokorrak baizik. Azkenean onartu genuen. Kontrapartida batzuk egon ziren eta iruditu zitzaigun konponbide integral onargarria zela.
>
> **Konposta bideratzeko ze azpiegitura bultzatzen duzue EAJkook?**
> M. EUGENIA ARRIZABALAGA: Aurretik egindako plangintzaren barruan, errauskailua eta biolehortzea ez ezik, konpostaje eta transferentzia planta bi zeuden aurreikusita: Lapatxekoa, eginda eta gainezka dagoena, eta beste bat, Bergaran. Eta egitekoa zen biometanizazio konpostaje sistema planta, Donostia eta Txingudiko populazio handia hartzeko.
>
> **Zeozer gehiago argitu daiteke atez atekoaren gainean, non daude abantailak?**
> JUAN KARLOS ALDUNTZIN: Bilketa sistema eraginkorrena da, kudeaketa integrala merkeagoa da; zabaltzen ari diren mamuen aurrean, Antzuola ondoan duzue, joan eta ikusi ezazue.

BESTE ALDE
rent a car
Tel. 618 88 12 42
bestealde@bestealde.com
www.bestealde.com
Hurbil gaude, zeu urrun eramateko.


Non gaude:
Arriandi Auzoa, 12. 48215 Iurreta-Bizkaia • MªDíaz de Haro, 30. 48010 Bilbao-Bizkaia


Eta orain baita ere Eibarren
Ondorengo instalazioetan:
NISSAN GAURSA
Otaola Etorbidea, 22. 20600 Eibar
Gipuzkoa



Oñatiko Azkarreta baserrian, Maialen ardiei jaten ematen; 300 bat dituzte. | ARRITXU BARRUSO

# Debagoieneko artzainen lehen azoka egingo dute bihar Arrasaten

▶ Bailarako artzainak, baserritarrak, txakolingileak... izango dira bertan

▶ Gatzatua egiteko tailerra egongo da, eta baita gisatu lehiaketa ere

**MONIKA BELASTEGI** | ARRASATE

Debagoieneko artzainen lehenengo azoka egingo dute bihar, zapatua, Arrasaten. Mankomunitateko Turismo Sailak eta Debagaraia Landa Garapen Elkarteak antolatu duten X. Jardunaldi Gastronomikoen barruan egingo dute azoka. Arrasateko Udalak ere lagundu du antolaketan, eta, hain justu, hileko hirugarren zapatuan Arrasaten egiten duten baserritarren azokarekin batera egingo da artzainena.

Seber Altube plazan izango da, 09:00etatik 14:00etara, eta hiru karpa egokituko dituzte: bi karpatan, gaztagileek, baserritarrek eta txakolingileek euren produktuak ezagutzera emateko saltokiak egongo dira; hirugarrenean, Arrasateko elkarte gastronomikoek gisatu lehiaketa egingo dute. Horrekin batera, pintxo dastatzea eta artilea nola lantzen den ikusteko aukera ere egongo da goizean barrena.

**Bertako produktuei bultzada**

Artzainen azokaren helburu nagusia –baita Arrasaten egiten den baserritarren azokarena ere– "bertako eta sasoiko produktuak bultzatzea" da, Agurtzane Diaz Uribide Debagaraia Landa Garapeneko ordezkariaren eta Marga Garmendia Arrasateko Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomiko Sailekoaren esanetan.

Azokan sei gaztagile egongo dira –ikus ondoko taula–, guztiak Debagoienekoak eta Idiazabal jatorri izenaren barrukoak, eta, gaztarekin batera, ardi esnea ere izango dute saltzeko. Baserriko bestelako produktuei dagokienez, 12 postu egongo dira, besteak beste, barazki eta ardo eta sagardo ekologikoarenak.

**Gatzatua, gisatua eta beste**

Gomiztegi kooperatibakoek gatzatua egiteko tailerra egingo dute. Batik bat, gaztetxoei zuzenduta dago, eta Seber Altuben jarriko duten mahaian gatzatua egiten ikasi ahal izango dute. Baita bertan egindakoa etxera eramateko ere.

Aretxabaletako Etxezuri baserriko ardi haragiaren gisatu lehiaketa ere egongo da. SUDC elkarteko lehendakari Juan Luis Arkauzen bitartez, Arrasateko 14 elkarte gastronomikok hartuko dute parte, eta antolatzaileak oso pozik daude lehen lehiaketa horrek izandako erantzunarekin. 12:30ean izango da sari-ematea eta bi gisatu hoberenek plaka bana jasoko dute. Epaimahaia X. Jardunaldi Gastronomikoetan diharduten jatetxeetako sukaldariek eta Arrasateko pertsonaia ezagun batek –izena ez dute aurreratu nahi izan– osatuko dute. Lehiaketaren ostean, pintxo eran banatuko dute gisatua, eta baita buzkantzak ere. Buzkantzak ere Atxezuri baserrikoak dira.

Pintxoekin batera, Arrasateko Otxia eta Oñatiko Upain txakolina emango dute, 1,5 eurotan.

**Artilea landuko dute**

Artilea nola lantzen den ikusteko aukera ere egongo da Debagoieneko artzainen lehen azokan. Hain justu ere, Eskoriatzako Jausoro baserriko Maximo Iñurrategik jardungo du horretan Seber Altuben. Bestetik, Doneztebetik etorriko den Aitor Bastarrikak berak tindatutako artilezko produktuak erakutsiko ditu.

## Bailarako sei gazta azokan

Debagoieneko sei artzainek ekoizten dituzten gaztak dastatu ahal izango dira azokan.

Antzuolako Pikunieta baserrikoa; Aretxabaletako Etxezuri eta Mendibitzu baserrietakoa; eta Oñatiko Aldai eta Azkarreta baserrietakoa eta Gomiztegi Kooperatiba Elkartekoa.

Idiazabal jatorri izena dute guztiek eta aipatzekoa da Pikunieta eta Mendibitzuk esne ekologikoarekin egiten dutela.




Gazten etiketak. | GOIENA




Bergaran egin zuten bilkura. | ENEKO AZKARATE

# Lan erreformaren aurka greba egitera deitu du ESK-k

Erreforma horren "gezurrak agerian laga" behar direla uste dute, eta ez duela enplegurik sortuko

**E.A.** | BERGARA

"Lan erreformaren aurka" greba orokorra egitera deitu du ESK sindikatuak eguaztenean Bergaran egin zuten elkarretaratzearen bidez. ESKren ustez, erreforma horren "gezurrak agerian utzi behar dira. Ez du krisitik ateratzeko baliorik, ezta enplegurik sortzeko ere".

Raxoiaren lan erreformak ez du lanik sortuko, hiru arrazoi nagusirengatik, ESKren arabera: batetik, iraizpena edo "langileen kaleratzea merkatzen" duelako, "ugazabei, nahi eta eskatzen" dutena emanez; bestetik, enpresa txiki eta ertainei ahalbidetzen dielako urte bateko iraunaldiko mugarik bako kontratuen bidez "langileak kalte-ordainik barik eta doan kaleratzea". Eta, ondorioz, kontratu horiek "lanpostu berriak sortu beharrean enpleguan errotazioa suspertzen" dutelako; azkenik, "ugazabei bitarteko guztiak eskaintzen dizkielako enplegu iraunkor eta kalitatezkoak sor ez ditzan".

Are gehiago, ESK-k uste du erreformak "inoiz asmatu bako bitartekoak" eskaintzen dizkiela ugazabei.

**Mobilizazioa da irtenbidea**

Hori dela eta, "erreforma bertan behera botatzeko mobilizatu beharra" dagoela dio sindikatuak. Eta hauxe gehitu du: "Soluzioa ez da gizarte elkarrizketa eskatzea, baizik eta mobilizatzea kaleetan eta enpresetan. Eta, horrenbestez, martxoaren 29an aukera galanta daukagu Gobernu eta ugazaberiaren erasoari horrenbesteko erantzuna emateko".



IÑIGO BIAIN

## Sutea Lizargaraten

Sute ikusgarria piztu zen Oñatin atzo, eguena, Errekalde auzoaren gainean, Lizargaraten, Olabarri baserritik hurbil. Pinudi batean piztu zen sua 13:00ak inguruan. Kea kilometrotara ikus zitekeen, lekukoen arabera. Suhiltzaileak eta Foru aldundiko mendizainak izan ziren sua itzaltze lanetan.

**Jasone Mendizabal** | Topaguneko lehendakaria

# "Hedabideok ditugun erronkei aurre egiteko aukera bakarra ikusten dugu: indarrak batzea"

Herri ekimeneko euskal hedabideek sektorearen diagnosia eta erronkak aurkeztu dituzte asteon



Jasone Mendizabal. | GOIENA

**MONIKA BELASTEGI** | ARRASATE

Herri ekimenez sortutako euskarazko hedabideek agerraldi bateratua egin dute. *Argia, Berria* eta Topaguneko ordezkariek hartu zuten parte. Gu Jasone Mendizabalekin izan gara.

**Sektorearen diagnosia eta erronka komunak identifikatzen dituen dokumentua sinatu eta aurkeztu duzue herri ekimeneko euskal hedabideek. Nortzuk dira hedabide horiek eta zergatik sinatu duzue agiri hori?**

Dokumentua sektoreko eragileok azken urtean elkarrekin egindako ibilbidearen emaitza da. Euskal Herriko 100dik gora hedabidek osatzen dute sektorea, askotariko produktuak kaleratzen ditugularik: tokiko hedabideak eta nazio mailakoak, informazio orokorrekoak edota espezializatuak, prentsa, telebista, irrati zein Interneten kaleratzen direnak. Gure lana kaleratzeaz bat, lankidetza irudikatu nahi izan dugu sinatze ekitaldiarekin.

**Batetik, sektorearen diagnostikoa aurkeztu duzue. Zein da diagnostiko hori?**

Alde ilunen artean, guztioi eragiten digun krisi ekonomiko latza aipatu beharra dago eta horrekin batera bereziki komunikazio proiektuei teknologia berriek ekarri diguten eredu krisia. Lan baldintzen prekarietatea eta inbertsioak egiteko ezintasunak ere ezaugarritzen gaitu. Hala ere, argi izpiak ere ikusi ditugu: gure produktuek harrera ona dute eta gure eragina garrantzitsua da. Elkarrekin 600 lanposturen ardura daukagu, urtean 27 milioi euroko aurrekontua kudeatzen dugu eta gure kalkuluen arabera 7 milioitik gora itzultzen diogu gizarteari zerga bidez. Funtzio soziala betetzen dugula argi dugu baina gure sektorea industria sektore gisa ere aintzakotzat hartua izan dadin aldarrikatzen dugu.

**Aurrera begirako erronkak, hortaz, zeintzuk dira?**

Lan baldintzak hobetu eta egonkortzeko eta sarerako negozio eredu propioa sortzeko inbertsioak egitea erronka garrantzitsua izango da. Bestalde, gure hartzaile eta bezeroei kalitatezko produktuak eskaintzeko etengabeko hobekuntzan lan egin beharra daukagu. Ikerketa eta berrikuntzan inbertitzea premia handikoa da eta horrekin lotuta euskal hedabideen behatokia sortzea da sustatu nahi dugu.

**Eta erronka horien artean zeintzuk dira lehentasuna dutenak?**

Erakundeen babesa lortzea ezinbestekoa izango da aipatutako erronkei aurre egiteko. Egungo diru laguntza ereduak ez du nahikotasunik eta hedabideon garapenerako hitzartutako babesa lortu beharko dugu.

**"Euskal hedabideen behatokia sortzea bultzatu nahi dugu"**

**"Gure medioen bidez 450.000 herritarrengana iristen gara"**

**Eta horri guztiari indarrak batuz egingo diozue aurre.**

Bai, zalantzarik barik. Hedabideok lehiakideak izan bagaitezke ere, ditugun erronkei aurre egiteko aukera bakarra ikusten dugu: indarrak batzea. Erakundeen babesarekin ala gabe, gure esku dauden neurriak hartzeko konpromisoa hartua dugu eta hainbat urrats ematen hasiak gara: sektorea egituratzeko, publizitate bateratuaren eskaintza antolatzeko eta abar.

**Euskal hedabideon funtzio soziala azpimarratzen duzue. Zein da?**

Euskararen erabileran sektoreak duen garrantzia azpimarragarria da, gure medioen bidez 450.000 herritarrengana heltzen baikara. Era berean, euskaldunon komunitatearen kohesioari begira, munduko gertakizunak euskaraz jaso eta kontatzearen balioa funtsezkoa da.

**Krisia aipatu dute lehen. Nola eragin dizue?**

Zoritxarrez, azkenaldian, hedabide asko ikusi ditugu ixten.

**Orain zer egingo duzue sinatutako dokumentuarekin?**

Prest agertzen diren instituzio publiko guztiekin konpartitzeko asmoa dugu, eta, horretarako, bien arteko mahai jarrai bat era dadin eskatzen dugu.

# Zabalik dago Aldundiak antolatzen dituen udalekuetarako izen-ematea

7 eta 13 urte artekoena dago zabalik; 14 eta 17 urte artekoena apirilean irekiko dute



Umeak udalekuetan. | GOIENA

**M.B.** | ARRASATE

Atzo ezkero, zabalik dago Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen udalekuetan izena emateko epea. 7 eta 13 urte arteko gaztetxoendako udalekuetako zozketarako izen-ematea da zabaldu dutena, martxoaren 23ra bitartean. Uztailaren 1ean hasi eta abuztuaren 14 artean egingo diren udaleku horietan, hiru lurralde historikoetako 7 eta 13 urte arteko 4.560 haur izango dira eta Gipuzkoan 1.330 plaza banatuko dira notario aurrean egingo den zozketaren bitartez. Plaza horietatik %5 heziketa premia berezia duten haurrentzat gordeko dira.

Txandak euskaldunak eta elebidunak izango dira eta aterpe hauetara joateko aukera egongo da: Araban, Barriara eta Zuhatzara; Bizkaian, Gorliz, Arboleda, Lapurreketa, Lauaxeta, Lurraska eta Urduñara; eta Gipuzkoan, Hondarribia, Orio, Segura, Zarautz eta Zestoara.

Eskainiko diren ekintzen artean kirol mota ugari dago, eta baita ingurumenarekin, nekazaritzarekin eta bertsolaritzarekin lotura duten aisialdi jarduerak ere.

Egonaldiak adinaren, hizkuntzaren eta egun kopuruaren arabera banatzen dira. Plazok banatzeko zozketa apirilaren 3an egingo dute, eta, tokatuz gero, ondoren egin behar da diru sarrera.

**Nerabeendako ere bai**

14 eta 17 urte artekoendako, berriz, Oporraldiak izeneko udaleku eskaintza egin du Aldundiak. Izen-ematea apirilaren 16tik 24ra izango da eta adin tarte horretan ere zozketa bidez erabakiko da nortzuek beteko dituzten adin tarte horretara bideratuta dauden 430 plazak. Zozketa maiatzaren 8an egingo dute.

Informazio esku-orriak eta izena emateko fitxak ondorengo lekuetan eskura daitezke: Arrasateko Gazte Bulegoan eta Oñatiko Gazteendako Informazio Gunean eta Aretxabaletako, Bergarako eta Oñatiko Gazteria sailetan. Horrez gain, izen-ematea Internetez ere egin daiteke, *www.gipuzkoa.net/oporraldi* helbidean, edo udal bakoitzak horretarako baliatu duen udal zerbitzuan.

## Hormigoizko egituren gaineko kalkuluak egiteko ikastaroa

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako Eraikuntza Departamentuak, Hobetuzen bitartez, 20 urduko CYPECAD ikastaroa eskainiko du hilaren 20tik 29ra. Kalkulu-programa hori erabiliz, hormigoi armatuzko egiturak kalkulatuko dira Isaak Galarraga arkitekto teknikoarekin. Izena emateko, deitu 943 77 20 25 zenbakira.




Ospitaleko langile eta sindikatuetako ordezkariak elkarretaratzean. | A.B.

# Ospitaleko zerbitzuen kalitatea arriskuan, ELAren eta LABen ustez

**A.B.** | ARRASATE

ELA eta LAB sindikatuek deituta elkarretaratzea egin zuten martitzenean Eskualde Ospitalearen parean *Kalitatezko zerbitzu publikoa. Murrizketarik ez* lelopean. Azkenaldian "sektore publikoan egiten ari diren murrizketak" salatu zituzten, eta "osasun publikoa egoera larrian dagoela" adierazi. "Sektore publikoko langileengan murrizketa asko egiten ari dira eta guk gizarteari adierazi nahi diogu horrek eragin zuzena duela osasun zerbitzuetan", esan zuen ELAko Amagoia Unanuek. Eskualde Ospitalea salbuespena ez dela gehitu zuen, eta uste dutela "murrizketen bidetik" segituko dutela.

## ZABALIK



**ANDONI URZELAI**
http://goiena.net/iritzia/

# Krisia

Zipitzik ez dakit ekonomiaz. Baina iruditzen zait ez dela aditua izan behar Kapitalismoak goia jo duela ikusteko. Inpresioa daukat gaur egungo krisi ekonomikoa krisi koiuntural bat baino gehiago dela. Gelditzeko etorri dela, hain zuzen, eta ez garela, inoiz, lehengo egoerara bueltatuko.

Sistema kapitalista kotxe bat balitz, zera esango genuke: motorra hautsi zaiola kotxeari. Mekanikariek, berriz, agintariek, zera dioskute: erroberak hustuta baino ez dituela kotxeak; horrenbestez, berriro puztu (gu guztiok ahoaz putz eginaz, gainera) eta kitto, berriz errepidera abiatzeko moduan egongo garela.

Kapitalismoaren funtsa hazkundean dago, eta bistan da hazkundea ezin dela konstantea izan. Ezin dira salmentak (kotxe -etxe-hozkailu-arropa) urtetik urtera %15 hazi. Horrek ez du ez buru eta hankarik. Astakeria hutsa da, eta, ikusi den moduan, bideraezina. Eta nago agintariek badakitela hori, baina pedagogia egin beharrean nahiago dutela krisian sakondu eta olatu bortitz hori aprobetxatu legedia ia feudal bat ezartzeko.

**"Gizarte izutu baten paralisia aprobetxatzen ari dira agintariak"**

Ez dira (zaborren kontu lotsagabean bezala) eztabaida serio bat sustatzeko gai. Zera esan nahi dut: une hau eztabaidarako sasoia dela, beste sistema ekonomiko batzuk aztertzeko garaia, hain zuzen. Gaiaz dakitenek egin dezatela beraien proposamenak. Traumatikoa izango da, seguru, gu guztion bizimodua eraldatzea ekarriko baitu seguruenik, baina egin beharreko zerbait da edonola ere.

Agintariek hartu duten bidea, betiko lez, arduragabea da: gizarte izutu baten paralisia aprobetxatzen ari dira horrenbeste urtetan eraikitako gizarte eredua ostikoka iraultzeko. 6 milioi langabe dituen estatu bat deskalabratutako estatu bat da, ez da onargarria. Ez dakit nik, akaso lan gutxiago egin beharko da guztiok lan egin ahal izateko, edo liberalismoa zorrotz arautu eta estatua berrindartu, auskalo! Baina pentsatu, eztabaidatu eta ekiteko garaia da. Agintariek egin nahi dutenaren kontrakoa egiteko sasoia, hain zuzen.

## USTEAK USTE

**MIRARI ALTUBE** | aretxabaleta@goiena.com

# Lehiakortasuna gizatasunez

Errespetua oinarri duen proiektua garatzen dabiltza Aretxabaleta Kirol Elkarteko kideak. Errespetua futbolean, kirolean, bizitzako edozein esparrutan… Eskua Proiektua izenarekin jarri dute abian aurten, eta arduradunek onartu dute askok ez dutela ulertzen proiektu horren asmoa. Antza, errespetuz jardutea, gizalegez jokatzea, zuzena izatea ez datoz bat lehiakortasunarekin eta irabaztearekin. Horregatik, kirol emaitzak eta gizatasuna bat datozela erakutsi gura dute Eskua Proiektuko kideek. Ez da erronka makala, futbolaren mundua guztiz aldrebestuta dago-eta. Realean jokatuko duten futbolariak haz ditzatela bai, baina balioak argi dituztela.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Saizarbitoriaren protagonisten zoritxarra

**Markos Zapiain**
http://eibar.org/blogak/zapiain/

Abaitua, entziklopedista, Juan Martin edota zuzenbidean lizentziatuaren mesfidantza eta arbuioa maite dituzten emakumeengana…

Balirudike Saizarbitoriarentzat gizonezkoen joera naturala zoritxarreko izatea dela, nahiz eta zoriontsu izan ahal izateko ezinbesteko baldintza materialak ederki beteta dauzkaten. […]

Saizarbitoriaren protagonistengan nabarmen ageri diren eboluzioaren hiru opari pozoitsu aipatuko ditut, Michael Wiederman amerikako estatu batuarraren eskutik, bizirauteko gure aukerak handitu baina zoriontsu izatekoak txikitzen dizkigutenak.

Lehenik eta behin, beldurra eta antsietatea: gure arbasoak inguru lanjerosetan bizi ziren, etsaiz setiaturik, arrisku pilo bati egin behar zioten aurre.

Inuzente alaia, bere oharkabetasun santuan, Santimamiñeko leizezulotik irten bezain laster akabatuko zuten mamutek.

Arrisku posibleen aurrean erne eta mesfidati ibili beharrak eragin ditu giza ezaugarri oinarrizkoak diren kezka eta ezinegona, luzaro bizitzeko lagungarriak baina bizipozari begira zeharo gogaikarriak, batik bat kontuan hartuta errealitateak benetako arriskurik eta etsairik ez dakarkigunean ere hura asmatzeko grina oparitu digula naturak, gorputzeko ezinegonari eta kezkari irtenbideren bat emateko; esaterako, irudi batez zehaztu eta ulergarri bihurtzeko, Abaituak Zigor eta Julia larrutan imajinatzen dituenean bezala. […]

Bigarren, esperientzia negatiboetan eta oroitzapen mingarrietan kontzentratzeko giza joerak, etorkizunak ekar diezazkigukeen arriskuen aurrean gure burua begiratzera garamatza.

Gudari zaharrak gerra legez, oroitzapen mingarriak gogoan etengabe eduki behar horrek gure burua pairamendu berrietatik babesteko balio digu onenean, hanka lehen bezala ez sartzeko, baina ez, jakina, zoriontsu izateko.

Azkenik, kaskoan etengabe entzuten dugun marmarra, duguna sekula ez askiestera behartzen gaituena, espeziaren biziraupenari laguntzen dion faktore bat da, gizakiok beti gehiago nahi izatera bultzatzen baikaitu, gure egoera beti hobetzera. […]

Antsietateak erneago egiten gaitu, adiago arazoei; beldurrak ihesari edo borrokari laguntzen dio; haserreak lehiakideak edo etsaiak izutzen ditu; tristurak errukia erakartzen du eta taldearen elkartasuna…

Horregatik, zoriontsu izateko aurrena benetan nahi behar zara zorionaren alde deliberatu.

Eta horixe da Saizarbitoriaren gizonezkoek egiten ez dutena.

Halatan, axalekoak eta hauskorrak dituzte bolada zoriontsuak, inertziak eta txiripak ekartzen baitizkie, ez erabaki irmo batek.

Zurrumurruek diotena egia baldin bada, alegia, datorren urtean Senekaren Luziliori gutunak argitaratuko direla, Angel Errok euskaraturik, ba orduan tamalez Saizarbitoriaren pertsonaien antza dugunok gidari bikaina izango dugu zorionaren bidean.

Animo, Angel.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Atez atekoa, 40 urteko atzerapausoa?

**Juan Karlos Garitano, Maria Ubarretxena, Ibon Arrupe eta Juan Ramon Mendieta**
(Arrasateko EAJ–PNVen Udal Taldea)
Arrasate

Atez atekoaren lehentasuna zalantzan ipini ostean eta Bilduren inposizioa salatu.

Zaborraren bilketaren eboluzioa aztertuko dugu; izan ere: "Nora goazen jakiteko, nondik gatozen jakin behar dugu". 1965. urtean aldaketa garrantzitsu bat egon zen, sukaldeak aldatu egin ziren eta ikatza erabili ordez gasa sartu zen gure etxeetan. Momentu horretara arte zaborra "etxean" erretzen zen.

Gasaren etorrerarekin batera plastikozko poltsak gure etxeetan sartu ziren zaborra jaso eta erretiratzeko funtzioarekin. Zabor poltsak kaleko hainbat puntutan uzten ziren, egun alternoetan, larunbatak izan ezik, eta, betiere, gaueko 9ak baino lehen. Galdetu diezaiegu 45-50 urte baino gehiago dituztenei: zaborra kalean zabaldurik, poltsak gaizki itxita edo puskatuta (katuak, txakurrak… janari bila). Bilketa manualki egiten zen eta kaleek erakusten zuten itxura nahiko zakarra zen.

Edukiontzien etorrera gradualak aurrerapauso nabarmena suposatu zuen. Geroago, beira, paper, plastiko eta, azkenik, organikoentzako edukiontziak ezartzen hasi ziren zaborraren bilketa optimizatuz modu egoki eta garbi batean. Hainbat edukiontzi soterraturen inplantazioak ere zabor bilketa geroz eta garbiagoa izatea suposatu du, eta, batez ere, kaleko itxura eta estetika inoiz baino hobeto zaintzen da honekin.

Aldiz, atez atekoen promotoreek, Bildu udaletan, 70eko hamarkadara bueltatzea eragin nahi dutela dirudi, horrek dakartzan arazoekin:

-Kale zikinagoak eta estetika okertzea.

-Herritarren inkomoditatea (bilketa ordutegiak, egunak, etab.).

-Inbertsio garrantzitsuen beharra: herritarrari inongo onurarik ekarri gabe gastu gehiago.

-Inposizioaren ondorioak eta "zaborraren turismoa" deritzona; izan ere, herritar guztiak ez daude prest beren burua inposaketaren mesedera ipintzeko: lehengo urtean Antzuolan, adibidez, zaborraren %40 Antzuolatik "desagertu" zen beste herri batzuetan "agertzeko".

Abantailak?: behartutako sistema batek dakartzanak. Hau nahi dugu? Zero-Zabor filosofiak bi sistemak onartzen ditu:

Edukiontziek herritarrak kontzientziatzen dituzte bilketa selektiboan parte hartzera; atez atekoak, aldiz, herritarrak hartara behartzen ditu.

Atzerapausoa, hemen ere, herritarrei ematen zaien tratuan.

## Laburbirarik laburrenaz, barkamenak AEDtik

**Itxaro Artola**
Arrasate

AED elkarteak barkamena eskatu nahi dizue martitzenean Amaia Antzokira Laburbira ikustera joan eta, DVDarekin izandako arazo teknikoak tarteko, emanaldiaz gozatu barik geratu zineten guztioi.

Kostata bada ere, lortu genuen  proiekzio osoa egitea, baina zuetako asko joanak zineten ordurako, ulergarria denez. Ez daukagu, zoritxarrez, aurtengo film bilduma errepikatzeko aukerarik eta datorren urtera arte itxoin beharko dugu euskarazko film laburren zirkuitua geureratzeko atzera.  Beraz, aurtengo edizioko eragozpenak ahaztuta hurrengoan berriro elkar ikusiko dugulako ustean, agur bero bat.

## Bosgarren edukiontziak ez dakar errauskailua

**Anjel Guridi**
Aretxabaleta

Birziklatzeko eztabaida honetan badira zentzuz gabeko esaera batzuk.

"Bosgarren edukiontziak errauskailua dakarrela" irakurri dut nonbaiten. Gure etxeko emaitzak eguneratuta, aurten bosgarren edukiontziarekin %96 birziklatzen dugu; hobeto esanda, %96 birziklatzeko banandu egiten dugu. Guk %96 banandu badugu bosgarren edukiontziarekin Aretxabaletan, errauskailuaren alde gaude? Eta hemendik aste batera Antzuolara joaten bagara bizitzera, atez ate erabiltzen %96 banantzen badugu, errauskailuaren kontra egongo gara?

Nik atez atekoa erabiliz gero berdin-berdin bananduko dut, hau da: emaitza bera bi modu desberdinekin. Beraz, esaerak izan beharko luke: "Ez birziklatzeak dakar errauskailua".

Hondakinak gutxitzeko lehentasunak hauek direla pentsatzen dut: murriztu, berrerabili, birziklatu eta zentzuz jokatu. Oraingo edukiontzi marroien erabilera, nire ustez, saiakuntza besterik ez da, aurrerapausoak eman behar dira; horretarako proposamen batzuk:

-Kanpaina Aretxabaleta guztiari, ez bakarrik borondatez izena eman duenari.

-Organikoa birziklatzeko poltsak eta ontzi txiki marroia banatu etxe guztietan, erabileraren argibidearekin batera.

-Edukiontzi marroiari giltza kendu.

Ezagutu eta probatu dezagun bosgarren edukiontzia.

## Eskerrik asko

**Iosu Lizarralde Aiastui**
(Parte–hartze zinegotzia )
Oñati

Herritarren auto-antolakuntza funtsezkoa izan da gure herriaren historian zehar proiektu ezberdinak aurrera ateratzeko. Azken finean, auzoa, herria edo/eta estatua izateko ezinbesteko dugu subjektu izatea eta herritarren auto-antolakuntzak bermatzen digu hori, antolatua dagoen auzo, herri edo estatuak bere bilakaeran eragiteko gaitasuna baitu.

Ekonomikoaz gain baloreen eta zibilizazioaren krisi baten gauden honetan, non merkatu kapitalistak eta administrazio publikoek euren logika merkantilistak eta normatibistak ezartzen dituzten, Udal Gobernutik eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu martxoaren 10ean Sanlorentzo auzoan auzolanerako bildu ziren auzotar guztiei. Erakutsi zenuten auzotarren auto-antolakuntzak, auzolanak eta herrigintzak, bere logika propioetan zentratuz eta ingurune naturalarekiko errespetuz, produzitu dezakeela jendartearen eraldaketa, antolakuntza eta elkarbizitza soziala. Horrela izan da historikoki eta horrela izan daiteke aurrerantzean ere. Auzolana, herri-ekimena eta antolaketa modu komunitarioak, gure tradizioan dauden elkarbizitza modu preliberalak eta prekapitalistak diren neurrian, sustatu behar ditugun praktikak izan behar direla deritzogu.

Beraz, auzolanean aritu ziren sanlorentzotarrei eskerrak emateaz gain, herritar guztiak animatu nahi ditugu auzolan ezberdinetara bildu eta antolatu daitezen, herrigintzan murgildu eta dituzten lan proiektuekin udaletxera hurbildu daitezen.

## Egokitutako autobusak behar ditugu

**Itsaso Luelmo**
Aretxabaleta

Gurpildun aulkian dabilen aretxabaletar bat naiz eta garraio publikoaren gaineko kexa agertu gura dut.

Egun bi lehenago jakinarazi nuen telefono bidez autobusa erabili gura nuela, baina eguna iritsitakoan egokitu bako autobusekin topatu nintzen. Arrasate-Donostia ibilbidea egiten duena inolako arazo barik hartu nuen 08:30ean. Baina gero, bueltan etortzeko, arazoak bata bestearen atzetik etorri ziren; ez 13:00etakoa, ezta 14:00etakoa ere, ez zeuden behar bezala egokituta.

Azaldutakoa behin baino gehiagotan gertatu izan zait eta elbarriondako arazo benetan potoloa da. Horregatik, Lurraldebuseko arduradunei eskatu gura diet behingoz behar bezalako garrantzia eman diezaiotela, eta konponbidea topatu.

## Errauskailua eta osasuna

**Iulen Romaratezabala**
(Debagoiena Zero Zabor)
Debagoiena

Martxoaren 12rako Oñatin ikas-tailer bat antolatu zuen Oñati Zero Zabor taldeak Errauskailua eta osasuna gaiaren inguruan.

Debagoiena Zero Zabor taldekook bertan atera genituen ondorioak laburtu nahi ditugu.

Atera genuen lehendabiziko ondorioa izan zen ez dagoela errauskailu "seguruez" hitz egiteko arrazoirik. Izan ere, alde batetik, errauskailuetako tximiniak urtean bi aldiz (6-8 orduan) bakarrik neurtu behar dira, legearen arabera. Orduan, hau da gure galdera: urteko beste egun guztietan zer irteten da errauskailuaren tximiniatik? Gainera, egiten diren bi neurketa horiek "antelazioz" abisatuta egiten dira. Horri gehitu behar zaio errauskailu "modernoetan" kasu asko ezagutzen direla legeak ezartzen duen mugetatik oso gorako isurketak izan dituztenak.

Madrilgo Valdemingomezko errauskailu "modernoan", adibidez, legeak onartutakoa baino 15 aldiz dioxina eta furano gehiago aurkitu zituzten.

Beraz, errauskailu modernoak seguruak direla esateko arrazoirik ez dago.

Hala ere, argi izan behar dugu %100 seguruak balira ere, arazoa lekualdatzea besterik ez genukeela lortuko. Izan ere, materia ez da ez sortzen ez desagertzen, baizik eta transformatu. Eta lege bera errauskailuei aplikatuz: errauskailuetatik airera (filtroei esker) isurtzen ez diren dioxinak ez dira desagertzen, baizik eta lekualdatu. Ba, errauts toxikoetan (erretako zaborraren %5-8) eta eskoriatan (erretako zaborraren %20-25).

Dioxinak gizakiak inoiz sortu dituen produktu toxikorik arriskutsuenentzat daude hartuak. Substantzia hauek gaitz desberdinen sortzaileak dira: minbiziak, leuzemiak, malformazioak, alterazio neurologikoak, hepatikoak…

Dioxinak eragotzi beharraz eta hauen arriskuez mintzatu izan dira ONU, Europako Batzordea, OMS…

Errauskailuek metal astunak (kadmioa, beruna, merkurioa, kromoa, kobrea) isurtzen dituzte, eta mikropartikulak ere bai; eta beste hainbat eta hainbat substantzia ere bai.

Hala ere, zergatik ibili behar dugu errauskailurik nahi ez dugunok horrenbeste datu, froga eta azterketa erakusten eta berrerakusten? Zero Zabor taldekook garbi dugu ez garela gu izan behar ingurumenean eta gure osasunean errauskailuak eragiten dituen kalteak frogatzen ibili behar dugunak; baizik eta eurek, errauskailuaren defendatzaileek izan behar dutela ingurumenean eta gure osasunean kalterik eragiten ez duela frogatu behar dutenak. Inongo oinarririk gabe errauskailuaren segurtasunaz segurtasunez hitz egiterakoan suarekin jolasean baitabiltza errauskailuaren aldekoak.

## ZUZENKETA

**Martxoaren 9eko GOIENA paperean, 18. orrialdean, argazki bat oker atera genuen. Jesus Elortza alkateak eta Bilduko hainbat zinegotzik atez ateko sistemaren gainean hilaren 7an eginiko prentsaurrekoko argazkia argitaratu ordez, Bergarako Ezker Abertzaleak gai beraren inguruan hilaren 5ean eginiko prentsaurrekoko argazkia argitaratu genuen.**

**Antton Perez de Calleja** | Ekonomian aditua

# "Lan erreforma beharrezkoa da, baina epe laburrean ez ditu lanpostuak sortuko"

- Lana duten eta "lan ona duten" langileen eskubideak murriztuko direla dio Callejak
- Krisiaren gainean dihardu, eta hauxe dio: "Batzuek diote 2017an aterako garela krisitik"

ENEKO AZKARATE | ARETXABALETA

Euskal Herriko ekonomia adituarik ezagunenetakoa da. 1969an Euskadiko Kutxan hasi zen lanean eta bertan jardun zuen 12 urtez. Gaur egun, berbaldiak, txostenak eta halakoak egiten ditu, etxetik, Eskoriatzatik. Hainbat erakundetako administrazio kontseiluko kide ere bada. Ekonomiaz jardun dugu, gaur egungo egoeraz.

**Sindikatuek greba orokorra deitu dute martxoaren 29rako. Zer deritzozu?**

Sindikatuak behartuta zeuden greba orokorra deitzera. Eta hasiera besterik ez da. Lan merkatua aldatzeko sindikatuei bota dizkieten pultsu guztiak galdu dituzte gobernuek. Lan merkatuari eustea da sindikatuen helburua. Sindikatuak gustura daude lana duten langileak eta, horien artean, lan ziurrena dutenen eskubideak babesten: funtzionarioak, aurrezki kutxetako langileak...

**Oraingoan ere irabazle aterako dira?**

Ikusi behar zer gertatzen den ekonomia krisi gogor honetan. Gaur egun, sindikatuen negoziazio marjina txikia da. Urte amaierarako, 6 milioi langabe izango dira, eta, lan erreformarik egiten ez bada edo soldaten igoerari frenorik jartzen ez bazaio eta soldatak, kasu batzuetan, jaisten ez badira, ez dugu urteetan sortuko lanik.

**Soldatak murriztu egin behar dira?**

2000. eta 2009. urteen artean, soldatak produktibitatearen gainetik 30 puntu hazi ziren. Hori suizida da. Higiezinen burbuilak eztanda egiten duenean eta ekonomiaren pizgarri izateari utzi dioenean, agerian geratu da soldaten eta produktibitatearen arteko desoreka. Desoreka hori ordainketa-balantzan agerian geratu zen. Eta ikusi da ez garela lehiakorrak. Eta hori arazo handia da. Izan ere, krisitik ateratzeko modu bakarra da esportazioa: Espainiari begira bagaude, ez gara aterako. Eta esportatzeko lehiakorrak izan behar dugu. Kalitate-prezio oreka egokia izan behar dugu eta hori galdu egin dugu azkeneko 10 urteotan. Hortaz, edo orekatzen dugu hori, edo produktibitatea hobetzeko neurria izango da enplegua galtzea.

**Udaletan eta beste erakunde publiko batzuetan soldata igoerak-eta proposatzeari zer deritzozu?**

Absurdua da. Lehenbizi, erakunde publikoek ez dituzte errekurtsoak horri eusteko. Bigarrenez, sektore publikoen soldatak lan orduko ia-ia %50 handiagoak dira.

**Funtzionario edo erakunde publikoko langile gehiegi dago?**

Bai. Ez dut esaten ez dagoela justifikatuta, gizarte ongizateari -eta eutsi nahi badiogu, baina argi dago ekonomiak, gaur egun dagoen moduan, ez duela soportatzen horrenbeste funtzionariorik.

**Raxoiren Lan erreforma ze iruditzen zaizu?**

Beharrezkoa da. Horrek esan nahi du langileen kaleratzea merkatu egin behar dela. Baina lan erreforma enpresaburuek aplikatu beharko dute eta nik ez daukat horren garbi hauek bukaeraraino ailegatuko direnik, ez dakit ausartuko diren, oso neurri gogorrak hartu beharko dituzte -eta.

**Eduardo Zubiaurre Adegiko presidenteak txalotu egin berri du PPren lan erreforma.**

Bai. Helburu baikorrenetan ere, ez luke amestuko PPk proposatu duen lan erreformaren modukorik. Azkeneko 35 urteotan, hemen, lan merkatua sindikatuen alde egon da. Negoziatzeko ahalmen handia izan dute, eta, langabezia tasa handiekin ere, soldatek gora eta gora egin dute. Orain, joko arauak aldatu egin dira, eta enpresaburuen esku geratzen da negoziatzeko ahalmen handiena. Salmentak murriztu egin zaizkienez, lasai kaleratu ahal izango dituzte langileak, hauek soberan dituztelako. Soldatak jaisteko aukera ere izango dute.

**Lan erreformarekin lana sortuko da?**

Epe labur eta ertainean, ez. Aurreikuspenak oso txarrak dira eta lana sortu ez eta galtzen jarraituko dugu.

**Lan erreforma honekin langileen eskubideak murriztu egingo dira?**

Bai. Bereziki, eta hau nabarmendu nahi dut, lana duten eta lan ona duten langileen eskubideak murriztuko dira. Arazoaren sorburua zera da: langile batzuek dituzte munduko pribilegio guztiak eta beste batzuek, gazteenek, bereziki, bat bera ere ez. Ez da egoera egokia eta azkeneko urteetan hori aldatzen saiatu dira enpresaburuak.

**Noiz aterako gara krisitik?**

Jakingo banu… Euskal Autonomia Erkidegoak baditu arazoak, baina Espainiak, bereziki, lau arazo nagusi: batetik, higiezinen burbuila; bestetik, finantza erakundeen krisia, praktikan, kiebra eginda; horretaz gain, fiskalitatearen krisia, defizit handiarekin, eta, azkenik, lehiakortasun arazoa. Arazo horiek konpondu behar dira ekonomia haz dadin eta prozesua oso geldo doa.

**Data bat?**

Zerbait esatearren, 2015ean? Batzuek diote 2017an aterako garela krisitik.

**Ezagutu dugun krisirik gogorrena da hau?**

Bai, zalantzarik barik. Hiru krisi handi ezagutu ditut. Lehen, pezeta debaluatzen zen eta krisitik ateratzen ginen. Pobreagoak izango ginen, baina lehiakortasuna irabazten genuen pezeta debaluatzearekin. Orain, euroak izorratzen gaitu. Lehiakorrak izateko kostuak murriztu behar ditugu eta gauzak ondo egin.

**Euroa ez da mauka, hortaz...**

Izan zitekeen. Gustura hartu genuen. Abantaila zen, merkatuen bateratzearen ikuspegitik. Baina ez genuen jakin aurreikusten zer gertatuko zen herrialde erabat ezberdinen arteko simetriarekin, non, batetik, ditugun Alemania bezalako jatorri protestanteko herrialde serio, efiziente, arduratsuak, eta, bestetik, izaera latinoko Espainia eta Italia moduko herrialde mediterraniarrak.

**Euroaren etorkizuna zalantzan dago?**

Batzuek diote amaituko dela. Nire ustez, Grezia edo Portugal bezalako herrialdeek hobe luketе Eurotik irten, ze Europaren barruan gorriak pasatuko baitituzte.

**Moneta debaluatzerik ezin orain...**

Hori da. Lehen txarto ohituta geunden. Gauzak txarto egiten genituela, bada, moneta debaluatu eta berriro ere lehiakor, Alemaniarekiko edo Europako herrialde aurreratuekiko, esaterako, txiroagoak izan arren. Hori amaitu da!

**Merkelen jarreraren gainean ze iritzi?**

Batetik, arrazoi puntua du. Sektore publikoak soila izan behar du eta defizita kantzerra modukoa da. Baina, jakina, krisi latz honen erdian, horrelako doikuntza gogorrak egitea eta defizitari aurre egiteko halako neurri zorrotzak hartzea ere oso gogorra da.

**Kooperatibak zelan ikusten dituzu?**

Batzuk etorkizun handiarekin, ondo kokatuta daudelako nazioartean: Danobat, Orona… Neurri ertain edo txikikoak hobeto ikusten ditut. Handiagoak okerrago; bereziki, Eroski edo Fagor.

**Etxetresnak hemen egiten segitu behar dugu?**

Goi mailako etxetresnak, domotikoak-eta, bai; baina garbigailu arruntak edo linea zurikoak? Ez du zentzu handirik. Hobe Polonian Garagartzan baino.

**Euskadiko Kutxa?**

Ondo ikusten dut. Kutxa gazte samarra da, eta ez oso astuna. Balantzeak garbi ditu. Txikia dela? Bai, hori ez da txarra, lehiakorra bada. Gainera, finantza erakundeak erosteko aukera irekiko zaio.



Antton Perez de Calleja, Aretxabaletan, eguaztenean. | ENEKO AZKARATE

> "Sindikatuak behartuta zeuden greba deitzera; hasiera da"

> "Luzaroan, soldatak produktibitatearen gainetik 30 puntu hazi dira; suizida da"

TORRA+PORTELLA

# Nahi baduzu, lor dezakezu

*Kibuc-en orain zerbitzu azkarreko altzariak ditugu. Argazkian ikusten den sofa atsegin badezu, eta lenbaitlen etxean izatea nahiko bazendu, zatoz Kibuc-era.*

**KIBUC Zure bizitza errazteko aukerak**

**Zerbitzu azkarra**




**KIBUC** Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 **gureametsa@kibuc.com**

**www.kibuc.com**

**Proiektu eta eraberritze integralak**

**KIBUC**
altzariak eta osagarriak
**Azkenean etxean**

Sofaren neurria 272x160zm. Eserleku ateragarriak eta buru mugikorrak. "Chaise longue"aren azpia aprobetxagarria eta 2 "pouff" barrenean dituen besoa. Ezker edo eskubialdean izan daiteke "chaise longue"-a.

## DUELA 10 URTE

2002-03-07

### Kirol medikuntza, guztiondako

Arrasateko Musakolako kiroldegian kirol medikuntza zerbitzua inauguratu zuten egun hartan. Zerbitzu berriak kalitatea eta erosotasun handiagoa eskaintzea zuen helburu, ez bakarrik goi mailako edo federatu mailako kirolariei, debagoiendar guztiei baizik. Inaugurazio ekitaldian goi mailako hainbat kirolari elkartu ziren, hala nola Joseba Beloki, Igor Gonzalez de Galdeano eta Joane Somarriba.



Zerbitzuaren inaugurazio ekitaldia. | XABI URZELAI

2002-03-08

### Zubillagako saihesbidea, gertuago

Gipuzkoako Diputazioko Garraio eta Errepide Sailak Zubillagako saihesbidea egiteko 4,5 milioiko aurrekontua zeukan proiektua onartu zuen aste hartan; 1,8 kilometro luze izatea aurreikusita zegoen; hain justu ere, Santxolopetegiko industrialdetik Osiñurdiraino joango zen. Bada, lanok urtebete irautea zen asmoa. Saihesbidea egiteko hainbat lur desjabetu zituen Diputazioak.

## DUELA 5 URTE

2002-03-06

### Ordainketetarako makina

Arrasateko Biztanleen Arreta Zerbitzuan udal ordainketak egiteko makina ipini zuten, Euskal Herriko lehenengoa. Makina hartan ordaindu ahal ziren Udalarekin lotutako tasa guztiak: ura, zaborra, OHZ, autoen zerga, hilerriko zerbitzuak eta obra baimenak. Isunak ordaintzeko aukera ere ematen zuen.

## HERRITARRAK

ARRASATE

**Rosi Otadui 'Katanga'** Arrasaten oso ezaguna da; ospitalean urteak emateaz gainera, erizain, herriko saltsa gehienetan sartuta dago orain dela ia 62 urte jaiotako arrasatearra. | MIRIAN BITERI

# "Tabernan Coca-Cola bi ateratzen nituen, txakurrarendako eta biondako"



Rosi, Okendo etxe parean, *Katanga* taberna zegoen tokian. | MIRIAN BITERI

Kalera irteten den bakoitzean eskumara eta ezkerrera begiratzearekin batera, agurra du ahoan Rosi *Katanga*-k. Aurpegi ezaguna da Arrasaten, eta hura eta bestea agurtzen joaten da denbora osoan. Ezagunak, behintzat, ez zaizkio falta.

***Katanga*, nondik datorkizu ezizen hori?**

Gurasoek taberna bat zabaldu zuten Arrasateko Maala kalean, Okendo jauregian. Orduan Belgikar Kongoarekin gerran zeuden, eta egunero irteten ziren horren gaineko albisteak; tartean, hango probintzia Katangari buruzko informazioa. Taberna inauguratu zenean, jende asko batu zen han, eta Katanga ematen zuela aipatu zuen batek baino gehiagok. Taberna berez Namur deitzen zen, baina jendeak Katanga izenarekin ezagutzen zuen. Hortik datorkit ezizena.

**Orain dela urtebete pasatxo erretiroa hartu zenuen. Nolakoa da Rosiren egun bat?**

Lanean nengoenean baino okupatuago nago orain. Orduak falta zaizkit. Paseatzea gustuko dut, eta goizetan taldetxo batekin hara eta hona joateko ohitura daukat; bizpahiru orduko ibilbideak egiten ditugu. Egunero, dena dela, ezin naiz joan, masajeak ere ematen ditudalako; hitzorduak dauzkadanean plana egokitu behar dut. Arratsaldean ere beti daukat zerbait; kantua ez denean beste zerbait izaten da.

**Nola gogoratzen dituzu Arrasateko ospitaleko errehabilitazio gunean lanean emandako urteak?**

Primerakoak izan ziren; oso oroitzapen ona daukat. 37 urte eman nituen han lanean, eta milaka kontu bizi eta ezagutu ditut han. Jendea ezagutu dut, eta jendeak ni ezagutu nau. Gaixo askorekin tratatu dut, eta horiekin beti positiboa izaten saiatu naiz.

**Bestalde, Aratusteak oso gustuko dituzu...**

Hala da. Gainera, oso oroitzapen onak ditut: garai batean, *play-black*-a egin genuen hamar bat urtez. Baina ez ditut Aratusteak bakarrik gustuko, jai guztietan disfrutatzen dut nik. Garagardoaren jaia egiten dela, ba hara noa. Horietan egoten den giroa da gehien gustatzen zaidana.

**Jaietatik kiroletara pasatuko gara. Mondra emakumeen taldearen sortzaileetako bat zara. Nolatan?**

1983. urteko uholdeengatik hasi zen guztia. Hori abuztuan izan zen, eta horretan laguntzeko, urriaren 12an emakumezkoen arteko futbol partidua egitea pentsatu zen Iturripen, ezkonduen eta ezkongabeen artekoa. Ez nuen arazorik izan, futbolaz ezer ez banekien ere. Ezkongabeok irabazi genuen.

> **"Aratusteetan bakarrik ez, jai guztietan disfrutatzen dut"**

> **"Roman Lopezekin batera Mondrako emakumezkoen taldea sortu nuen"**

Handik gutxira, Mondra taldekoek deitu zidaten jokalariei masajeak emateko. Baiezkoa eman nuen. Gero, Roman Lopezekin batera emakumezkoen taldea eratu nuen. Ideia zelan irten zen gogoratzen dut oraindik: Lopezi, seme-alabak ikastetxean jasotzerakoan, behin baino gehiagotan galdetu zioten talde bat sortzeko aukeraz. Taldearen 25. urteurrenean, omenaldi hunkigarria egin ziguten bioi. Denera, Mondrak hiru omenaldi egin dizkit.

**Futbola albo batera utzi duzu eta orain bestelako zaletasunak dauzkazu; tartean, kantuan ibiltzen zarela jakin dut...**

Bi taldetan nabil: eguaztenetan parrokiako abesbatzarekin entseatzen dut. Taldearekin Erroman egon nintzen, eta Vatikanora joateko aprobetxatu genuen; dena dela, denbora laburra geneukan eta ez genuen Benedikto Aita Santua bisitatzerik izan. Dena dela, oparia eroan genion: Arrasate herriko giltza, baina ez zen edozein giltza: Arrasate sarrailagilearena zen. Letoizko kilo erdiko giltza enkargatu nuen. Horrekin batera, horren esanahia azaltzen zuen pergaminoa ere sartu genion kutxatila barean. Horretaz gainera, martitzenetan eta eguenetan erretiratuekin egiten dut kantuan; eta hori gutxi balitz, eguenetan erretiratuendako gimnasia terapeutikoa ematen dut.

**Ez duzu aspertzeko astirik?**

Horrela da, bai. Eta tartetxo bat ateratzen dudanean filmak ikusteko erabiltzen dut. *War horse* filma da ikusi dudan azkena; txarto pasatu nuen hori ikusten, orain dela urtebete pasatxo hil zitzaidan *Bolin* txakurrarekin gogoratu nintzen-eta. Hamalau urte egon zen nirekin, eta beti egoten ginen batera. Tabernara joaten ginenean, Coca-Cola bi ateratzen nituen, bat niretako eta bestea harendako. Oso gustura hartzen zuen.

## NIRE HERRIAN

**:) ALDE TXARRIK EZ ARRASATEN**

Oso gustura bizi da Arrasaten Rosi *Katanga*. Ez dauka toki berezirik; horretaz galdetuta, "guztia" gustuko duela nabarmendu du. Hauxe aipatu du: "Oso gustura nago nire herrian. Jendeak ni ezagutzen nau eta nik jendea ezagutzen dut; agian, hori izan daiteke gakoa. Gustura sentitzen naiz horrela".

**:( SEGURTASUN FALTA**

Segurtasun falta sumatzen du arrasatearrak kaleetan. Iturriotz kalean bizi da, eta asteburuan apurketak egoten direla salatu du. Horiek salatzearekin batera, herrian polizia nahikorik ez dagoela ematen du, ekintza horiek ekidin aldera. Honakoa dio: "Non dago segurtasuna? Zaintza lanetan ibili beharko lukete; bereziki, gauez".

HERRIAK

ELGETA

# Lehentasuna da Bergararekin eta Eibarrekin konexioak hobetzea

- Elgetarako taxibus zerbitzua lehenesten du Diputazioak; beharrak zehazteko eskatu du
- Udalak egunean 15 taxibus zerbitzu eskatuko ditu: zortzi Bergarara eta zazpi Eibarrera

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aurreko agintaldi amaieran Diputaziotik garraio zerbitzuaren inguruan iragarritako berrikuntzak ez ziren sekula gauzatu. Egungo Diputazioko arduradunek gaia aztertzeko denbora eskatu zuten, eta udal arduradunekin berriki egindako bileran adierazi zuten Elgeta moduko herriendako Taxibus zerbitzuaren aldeko apustua egiten dutela. Hala, herritarren beharrak zeintzuk diren zehazteko eskatu zioten Elgetako Udalari.

DATUA

**43**

ERABILTZAILE HILEAN

Egunean, batez beste, bidaiari batek erabiltzen du Elgetarekin lotura duen garraio zerbitzuren bat. Erabilera txikia da.

DATUA

**212**

LURRALDEBUS TXARTEL

212 herritarrek atera dute Lurraldebus txartela. Kopuru handia, Elgetan garraio publikoaren erabilera zein den ikusita.

Ahalegin horretan, inkesta eta batzar irekia egin ditu Udalak. Hamar lagunek bete dute inkesta, eta sei herritarrek hartu zuten parte eguaztenean egindako batzar irekian.

### Eskaera: 15 zerbitzu egunean

Elgetako Udalak lehentasunezkotzat jotzen du Bergararekin eta Eibarrekin loturak indartzea. Hala, egunean 15 taxibus zerbitzu ipintzeko eskaera luzatuko dio Aldundiari; zortzi konexio Bergararekin eta zazpi Eibarrekin.

Taxi batek emango luke zerbitzua, baina Udalak eta Aldundiak aurrez adostutako ordutegian. Prezioa, bidaiariarendako Lurraldebus zerbitzuarena izango litzake. Berezitasun nabarmenena da zerbitzua aurrez eskatu behar duela erabiltzaileak; aurreko egunean deitu beharko du erreserba egiteko, eta ezinbestekoa izango da Lurraldebus txartelaren zenbakia ematea. Egindako erreserba kopuruaren arabera, taxi bakarra edo bat baino gehiago etorriko dira. Hori bai, erreserbarik ez badago, taxiak ez du zerbitzua egingo; hau da, ez du hutsik bidaiatuko.

Taxibus zerbitzua martxan da, esaterako, Aizarnazabal eta ondo funtzionatzen duela diote Aldunditik. "Elgetan epe ertaineko apustua izan behar duela uste dugu", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Pentsatzen dugu denbora bat behar dela zerbitzua eskaintzen hasi, eta herritarrek erabiltzeko ohitura hartu bitartean". Urtebeteko epea aipatu zuen batzarrean Erostarbek.



Elgetar bat atzo goizean Bergarara doan autobusera igotzen; lau lagunek erabili zuten egun hartan zerbitzu hori. | L.Z.

Udalak ordutegi proposamen bat aurkeztu zuen batzarrean, eta horri eskaera bat gehitu zitzaion; zapatuetan, 21:30ean, Bergaratik igotzeko zerbitzu bat, alegia. "Bergarara jaisten diren gazteek ez dute autobusik igotzeko; sarri joan behar izaten dugu bila", esan zuen guraso batek.

### Erabiltzaile gutxi momentuz

"Elgetak garraio zerbitzu gutxi ditu, baina esan beharra dago dauden zerbitzuetan erabiltzaile oso gutxi daudela", adierazi zuen kezkaz alkateak. Esan zuenez hilean, bataz beste, 43 lagunek erabiltzen dute garraio publikoa Elgetan. "Azaroan 31 bidaiari izan ziren, abenduan 45, urtarrilean 45, eta otsailean 51". Onartu zuen eskaintza izan daitekeela erabilera eskasaren arrazoietako bat, baina azpimarratu zuen gauza bat dela zerbitzua eskatzea, eta beste bat erabiltzea. Udalak orain Aldundiari helaraziko dio landutako proposamena.



**VANESA MUÑOZ**
ERABILTZAILEA

"Ez dut autorik eta sarri hartzen dut autobusa. Maiztasun txikia dago, eta, autobusa atzeratuta badator, ez zara hurrengoa hartzera garaiz iristen".



**EDUARDO MARTIN**
HERRITARRA

"Elgetan ez dut garraio publikorik erabiltzen, baina interesgarria iruditzen zait taxibusaren kontua. Maiztasun handiagoa badu, ona izango da".



**PEGERTO BLANCO**
TAXI GIDARIA

"Goiz erdian egiten dut nik zerbitzu bat, eta ondo funtzionatzen du. Gehiago ipintzea gauza ona litzatekeela uste dut".



# Otsailaren 6ko istripuko lekukoak behar dira

## Mutiko bat harrapatu zuten; haren senideak ez daude ados bertsio ofizialarekin

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Joan den otsailaren 6an Otalora Lizentziaduna kalean izandako harrapaketaren lekukoak behar dituzte. Hain zuzen, autoak harrapatutako F.A.R. umearen senideek eskatzen dituzte lekukoak. "Hark dio zebra-bidetik gurutzatu zuela errepidea. Eta ni seguru nago egia esaten dabilela. Gainera, zebra-bide hori gure atariaren pare-parean dago, eta umeak beti gurutzatzen du hortik", dio Patricia Rabelok, umearen amak.

Hark gaineratu du istripu-gunean ez zutela "balaztada" arrastorik aurkitu, eta bertsio ofizialak esaten duen moduan umea bi auto artetik irten bazen errepidea gurutzatzeko, azaldu zen tokia baino urrutirago egon beharko zuela kolpearen ondorioz, "21 kilo besterik ez du-eta". "Seguru nago auto bat bigarren lerroan aparkatuta zegoela, eta horretxegatik gidariak ez zuela nire semea ikusi".

**Bertsio ofiziala**

Udaltzaingoak istripua gertatu ostean emandako informazioaren arabera, berriz, umea ez zen bidea zebra-bidetik gurutzatzen ari. Istripua gertatu zen tarte horretan bi zebra-bide daude (Taupa tabernaren parean eta Kulturate parean); bada, mutikoa bi zebra-bide horien artetik pasatu zen, errepidetik eta zebra-bidetik distantzia dezentera, alegia. Udaltzainek informazio hori istripua bertatik bertara ikusi zuen lekuko batengandik jaso zuten. Lekuko hori Okoretegiko biribilgunetik Maalako biribilgunerantz zihoan, eta istripua metro gutxiko distantziatik ikusi zuen. Bide batez, esan, udaltzainek alkoholaren eta drogen probak egin zizkiotela gidariari eta bietan negatibo eman zuela.

**Umearen senideek diote mutikoak zebra-bidetik gurutzatu zuela**

**Udaltzaingoak duen lekukoaren arabera, zebra-bideen artetik gurutzatu zuen**

**Kaleari beldur**

Otsailaren 6an 19:00 inguruan gertatu zen harrapaketa, Otalora kalean. Auto batek 8 urteko F.A.R. mutikoa harrapatu zuen, eta jasotako kolpeen ondorioz, umea lehenengo Arrasateko ospitalera eta gero Donostiakora eraman zuten, traumatismo ugarirekin. Zainketa intentsiboen unitatean izan zuten pare bat egunez.

Orain, mutikoa "ondo" dago. "Mokorrean eta tripan min apur bat dauka, baina ondo dago. Niretzat, Jainkoaren miraria izan zen hori besterik ez izatea. Dena den, orain kaleari eta zebra-bideak gurutzatzeari beldurra hartu die; eskolara bakarrik joaten zen, eta orain, nik eraman behar izaten dut. Eta, gainera, kalean eta eskolan batek baino gehiagok esan diote: *Osatu zara? Ea, ba, orain ikasten duzun zebra-bidetik gurutzatzen*. Hori ez da bidezkoa", bukatu du Patricia Rabelok.



JOXE ELORTZA

## Elortzatar familia handia

**Familiak geroago eta txikiagoak diren mundu honetan, elortzatarrek familiaren jarraipena ziurtatuta dutela erakusten du goiko argazkiak. "Aspaldiko partez" elkartu zen Elortza familia, eta bazkaria egiteko aprobetxatu zuten, Aretxabaletako Basabe jatetxean. "Hurrengo urtean gehiago eta hobeto", diote.**

## Meditazio budista doan egiteko aukera, Yoga elkartearekin

Martxoaren 22an eta 27an (martitzena) meditazio budista egiteko aukera eskaintzen du Arrasateko Yoga Elkarteak. 09:30ean eta 18:00etan dira meditazioak, eta bi kasuetan sarrera doakoa da. Orokorrean, meditazioen helburua da "gure barrua edo kontzientzia ezagutzea".

## Dirulaguntzen zati bat aurreratuko diete erretiratu elkarteei

Aurtengo udal dirulaguntzen deialdia onartu ez den arren, herriko erretiratuen elkarteei aurrerakina emango die Udalak. 11.400 euro pasa banatuko ditu lau erretiratu elkarteen artean, modu honetan: Abaroa: 3.744 euro; Toki Argi: 2.978 euro; Musakola: 2.667 euro: eta Uribarri: 2.080 euro.



# Eskola antzerkien jardunaldiak hilaren 28an abiatuko dira

## Aurtengoa, 22. edizioa da; Arrasateko Udalak 9.861 euroko aurrekontua bideratuko du

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE
Ikasleen artean antzerki zaletasuna hezkuntza adierazpen gisa lantzeko asmoz, aurten ere Udaleko Hezkuntza Sailak eskola antzerkiak antola ditu, Kultura Sailarekin elkarlanean. Arrasateko 1.800 ikasle baino gehiagok hartuko dute parte eta Udalak 9.861 euroko aurrekontua onartu du. Martxo amaieran hasi eta maiatza bitartean burutuko dira.

**Antzerkia, hiru modutara**
Jardunaldiok Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. zikloko ikasleei zuzenduta daude eta orain arteko edizioetan moduan –aurtengoa 22. edizioa da dagoeneko–, hiru fase izango dituzte: lehenengoan, ikasle batzuk aktore bilakatuko dira beste ikasle batzuen aurrean; bigarrenean aktore profesionalek egindako lanak ikusiko dituzte eta hirugarrenean, berriz, programan parte hartuko duten ikasle batzuek bisita gidatuak egingo dituzte Amaia antzokia barrutik ezagutzeko.

Martxoaren 28an eta 30ean, DBHko 1.zikloko ikasleek sei obra egingo dituzte Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleen aurrean; emanaldi bakoitzean 200 bat ikasle izango dira. Maiatzaren 3an, 10ean eta 17an izango dira, berriz, aktore profesionalek egindako antzerki emanaldiak: Vaiven taldeak *Lotsagabeak* lana antzeztuko du 415 ikasleren aurrean; Txalo produkzioak taldeak, *Ipuinen bilduma* erakutsiko du bi emanalditan 751 ikasleren aurrean eta Paraiso taldeak, azkenik, *Bremengo musikariak* obra ekarriko du, 671 ikaslek bi emanalditan ikus ditzaten.

Ikasleen artean antzerki zaletasuna bultzatzeko ekimenarekin amaitzeko, azken fasean Amaia antzoki barrutik ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte. Hala, atze-oihaleko sekretuak ezagutuko dituzte, besteak beste. Arrasateko Herri Eskolako eta Arizmendi Ikastolako 6.mailako 200 ikaslek egingo dituzte bisita hori.

**DATUA**
**1.800**
IKASLE DEITUTA
Herriko ikastetxeetako 1.800 bat ikasle mugituko ditu ekimenak.



Eguazteneko prentsaurrekoa, zenbait herritarren babesarekin. | JON BEREZIBAR

## 'Mondraberri' agerkari digitala berriro hasiko da argitaratzen, gaur ezkero

**J.B.** | ARRASATE
Dirulaguntza publikoen murrizketek behartuta Portaloi Kultur elkarteak *Mondraberri* Arrasateko agerkari digitalaren jarduna etetea erabaki ostean, langileek "hausnarketa sakona" egin eta proiektuaren ardura hartzea erabaki dute. Hala, gaur hasiko dira berriro argitaratzen. Aro berri honetan arrasatearren parte hartzea areagotzea da agerkariaren asmoa, eta, horretarako, harpidetza kanpaina abiatu dute, norbanako, elkarte eta enpresei begira.

**Jasotako babesa lagungarri**
Herriko elkarte ezberdinen aldetik jasotako babesak "sekulako garrantzia" izan du ibilbide berriari ekitea hartzeko erabakian, *Mondraberri*-ko lantaldearen esanetan.


MODESTO BARRUTIA

## 1946ko kintoak giro ederrean batu ziren, urtero legez

1946an soldadutza egin zuten arrasatearrek ez zioten hutsik egin urteroko hitzorduari. Martxoaren 3an egin zuten ospakizuna: Iturbide egoitzan meza entzun ostean Buenuena jatetxean elkartu ziren bapo bazkaltzeko, giro ederrean. Zazpi lagun elkartu ohi dira, baina aurten batek huts egin du, gaixorik zegoelako. 87 urte bete berri dituen Modesto Barrutiarekin egon gara: "Urtero elkartzen gara; ea hala izaten segitzen duen...".

## Azul ile-apaindegian zure gustura: nolako ilea izan, halako tratamendua jaso

Aurten 12 urte beteko ditu Azul ile-apaindegiak Arrasaten. Ile-apaindegiko tratamendu pertsonalizatua emateaz gain, estetika arloan ere eskaintza zabala dute.


Azul ile apaindegia osatzen duen lantaldea.

> "Tratamendu pertsonalizatuak eskaintzen ditugu, ilearen araberakoak. Orain, gainera, produktu naturalekin lan egiten hasi gara, hainbat eta hainbat tratamendu dituena."

Ile-apaindegietan lan egiteko modua asko aldatu da azken urteetan. Lehen, ile mota guztiei ia tratamendu bera ematen zitzaien, bezeroaren ilea nolakoa zen kontuan hartu gabe. Gaur egun, asko aldatu da egoera eta hainbat eta hainbat tratamendu eskaintzen dira ile-apaindegietan.

Hori da aurten 12 urte beteko dituen Azul ile-apaindegiaren kasua. Tratamendu pertsonalizatuak eskaintzen dituzte. Hau da, bezeroaren ilea nolakoa izan, halako tratamendua ematen diote. Egun, hainbat enpresak egiten dute lan sektore horretan, eta eskaintza zabala da oso. Honela azaldu digu Nagore Arabiourrutia arduradunak: "Ilearen osasuna zaintzeko etxe asko daude aukeratzeko, guztiak dira oso onak".

Etxe horiekin lan egiteko orduan, prezioa asko zaintzen dute, eta hori igarri egiten du bezeroak. Egun, lau dira lantaldean: hiru ile-apaintzaile eta Nagore Arabiourrutia arduraduna, estetika arloaz arduratzen dena.

**Produktu naturaletara**
Bezero bakoitzari behar duen tratamendua emateko helburu horretan, lehengai naturaletarako urratsa egin dute: "Produktu naturalekin lan egiten duen etxe batekin gabiltza orain, ilearen araberako hainbat eta hainbat tratamendu dituena", dio Arabiourrutiak.

Ile-apaindegi zerbitzua emateaz gain, estetika arloan ere oso eskaintza zabala dute: depilazioak, gorputzerako zein aurpegirako tratamenduak... Denetarik egiten dute.

azul
ILE-APAINTZAILEAK
Otalora lizentziatua 24 - ARRASATE
Tel.: 943 79 83 66
ORDUTEGI JARRAITUA
Astelehenetik egubakoitzera: 10:00etatik 19:00etara
Zapatuetan: 09:00etatik 14:00etara

Inazio Azkarragaurizar | Alkatea

# "Urte bukaerarako ospitale gunean ehun aparkaleku pasa izango dira"

## Atez ateko sistema, TAO, Laubide zabaldu eta bandalismoari aurre egitea dira Arrasateko Udalak aurtengo agendan dituen gaietako batzuk


Inazio Azkarragaurizar alkatea, Goiena telebistak

UBANE MADERA | ARRASATE

Bederatzi hilabetez dihardu Inazio Azkarragaurizar alkateak aginte karguan, eta gai mardulak darabiltza esku artean: atez ateko sistema, zirkulazio kontuak eta, bereziki, Udaleko diru faltak markatutako agenda. Halakoak eta beste kontatu dizkio Eneko Azkarateri Goiena telebistako *Harira* saioan, eta guk paperera ekarri ditugu:

**Hiri hondakinen kudeaketen harira kritika gogorrak jaso dituzue; zelan hartu dituzue?**

Normaltasunarekin. Ez duguna ulertzen da kontu horrekin gaia horrenbeste politizatzea. Adibidez, Katalunian martxan jarri zen atez atekoa, eta inongo arazo barik aurrera egin zuen, alderdi guztiak ados jarri ziren. Alde horretatik, pixka bat kezkatzekoa bada.

**Herritarren artean zer sumatzen duzue?**

Kalean kezka apur bat ikusten da, baina uste dut gehiago dela gai mediatikoa. Jendeak ikusten du informaziorik ez duela, eta nahi du jakin ea zela egin behar den eta zelan aplikatu behar den. Hori konponduko da informazioarekin hasten garenean. Asmoa da informazio kanpaina indartsua egitea, eta herritarrekin konpartitzea. Dena den, sistema, berez, ez da sistema estankoa, malgua da, egokitzen da egoera guztietara; horregatik, inportantea da jendearen parte-hartzea eta jendea inplikatzea.

**Zirkulazio kontuetara salto egingo dugu. Aldaketak aurreikusten dituzue, adibidez, alde zaharrerako. Zer duzue esku artean?**

Lehendik datorren plana da mugikortasun plana. Martxan nahi dugu jarri, eta atal bat da alde zaharra oinezkoendako prestatzen joatea. Plangintza da ordutegia aldatzea, oinezkoei segurtasun handiagoa emateko. Kontua da hor gune arriskutsu batzuk daudela, gehienbat ikastola gunea (Olarte-Gazteluondo ingurua), eta asmoa da ordu puntetan (ikastolako sarrera-irteera orduetan) zirkulaziorik ez egotea. Arbolapeta ingurua ere nahiko arriskutsua da, eta hori moztu nahi dugu. Seinalizazioa prestatzen gabiltza, eta dugunean, emango dugu informazio zabalagoa.

**Zirkulazioari dagokionez, beste aldaketarik aurreikusi dituzue?**

Bagabiltza aztertzen TAOren kontua. Oraindik esateko moduan ez dugu, baina asmoa da gune bat martxan jarri eta gero zabaltzen joatea. Datorren astean Hirigintza batzordetik pasatzeko asmoa dugu. Dena den, erabakia hartu ostean gune horretako auzo alkatearekin eta beste pertsona batzuekin egon behar dugu.

**Zein eredu aztertu duzue?**

Asmoa da doako sistema ezartzea, Bergarakoaren antzerakoa. Enpresa baten bitartez azpikontratatu egin beharko lirateke makinak, eta hasteko ez dugu *oterorik* jartzeko asmorik, udaltzainekin funtzionatuko luke.

**Zirkulazioarekin bukatzeko, zoritxarrez, azken hilabeteotan bi harrapaketa izan dira eta auto bat errekara jausi da. Halakoak ikusita, Udaltzaingoak neurriren bat hartuko du? Alkohol probak, adibidez?**

Kontrolak egiten dituzte. Ez dira toki konkretu batean jartzen, baina piloa egiten dituzte. Dena den, ikusi dugu arazoa badagoela. Kasualitatea izan daiteke, baina balio izan du egoera aztertzeko. Eta ikusi dugu gune batzuetan, Otalorako zebra-bidean, adibidez, aparkalekuak justu zebra-bidearen ondoan daudela eta horiek arriskutsuak direla; askotan, herritarra pasatzera dihoanean, autoak ez du ikusten. Zebra-bide ondoko aparkalekuak kendu egingo ditugu.

**Aparkaleku kontuekin segituz, urteotan arazo da ospitale guneko aparkaleku gabezia. Horrek gaiztotu egin zuen lehengo Udal Gobernuaren eta Osakidetzaren arteko harremana. Badu irtenbiderik?**

Berri on bat emateko moduan nago: akordiora iritsi gara eta asmoa da ospitale berria ekainerako zabaltzea eta bitartean hitzarmena sinatzea; hor jasotzen da aparkaleku kopuru bat egin behar dela. Batzuk lur azpikoak izango dira eta beste batzuk kanpokoak. 2014rako 200 aparkaleku eta piku aurreikusten dira.

Faseka egingo da. Lehenengo fasea ospitalea zabaltzen dutenerako izango da. Eta urte bukaerarako izango da bigarren fasea. Bigarren fase horretarako, ehun aparkaleku baino gehiago izango dira, gehi Fagorrekin hitzartuta daudenak.

**Herri urbanoaren erabilera asko jaitsi da igogailuak zabaldu zirenetik. Zerbitzua arriskuan dago?**

Erabilera jaitsi da piloa. Asmoa da berriro aztertzea, eta benetako beharrak zehaztea auzo alkateekin batera, ordutegiak-eta egokitzeko. Hori egin eta gero, kanpaina egin

OPOSIZIOKO ALDERDIEN BALORAZIOA ETA ALKATEARI GALDERAK

Aritz Arrieta | PSE-EEko bozeramailea

### "Lidergo falta ikusten diogu alkateari"

"Alkatearen izugarrizko lidergo falta dago, eta horrek ekarri du Arrasate geratzea Debagoieneko herrietan atzenetarikoa. Promozio ekonomiko eta enplegurako ez du jarduten, eta gure iniziatibak ez ditu kontuan hartu. Alkatearen lidergo falta ikusten da, baita ere, esaten duenean ez dagoela dirurik proiektuak aurrera eramateko; ateak ukitu behar dira eta eskatzen diogu alkateari, alkate moduan, Diputaziora eta Jaurlaritzara (eta hor gure laguntza izango luke) diru eske joateko, eta horrekin aurrera eraman ahal izango lirateke Arrasatek eta arrasatearrek behar dituzten gauzetarako".

▶ **ALKATEAREN ERANTZUNA**

"Berak jakingo du zer den lidergo falta, akaso izango da medioetan gehiago agertzea; eurei gustatzen zaie hori, baina nik uste dut lana udaletxean egin behar dela. Eta harritzekoa ere bada ekonomiari buruz diotena, eurak Jaurlaritzan egonda, eta Estatu mailan ere egon dira... eta ikusten dugu horren emaitzak zeintzuk izan diren. Ikusi da herritarren erabakia zein izan den, hauteskundeak izan direnean konfiantza galdu egin dute".

**Noiz ekarri behar duzue zaborra atez ate batzeko sistemaren gaineko plana osoko bilkurara?**

"Plangintza Debagoieneko Mankomunitatetik eginda dago, eta erabakia osoko bilkuran hartuko dugu. Dena den, gure asmoa da, Arrasateri dagokionez, erabakia datorren ekainean hartzea. Era berean, asmoa dugu atez atekoaren eztabaida kalera ateratzeko. Herritarren parte-hartzea gura dugu atez atekoa modu egokian aplikatzeko."

Juan Karlos Garitano | EAJko bozeramailea

### "Bilduk ez du proiekturik, ez ideiarik ere"

"Bilduk ez du agintaldirako proiekturik, nahiz eta hainbat zinegotzi liberatuta izan. Ez dugu ikusten aldaketarik aurreko agintaldiarekiko. Aurrekontuak ez dio ematen erantzunik krisi egoerari. Arrasatek 1.400 langabe ditu eta krisia gero eta gogorragoa da. Bildurentzat atez atekoa sistema bakarra da. Mankomunitatera 200.000 euro joan dira Udaletik. Sumatzen da gelditasuna, proiektu, ilusio eta ideia berri falta; noizko agintaldi honetarako proiektua? Prest gaude ideiak eman, eztabaidatu eta akordioetara heltzeko, baina Bildurentzat soberan gaude".

▶ **ALKATEAREN ERANTZUNA**

"Dirurik ez dugu, baina ilusioa eta gogoa, piloa. Gure baliabideak mugatuak dira eta ditugun baliabideekin asko egiten dugu. Kontua da gakoa ez dagoela Arrasateko Udalean, gakoa Madrilen dago. Behar duguna da burujabetza ekonomikoa eta politikoa. Bestalde, ez da egia ez ditugula aintzat hartzen, aurrekontuak egiterakoan egon ginen eurekin. Eta enplegua eta enpresak bultzatzeko laguntzak badira, eta, gainera, mantendu egiten ditugu, eta hori asko da krisi garai honetan".



ko platoan, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

beharko genuke garraio publikoa bultzatzeko. Derrigor egin behar da azterketa sakona. Arrasaten auto-mugimendu handia da, eskoletara doazenak, fabriketara... dena den, ez dugu ikusten zerbitzua murriztea; defizitarioa da, baina, gure ustez, bultzatu egin behar den zerbait da.

**San Andresko auzotarrak oso kezkatuta daude HAPOn oraindik ere azaltzen delako Polmetasako etxeen proiektua dagoenetan, hau da, Cordoba y Oro plazaren zati handia erabiliko litzatekeela etxeak eraikitzeko. Aurrera doa proiektua?**

Eraikuntzarekin lotutako enpresa batek lursail horiek erosi egin zituen, etxeak eraikitzeko. Bestalde, lursailak erosi zituen enpresa kiebra egoeran dago. Dena den, gune hori aztergai dago Hirigintzako Aholku Batzordean, eta ikusiko da gune hori erabiltzen den etxeak egiteko edo beste erabilera bat ematen zaion. Baina kontuan izan behar da beste jardueraren bat egiteko lursaila erosi egin beharko litzatekeela, eta gaur egun Udalean ez dago dirurik hori erosteko.

**HAPOn Kanpanzarko harrobiaren kontrako 400 ekarpen jaso dira.**

Bai, hor ikusten da jendearen iritzia zein den. Bere garaian ikerketa bat hasi zuten hor harrobia kudeatzen duten enpresakoek, baina hura bukatu zutenean, gura zuten esplotazioarekin jarraitu. Udalak ez zuen hori ikusten, uste duelako harrobiak Plan Orokorraren barruan egon behar duela. Beraz, oraingoz, ez daukate Udalaren baimenik, eta, gainera, epaitegietan dago kontua.

**Adindunei begira, Etxaluze da urteotako berritasunetako bat; zabaldu eta berehala txiki geratu zela kritikatu zuten. Zelan baloratzen duzue?**

Balorazio positiboa egiten dugu. Leku paregabea da, halako leku bat izatea sekulakoa da. Bete egiten da, baina hori gauza ona da. Dena den, Arrasaten badaude beste gune batzuk pertsona nagusiek erabiltzen dituztenak Zigorrola, Santa Marina eta Uribarrin, eta nik uste dut nahiko leku badutela euren aisialdirako.

**Diru kontuetan sartuta: Arrasateko Udalaren egoera zein da?**

## "Katalunian atez atekoa martxan jarri zen, alderdi guztien adostasunarekin"

## "TAO sistema abiarazi gura dugu, Bergarakoaren antzera, doakoa"

## "Udaleko kontuak saneatuta daude; aurreko gestioa oso ona izan da "

Ona da. Kontuak saneatuta daude, eta azpimarratu behar dugu aurreko agintaldian egin den gestioa; oso ona izan da. Zentzu horretan, eskertzeko moduan gaude.

**Murrizketarik egin duzue?**

Murrizketak egon dira gastu arruntetan eta baita inbertsioetan ere. Inbertsioak aurrekontuaren %10 dira, eta horrek ez du ematen marjina handirik gauzak egiteko, baina horiek dira ukitu direnak.

**Inbertsioen artean, batenbat aipatuko zenuke?**

Adibidez, artxibo berria nahi dugu egin. Bestalde, badaude proiektu batzuk aurten hasiko direnak eta, akaso, 2012an ez direnak bukatuko: Ongizateko bulego berriak; San Josepeko proiektua, Udalako proiektua... Ikusi behar zer diru dugun.

**Foru Foralari itzuli beharreko kopurua zertan da?**

Itzuli beharreko kopurua da 1.570.000 euro. Erdia bueltatu da otsailean eta beste zati bi bueltatuko ditugu urtean zehar.

**Arrasaten badira eraikin esanguratsu batzuk hutsik. Badago halakoetarako plangintza orokorrik? Adibidez, zertan da Aprendizen Eskolako eraikina?**

Sprirena da, Industria Garapenerako Agentziarena, Jaurlaritzarena. Momentu honetan jarduera ekonomikorako dago aurreikusita. Lotuta dago, baita ere, erlojuaren erakinarekin.

Azken hori epaitegietan dago. Sprik esaten du eurena dela eta guk, berriz, gurea dela. Guk gai hori konpondu egin gura dugu. Eztabaidagai dago Hirigintzako Aholku Batzordean, eta han ere iritziren bat irtengo da, horrekin egin beharrekoaren gainekoa. Dena den, bere garaian, Musika Eskola egiteko erlojuaren eraikina aipatu zen.

Aprendizen Eskolakoan, berriz, kafe antzokia egiteko interesa zegoen. Baina arazoa da ez dela gurea, eta zerbait egiteko erosi egin beharko litzatekeela. Momentu honetan Udala ez dago erosteko moduan, baina hori izango litzateke irtenbide bat.

**Eta Gelmako egoitza? Zertarako erabiliko da?**

Herriaren ondarea da eta babestu egin behar da. Bere garaian, Museo Industriala egitea komentatu zen, eta baita kultura taldeek erabiltzeko ere. Baina kanpotik oso ondo dagoen arren, barrutik obra handia eskatzen du. Hutsik dago. Era berean, oraingoz, eskaerarik ez da egon hura erabiltzeko.

**Kafe antzokia aipatu duzu . Egin daiteke halakorik?**

Kultura taldeek, euskara munduan dabiltzanek interesa baldin badute, Udala gertu dago bultzada emateko. Batzuek interes txiki bat, behintzat, azaldu dute Aprendizen Eskolarekiko. Nik uste dut hori herriarendako oso positiboa izango litzatekeela.

**Herrian berdegune gehiago sortzeko asmorik badu Udalak? Askotan, zementua da nagusi; Seber Altuben eta Garibain, esaterako.**

Herria eginda dago dagoen moduan eta horri buelta emateko diru asko behar da. Horrenbestez, egin behar duguna da daukagun gune berdeak aprobetxatu, mantendu... Esate baterako, Santa Barbara eta Monterron; pribilegioa da halako lekuak izatea.

**Prest zaude proiektua aurkezteko? Eta noizko? Zain gaude.**

"Maiatzeko hauteskundeetara gure programarekin eta proiektuekin aurkeztu ginen, eta herritarren bozka jaso genuen. Horren ondorioa da guk hamaika zinegotzi ditugula udalbatzarrean, eta eurek, berriz, lau. Edozelan ere, Ilusioarekin eta gogoarekin gure proiektuarekin aurrera egiteko asmoa dugu."

HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

### Alde zaharrean non ipini behar dituzte zaborra batzeko posteak?

"Aztertu beharrekoa da. Asmoa da prozesu parte-hartzailea martxan jarri, eta egindakoan, herritarrek eta teknikariek zer esaten duten ikusi. Hori esanda, nik uste dut, akaso, alde zaharra ez dela izango arazo gehien emango duen gunea, ze gaur egun hor zaborra ez baita botatzen edukiontzietara, lurrean uzten dute. Dena den, sistema malgua denez, egongo da aukera alde zaharrera egokitzeko. Helburua ez da atez atekoa ezartzea. Helburua da zero zabor lortzea".

### Bandalismo kasuak saihesteko neurriren bat hartuko du Udalak?

"Kezkatuta gaude Udalean, ze bandalismo kasu batzuk egon baitira; eta neurri batzuk jarri ditugu horiei aurre egiteko: zaintza handiagoa. Hain zuzen ere, kamera batzuk jarri ditugu, eta udaltzainak sarriago pasatzen dira igogailuak dauden tokietatik. Garbi dagoena da kaltea egiten dela eta horrek izugarrizko kostua duela. Dena den, Udalak bere partea ipiniko du, baina uste dut denon erantzukizuna dela, ardura kontua dela eta inplikazio kontua ere badela".

### Aparkaleku gabezia ikusita, zergatik ez da Laubide zabaltzen?

"Negoziatzen gabiltza, baina gure asmoa litzateke Laubide zabaltzea. Kontua da Gespar enpresari Garibaiko eta Laubideko aparkalekuen gestioaren lagapena eginda dagoela 50 urterako, eta Laubidekoa zabaltzeko enpresaren baldintza da Garibaikoa betetzea. Hori ez da gertatzen. Momentu puntual batzuetan betetzen da, baina orokorrean ez. Beraz, zaila da kontua, baina asmo horrekin gabiltza: Laubideko aparkalekua zabaltzeko asmoarekin".

### Zein da Udalaren kirol politika? Arrasate ez da erreferente azkenaldian

"Gure politika kirola bultzatzea da, baina ez lehiaketa mailan. Kirola osasuntsua da denondako eta praktikatu egin behar da, lehiaketa kontuak alde batera utzita. Dena den, herriko kirol taldeekin harremanak hobetzen gabiltza. Asmoa da kirol-kontseilua sortzea parte-hartzea bultzatzeko, eta guztion artean emango diogu horri ere bultzada. Bestalde, Mondra taldeak Udalarekin duen zorraren kontua konponbidean dago dagoeneko".

# Uraren Kultura berria azaltzeko ekitaldia Aroztegin hilaren 23an

Iñaki Antiguedad eta Javier Martinez hidrogeologoekin hitzaldi–solasaldia antolatu dute

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Hainbat herritarrekin elkarlanean, Ingurumen Astearen barruan, Uraren Kultura berria ezagutu eta ezagutzera eman nahi du Udalak. Hain zuzen, kultura berri horretan aitzindariak diren pertsonak gonbidatu dituzte, eta hainbat ekitaldi izango dira datozen egunotan.

Uraren eta ibaien kudeaketan jasangarritasun irizpideak barneratu daitezen lan egiten duen mugimendua da aipatutakoa. Zientzialariek, arloko teknikariek eta herri mugimenduek bat egiten dute. Horren adierazle, Uraren Kultura berri horren ikuspegiaren barne sortu den *Fluvi-zoriontasunaren* mugimendua: erreka eta ibaiek dakarten osotasun emozionala eta urarekin disfrutatzearen gozamenak gure osasunean duen eragin positiboa islatzen ditu aipatutako *korronteak*.

Uraren Kultura berrian, ibai-errekek gordetzen duten biodibertsitatea ezagutzea eta kontserbatzea funtsezkoa da. Erreken balio sozialak, kulturalak, ludikoak, estetikoak eta paisajistikoak, funtsezko elementuak dira. Betiko politika hidraulikoak motz gelditu dira gizartearen behar eta kezka berriei aurre egiteko orduan, eta garapen jasangarriaren paradigma berriaren aurrean. Horren aurrean, uraren kudeaketa modu efizientean egiteko premia gero eta nabariagoa da.



Iñaki Antiguedad, EHUko hidrogeologia katedraduna Bergaran izango da.

### Ekitaldia martxoaren 23an

Uraren Kultura berriaren inguruko ekitaldia ospatuko da hurrengo egubakoitzean, martxoaren 23an, Aroztegi aretoan, 19:30ean. Iñaki Antiguedad, EHUko hidrogeologia katedradunaren aurkezpenaren ondoren, Javier Martínez Gil hidrogeologoak *La nueva cultura del agua* hitzaldia egingo du. Jarraian, Montse Castella kantaririen saioa izango da. Ekitaldira hurbiltzen direnek liburu oroigarria jasoko dute. Ondoren, luntx-solasaldian parte hartzeko aukera izango dute, 21:30ak aldera.

### Erakusketa Aroztegin gaurtik

Era berean, Ingurumen Astearen barruan, *Ibaiak eta Uraren kultura berria* erakusketa ikusgai izango da Aroztegin, martxoaren 16tik 25era. Emilio Gastonen (Zaragoza, 1935) eskulturak eta poemak jarriko dituzte eta, aldi berean, *Deba ibaia bizirik* argazki eta dokumentu bilduma eta ikus-entzunezkoak. Bi ikus-entzunezko botako dituzte: *Ireki atea ibaiari* (Ebro ibaian kayak batetik hartutako irudi sorta ) eta bestetik Txomin Amasorrain zenak 1960-ko hamarkadan errekak herrian zuen garrantziari buruz egindako film laburra.

# Atez ateko sistema azaltzeko hitzaldiak

Gaur, egubakoitza, eta astelehenean egingo dituzte, osoko bilkuren aretoan, 19:00etan

**E.M.** | BERGARA

Hiri hondakinen inguruan herritarrak informatzeko abian jarritako prozesuaren barruan, gaur, egubakoitza, *Zero zabor: posible da atez atekorik gabe?* izenburuko hitzaldia izango da udaletxean, osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Usurbilgo lehen esperientziaren berri emango dute hizlariek, eta aldibereko itzulpena eskainiko dela aurreratu dute antolatzaileek.

### Kanpoko herritarren ikuspuntua

Astelehenean, berriz, Hernanin eta Antzuolan bizi diren bergarar batzuek atez atekoarekin izan dituzten bizipenak kontatuko dituzte, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Besteak beste, Jon Altuna *Oxan*, Agurtzane Loidi eta Juan Ramon Aranguren *Zarra* izango dira hizlarietako batzuk.

Bi hitzaldi horiek *Informazio-komunikazio* fasea deiturikoaren barruan kokatzen dira. Hilaren 19tik 25era, *Birzikatuz sortu* erakusketa jarriko dute udaletxean. Bigarren fasean, *Atez atekoan sakontzen* izenburupean, auzoetan batzarrak eta herritarrekin, eragileekin eta merkatariekin bilerak egingo dituzte apiriletik ekainera. Hirugarren fasea udazkenean iritsiko da.



Hernani eta Antzuolako esperientzia azalduko dute hitzaldian.

# PSE-EE: "Atez ateko sistema, defenda ezina"

**E.M.** | BERGARA

Bergarako PSE-EEk prentsa ohar baten bidez adierazi duenez, atez atezko sistema "defenda ezina da", eta Bergarako familien "itotzea" ekarriko du. Era berean, ezker abertzalearen jarrera "zinikotzat" jo dute sozialistek, "egun familia askok bizi duten egoera economiko larria aprobetxatuz atez atekoa ezarri nahi izanagatik". Hondakinen kudeaketa ezker abertzalearendako negozioa dela salatzen dute: "Garbitania elkartea eratu dute atez atezkoaren bideragarritasuna aztertzeko, ondorengo gestioa eramateko, ikastaroak emateko alkate eta zinegotziei eta materia organikoa Gipuzkoatik kanpo eramateko, konpostaje plantak geldiarazi dituelako Bilduk". Herritar gehiengoaren iritziaren alde egingo duela dio PSE-EEk: "Birziklatzea eta bosgarren edukiontzia da gure apustua".

## OHARRAK

**BIZIKLETA ASTEA: PROIEKZIOAK IRIZARREN**

Bizikleta Astearen barruan hitzaldi-proiekzioak izango dira hilaren 20tik 23ra Irizarren, 19:00etan. Lehenbizikoa martitzenean, *Serbia eta Montenegro 2008*, Edu Moreno eta Iker Osa bergarararren eskutik.

**AFARIA JARDUNEKIN**

Jardunek kantu jira eta kantu afaria iragarri ditu hilaren 23rako. Kantuan aterako dira 20:00etan San Martin plazatik eta Artatsen afalduko dute. Txartelak (15 euro), Arranon, Ariznoan edo Jardunen.

**LOKALAK, ARTISTEN ZAIN**

Udalak egitasmo bat jarri du abian alde zaharrean hutsik dauden lokal komertzialen erakusleihoak herriko artisten artelanekin dotoretzeko. Argibideak kultura etxean (943 77 91 58) edo Beart elkartean (635 71 32 69). Lokalen jabeendako izen-ematea ere kultura etxean egin daiteke.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

CLINICA DENTAL BERGARA
Bidekurutzeta 36 behea
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 05 77
ZERBITZU INTEGRALA
Behar duzun espezialitatearen araberako lantalde profesionala.
• Odontologia orokorra
• Protesiak
• Inplanteak
• Endodontzia
• Hortz-estetika
• Ortodontzia (Doako azterketa)
• Periodontzia
ESTREINATU IRRIBARREA
Inplante tratamendua:
• Azterketa eta aurrekontua doan.
• Inplante unitario osoa, gehienezko prezioa 112 €/ hilabeteko*
* Urte baterako finantzaketa
ASEGURUAK
DKV / Previasa • Aegon • Mapfre • Sanitas
Adeslas / IMQ / Iquimesa • Santa Lucia
Previsora Bilbaina • Ocaso
Mutuak
PADI Haurren hortzak zaintzeko Osakidetzaren programa
Hirugarren adinekoentzako deskontu bereziak!
PSE 99/94

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

# Goienako zerbitzuak herritarren eskura Jardunen bulegoan

Kultura etxeko bulegoan hartuko dituzte Goienarako eskela, oharrak eta beste

**ARRITXU BARRUSO** | BERGARA

Ia bi urte dira Goienak Bergaran bulegorik ez duela; izan ere, Arrasateko eraikinean ezarri du erredakzio bakarra. Dena dela, herritarrengandik aldendu barik, irakurle eta jarraitzaileengandik gertu egoten segitu nahi du, eta, hori horrela, hitzarmena sinatu berri du Jardun euskara elkartearekin. "Bergararrengandik gertu egoten segitu nahi dugu, eta Jardun elkartean topatu dugu horretarako bidea", adierazi digu Goienako zuzendari komertzial Mireia Larrañagak.


Jarduneko Nerea Mendizabal, kultura etxeko bulegoan. | ARRITXU BARRUSO

### Kultura etxeko sotoan

Bergararrek, aurrerantzean Goienarekin zuzeneko harremana izateko, Jardunek kultura etxeko sotoan duen bulegora gerturatu besterik ez dute. Hau da, hemendik aurrera Jardunen bulegoan jasoko dira Goienarako eskelak, zorion agurrak, ezkontza-zorionak, eta baita sailkatuak ere. Horrez gain, Goienarendako oharren bat izanez gero ere, nahikoa da kultura etxeko sotora joanda.

Jardunen bulegoa zabalik dago astelehenetik egubakoitzera, goiz eta arratsalde.

**FITXA**

**JARDUN EUSKARA ELKARTEA**
Errotalde jauregia
(kultura etxeko sotoa).
**Ordutegia**
**Astelehenetik eguenera**
09:00-13:00 / 15:00-19:00
**Egubakoitzetan**
09:00-13:00 / 15:00-18:00

### Joan beldur barik

Dagoeneko herritarrak hasi dira Jardunen bulegora joaten, batez ere, eskelak uzteko, eta horrelaxe segitzeko dei egin die Larrañagak. "Herritarrak dagoeneko hasi dira Jardunen bulegoa erabiltzen, eta horrelaxe segitzera gonbidatu nahi ditugu. Irizar jauregira etortzen ziren neurrian, joan daitezela orain kultura etxeko sotora".

**BEHEKO DENDATIK**


Mari Carmen Nogueiras, dendan saltzen duen soinekoa erakusten. | A.B.

Mari Carmen Nogueiras | Mirari dendako ugazaba

# "25 urte daramatzat hemen eta oso pozik nago nire bezeroekin"

**A.B.** | BERGARA

Arropa-denda Martokon dagoen arren, kaletik ere etortzen zaizkio bezeroak Mari Carmen Nogueirasi.

**Zer moduz beherapenak?**
Nahiko pattal. Krisia asko sumatu dugu eta ez da beste urte batzuetan beste saldu.

**Denboraldi berriko arropa iritsi zaizu dagoeneko. Zer jantziko da udaberrian eta udan?**
Udaberria koloretsua izaten da beti, eta aurten ere hala izango da. Gorria, laranja eta berdea asko ikusiko dira.

**Kalera gerturatzerik pentsatu duzu inoiz?**
Gaur egun ez daude gauzak asmatzen eta aldatzen hasteko moduan. Dena dela, oso gustura nago nagoen tokian. 25 urte daramatzat hemen eta oso pozik nago nire bezeroekin.

**Nola deskribatuko zenuke zure dendako arroparen estiloa?**
Denetarik daukat. Ezkontza eta horrelakoetarako jantzi dotoreak ditut, baina baita egunero erabiltzeko moduko arropak. Bezeroari estilo guztiak eskaintzea da nire helburua. Adinari dagokionez ere gauza bera gertatzen da, gazteak, nagusiak eta helduak etortzen dira hona.



**Ander Mugurutza** | Pilotaria

# "Final ederra aurreikusten da, oso pilotari onak dira-eta"

Soraluce sarian Ander Mugurutzak hirugarren postuagatik jokatuko du

**XABIER URTZELAI** | BERGARA

Yoldik eta Bixintxo Bilbaok jokatuko dute datorren martitzenean, hilak 20, Lau t'erdiko Soraluce sariko finala. Arratsaldeko lehenengo partiduan (19:30), baina, Bergarako Ander Mugurutza eta Arratibel lehiatuko dira hirugarren postuagatik. Bergarakoa finalaren atarian geratu zen, martitzenean, Yoldiren kontra 22-18 galduta. Baina gustura dago egiten dabilen txapelketarekin.

**Finalerdia galdu, baina partidu txukuna egindа.**

Niretako oso garrantzitsua da hori, zapore onaz geratzea eta kontrarioa estutzea; azken baten, norberak duen jokoa ateratzea. Izan ere, halako partidu bat 22-4 amaitzea penagarria izaten da. Partiduan ni jarri nintzen markagailuan aurretik, baina sakez Yoldik min handia egin zidan; sake izugarria du. Atzetik aurrera egitea lortu nuen eta 18-16 ere egon ginen; sakea errekuperatu zuenean, baina, akabo.

**Beste finalerdian, Bixintxo Bilbaok egin zuen aurrera.**

Partidu horretan ez zen kolorerik izan. Arratibelek aurrekoan partidu ederra egin zuen Jakaren kontra, eta uste nuen indarrak parean egongo zirela, baina Bixintxok goitik behera menderatu zuen. Torneo hasieran Bixintxo ez nuen faborituen artean ikusten, baina erakutsi du pilotari osoa dela, sakea, bolea, kolpea... denetik du. Finalera zeintzuk iritsi diren ikusita, lehia ederra aurreikus dezakegu.



Ander Mugurutza. | X.U.

## "Nire joko maila erakustearekin konformatzen naiz, nahiz eta galdu"

**Zuen kasuan, herrikoak izanda badirudi plaza oparitu egiten dizuetela. Baina kantxan, finalerdietarako bidea zuk egin duzu.**

Gustura ibili naiz. Halakoetan oso-oso garrantzitsua izaten da txapelketak ze gorputzaldirekin harrapatzen zaituen, eta uda partean partidu gutxi jokatu nituenez orain ondo nago, bestela, urtean zehar ordaindu egiten dugu hori. Pilota kolpe onarekin nago, indarraz.

**Txapelketa bereziki prestatu duzu?**

Ez, ez.... 30 urterekin ez gara hasiko halakoak jokatzeko prestakuntza bereziak egiten [Barre]. Egia da Lau t'erdi barruan entrenamendu saio batzuk egin ditugula, baina gehiago izan da fresko nagoela.

**Orain artekoa ikusita, torneoaren ze balorazio egingo zenuke?**

Uste dut torneo oso polita izaten dabilela. Lehia politak ikusi ditugu, eta zeintzuk jokatu duten ikusita, tokatu ahal zen final politenetakoa izango dugula uste dut.

**Maila polita erakutsi dute bi pilotari horiek.**

Guztiok ezagutzen dugu Yoldi. Profesionaletara salto egin ez badu izan da haren jokoa ez delako oso ikusgarria. Baina, afizionatu mailan irabazi daitekeen guztia irabazi du: Elgetan irabazi du, DV txapelketa birritan irabazi du, Espainiako Txapelketa hainbatetan... Eta Bixintxoren gainean ere berdin, ez nuen faboritotzat jotzen, baina sekulako maila erakutsi du.

**Zu, berriz, hirugarren postuagatik lehiatuko zara Arratibelen kontra.**

Ahal duguna egingo dugu, ea daukagun maila erakusten dugun. Yoldiren kontra galdu arren gustura geratu nintzen, eta horrekin konformatuko nintzateke.

# Bergarakoak ondo egon ziren saioan: Patxi Ugalde txapeldunorde Euskadikoan

**X.U.** | BERGARA

Asteburuan egin zuten Pauen (Frantzia), Beti-Bustik antolatuta, Euskadiko piraguismo txapelketa –ur azkarretako eslaloma–, eta, guztira, 150 piraguista izan ziren, Txekiatik etorritako piraguista gonbidatuak barne. Bergarako bost piraguista izan ziren. 23 urtez azpikoetan Antxon Etxabek meritu handiko zortzigarren postua eskuratu zuen. Gaztetan Patxi Ugalde Euskadiko txapeldunorde izan zen –lau ehuneneko aldeaz–. Aritz Gimbert laugarren sailkatu zen eta Beñat Lizarralde zortzigarren. Kadete mailako Jokin Labaien hamargarren izan zen.

Denboraldi hasiera on horrekin, ikusteko dago estatu mailako txapelketetan ze maila erakusten duten. Hurrengo hitzordua asteburuan izango dute, Espainiako Kopan.



Patxi Ugalde Euskadiko txapeldunorde izan da Pauen. | BETI-BUSTI

# Mikel Aristi hasi da afizionatu mailan egin dezakeena erakusten, podiumera igota

**X.U.** | BERGARA

Denboraldi gogorra izango da Lokatzatik Debabarrenara salto egin duten ziklistendako, baina iaz gazte mailan jaun eta jabe izan zen Mikel Aristi hasi da afizionatuen mailan ere nabarmentzen. Domekan egin zuten Lizartzan Lehendakari txapelketako hirugarren proba puntuagarria, eta Bergarako txirrindularia podiumera igotzeko gauza izan zen, lasterketa aparta eginda. Ihesaldietako bat hartu ostean, azken mendatean Herbehereetako Johan Abraham Van Zyl-ek aurrera egin zuen, eta bigarren postuagatik lehian Victor Mauleonekin esprinta egin zuen Aristik.





SAN LORENTZO AUZOA
B E R G A R A



Logela **bateko** etxebizitza
**139.000**€-tik aurrera
23.127.654 pta

**Bi** logelako etxebizitza
**168.000**€-tik aurrera
27.952.848 pta

**Hiru** logelako etxebizitza
**216.000**€-tik aurrera
35.939.376 pta

• 1, 2, 3 eta 4 logela, sukaldea barne.
• Garaje eta trastelekuak

Lehen BEZa %8
Orain Etxebizitza berrian BEZ-a %4

Etxebizitzen bukaera 2012

Eraikitzailea INGESLAN CONSTRUCCIONES
Sustatzailea Grupo Ormak

Argibidea eta Salmenta
943 424 430
www.ormak.es


## Txomin Larrañaga ordezkari azkarrena Errenteria sarian

Domekan egin zuten 29. Errenteria saria. Lasterketak 70 kilometro izan zituen Oiartzungo zirkuituan zehar eta Gaintxurizketako gainen artean. Bada, protagonistak Castillo de Onda taldeko ziklista valentziarrak izan ziren. Guztira, 129 txirrindulari izan ziren, eta Sumofic taldeko azkarrena Txomin Larrañaga izan zen, hemeretzigarren.

## Azken sailkatua hartuko dute eskubaloikoek bihar Labegaraietan

Liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan, sailkapenean azken lekuan dagoen Deustuko Unibertsitateko jokalarien bisita izango dute Soraluce BKE taldekoek asteburuan. Joan den astean Elgoibarren etxean galdu ostean, etxeko puntuek balio handia dute Bergarakoendako, batez ere, Deusturi *oxigenorik* ez emateko, nahiz eta matematikoki jaitsita dagoen talde hori.

## Laburbira izango da eguaztenean Zabalotegin

M.B. | BERGARA

Topaguneak eta Jardun euskara elkarteak elkarlanean egindako Laburbira izango da eguaztenean, hilak 21, Zabalotegi aretoan. Film laburren IX. zirkuitua 20:30ean hasiko da; azken urtean ekoitzitako euskarazko zortzi ikus-entzunezko ikusteko aukera izango da emanaldi horretan.

Hain justu, 2011. eta 2010. urteotan egindako ikus-entzunezkoak dira. Askotariko estilo eta izaeratako piezek osatzen dute: fikziozko lau lan, animaziozko bi, dokumental bat eta bideoklip bat. Aurrekoetan bezala, oraingoan ere ibilbide luzeko egileak eta egile berrien lanak ezagutarazteko ahalegina egin dute antolatzaileek.

**60ko hamarkadako lana**

Ikus-entzuleek Maialen Sarasuaren *Hemen Nago*, Joseba Uberuagaren *Izena duena*, Jon Garañoren *Urrezko eraztuna*, David Zabala eta Paul Urkijoren *Ohe azpiko zera*, Gregorio Muroren *Zeinek gehiago iraun*, Xoxe Diazen *Instalacion* eta Revolta Permanent musika taldearen *Kantuka* abestiaren bideoklipa ikusteko aukera izango dute. Horretaz gainera, 60ko hamarkadan Franco garaian Gotzon Elortza zinemazaleak 16 mm-ko kamerarekin grabatutako *Aberria* dokumentala ere egongo da ikusgai.

## Euskal Ikasleen Gazte Orkestrarekin joko du Andoni Moñuxek

Bergarako musika eskolako ikasle Andoni Moñux Ugaldek datozen egunotan izango ditu Euskal Ikasleen Gazte Orkestrarekin kontzertuak: bihar, zapatua, Irungo Amaia antzokian izango da, 20:00etan; eta etzi, Bilboko Campos Eliseos antzokian, 12:30ean. Iaz ere orkestra berarekin ibili zen.



Angiozarren trikitia eta panderoa jotzen ikasten hasi diren neska-mutikoak. | ARKAITZ ALLUR

# Ume eta gurasoek, denak batuta, Angiozar girotuko dute gaur

### Auzoko trikitilari eta pandero joleek udaberriko kontzertua eskainiko dute

MIRIAN BITERI | BERGARA

Ezohiko kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, iluntzean Angiozarren: hain justu ere, umeek eta gurasoek batera eskainiko duten trikiti eta pandero emanaldia. Herri mailan antolatutako udaberriko kontzertu hori 20:00etan hasiko da Angiozarko saloian, eta, hori amaitzean, triki-poteoa eta afaria egingo dute. Azken horretan izena eman daiteke oraindik 629 55 58 08 telefono zenbakira deituta.

Ordubete inguru iraungo duen kontzertuan, pieza klasikoak gaur egun edonon entzuten direnekin nahastuko dituzte. Musikariek honakook joko dituzte, besteak beste: *Ai Seu te pego* (euskarazko bertsioan), *Behin batean Loiolan, Nere maite polita, Quisiera ser alcalde, Uxo zuria, Medieval sounds, Popurria, Beti eskamak kentzen, Neskazaharrak, Bikoitza, Gaueko izarra, Bi zati, Gaztelugatxe, Azken dantza, Euskotar ereserkiak, Nafarroa gaindi* eta *Udako egunak*.

**Gurasoen parte-hartzea**

Angiozarren trikiti eta pandero eskolak ematen dituen Harkaitz Allurrek azaldu du ikasturte hasieran 20 laguneko taldea sortu zutela, eta gaurko emanaldian orain arte ikasitakoa erakusteko aukera izango dutela ikasleek; 5 urteko pandero joleetatik hasi eta 13 urtera arteko nerabeak ditu Alurrek talde horretan. Ikasleak, dena dela, ez dira bakarrik egongo. Horren harira, honakoa azaldu du: "Gurasoen eta auzotarren parte-hartzea bultzatu nahi izan dugu. Horrelako ekimenetan gurasoak beti ibiltzen dira umeei argazkiak ateratzen; hori apurtu nahi izan dugu, haien parte-hartzea lortuz. Denak saltsan sartuta egotea eta, bide batez, auzo mailako ekimena antolatzea izan dira helburu nagusiak".

Allurren esanetan, umeak gustura doaz eskoletara, eta jotzen dituzten musika tresnekin gozatu egiten dute. Horren harira, saio dinamikoak egitearen aldekoa da irakaslea; ez bakarrik eskoletan, baita kontzertuetan ere.

# Metal eta hardcore gaua 3797 eta Nessun Dormarekin

### Bestalde, Laino skate parkean rock doinuak izango dira nagusi Bikustik bikotearen eskutik, gaur

M.B. | BERGARA

Hiru kontzertu daude gaur gauean Bergaran. Gaztetxeko agertokira 3797 eta Nessun Dorma taldeak igoko dira, 22:30ean. Azken hori Lekeitioko metal taldea da; hardcore, metal eta thrash estiloak uztartzen ditu. Orain dela hiru urte osatu zen taldea, Castrok (Mitosia) eta Munik (Lapsus) egindako kantuen gainean lanean hasita; jarraian, Iraun (Lapsus, Nabil) eta Joseba sartu ziren. 3797, ostera, metala eta hardcorea nahasten dituen talde berria da, eta kideak aurrez Materia eta Spezial guest taldeetan ibilitakoak dira. Gaurko emanaldian *El principio del fin* aurkeztuko dute. Kontzertu horietarako sarrerak hiru eurotan salduko dituzte.

**Bikustik 22:30ean**

Bestetik, Laino skate parkean Bikustik taldeak joko du. Rockaren klasikoak eta gaur egungo beste hainbat kantu modu akustikoan moldatuko dituzte Jon Gurrutxagak (Jon & Sugramas, Arima Beltza, Uek) eta Patxi Zabaletak (Andrakan, Arima Beltza, Sinuose) 22:30ean hasiko den emanaldian. Elgoibartarrak ikusteko sarrera debalde da.



Nessun Dorma taldekoak, urtarrilean emandako kontzertuan | IGOR ZALBIDEA

NATUR HOUSE
Nutrizioan eta dietetikan adituak
*Lor ezazu zure pisu ideala gure plan pertsonalizatuekin.*
*Kilo bat gutxiago, irribarre bat gehiago delako.*
***Kontsulta doan!***
Simon Arrieta Plaza 3 – BERGARA – Tel.: 943 764856

Nerea Rodriguez dietista eta Gemma Oianguren

# Errekalde auzoko azken zatian aparkaleku gehiago egingo dituzte

Beherako noranzkoan egokituko dituzte, eskuinaldeko espaloian

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Errekalde auzoko 1. zenbakitik Bakardadeko Ama kaleko bidegurutzeraino (Mendiko kalearen paraleloa den kalea) doan tartearen eraberritzea esleituko du Udalak laster. Lanak egin behar dituen enpresak lau hilabeteko tartea izango du azken zatia berritzeko. Udalak finkatu dituen epeen arabera, irailaren 1erako lanek bukatuta egongo beharko dute.




Errekaldeko aparkaleku berriak eskuinaldeko espaloian egingo dituzte. | M.B.

### Oztopo arkitektoniko barik

Azken bi urteetan Errekalde auzoaren zati handienak hartu duen itxura emango diote azken tarteari; hain justu, Errekalde auzoko 1. zenbakitik (Moiua kaleko bidegurutzetik) Bakarkade Ama kaleko bidegurutzeraino (Maibi dendaraino). Espaloia eta errepidea maila berean ipiniko dituzte. Gainera, oztopo arkitektonikoak (espaloiak, eskailerak...) kendu eta irisgarritasuna hobetuko dute.

Baina, zalantza barik, tarte horretan egingo duten obrarik aipagarrienetarikoa aparkaleku kopurua handitzea izango da. Espaloia eta errepidea maila berean jarrita, 15-18 aparkaleku gehiago egingo dituzte, Errekaldetik beherako noranzkoan, eskuineko aldean. "Metro bateko espaloia egingo dute, eta ondoren aparkalekuak margotuko dituzte. Hori horrela, errepidearen bi aldeetan utzi ahal izango dira autoak", esan digu Hirigintza eta Zerbitzuak batzordeko buru Josu Lizarraldek.

Bestalde, Errekaldeko bidegorriak jarraipena izangodu tarte horretan. Kale partekatua izango da: bidegorria errepide erdian margotuko dute eta lehentasuna izango dute bizikletek.

**DATUAK**

**15-18**

APARKALEKU

Horiek dira Errekaldeko azken zatian egingo dituzten aparkaleku berriak: beherako noranzkoan, eskuinaldean.

**4**

HILABETE

Denbora hori izango dute Errekaldeko lanen azken zatia egiteko. Epeak betetzen badira, irailaren 1erako bukatuko dituzte.

### Laguntza Merkataritza Sailetik

Udalak dirulaguntza jaso du Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailetik lanak egiteko. "Hiri-merkataritza gune izaera duten kaleetan eraberritze eta irisgarritasun lanak egiteko partida bat dauka Eusko Jaurlaritzak, eta hortik jaso dugu laguntza Errekaldeko azken zatia egin eta auzoaren bueltarekin bukatzeko", esan digu Lizarraldek.

Partida beretik jaso zuen laguntza Udalak Atzeko kaleko lanak egiteko: oinezkoendako gunea egokitu zuten –Kale Barrian egindako moduan–, eta piboteak jarri zituzten kalearen hasieran, eta Ramon Irizar kalearen bidegurutzean.

# Emakumeendako sei orduko autodefentsa tailerra egingo dute

**M.B.** | OÑATI

Oñatiko Talde Feministak antolatuta, eta *Berdintasuna Herrijorran* egitarauaren barruan, autodefentsa tailerra egingo dute bihar, zapatua, Zubikoa kiroldegian. Sei orduko saioa egingo dute, goizez eta arratsaldez. Izena eman daiteke kultura etxean edo *txantxikufeministak@gmail.com* helbidean.

Tailerra teorikoa eta praktikoa izango da. "Autodefentsa feminista defentsa pertsonalerako teknika multzo bat baino askoz gehiago da. Emakumeok jasaten ditugun indarkeria mota ezberdinak identifikatu eta modu kolektiboan hauei aurre egiteko bitartekoak sortzean datza. Hori lortzeko, autodefentsa feminista Oñatiko emakumeon arteko elkartasuna sendotzeko ezinbesteko baliabide dela ikusten dugu", esan dute.

### Ipuin kontaketa

Bestalde, *Berdintasuna Herrijorran* egitasmoaren barruan, ipuin kontaketa saio bi antolatu dituzte: hilaren 21ean egingo dituzte, 17:00etan, 7-8 urte artekoendako, eta 19:30ean, helduendako. Biak ala biak, liburutegian.

Maite Franco (Irun, 1971) izango da ipuin kontalaria. Umeendako saioan emakume eta gizonen arteko berdintasunaz jardungo du; eta helduenean, *Zergatik ote?* izenburuarekin, munduaren eta gizakiaren sorreraz hamaika istorio kontatuko ditu.

**NIRE USTEZ**

**JABIER ALTUBE**



# Atez atekoa

Benetan poztu egiten nau zabor-bilketarako dauden aukera desberdinek sorturiko eztabaidak. Herria bizirik ez ezik bere etorkizunaz arduratuta dagoela ere agerian uzten baitu. Hala ere, harritu egiten naiz, udalean gehiengoa zuten garaian herri kontsulta egiteari sistematikoki uko egin izan dioten alderdiek, egun ere, gehiengoa duten udaletan kontsultaren aurka agertzen direnek, atez atekoaren aldeko erabakia inposaketa dela esaten dutenean.

Atez atekoaren erabakia legezkoa eta erabat demokratikoa da, Bilduren hauteskunde-programan garbi asko agertzen zelako, eta legezkoa denez, horrelaxe erabaki dute demokratikoki hautatuak izan diren udalek. Gaineratuko dut, neure iritziz, aurreko sistemarekin alderatuta, onurak ikaragarriak dituela oraingo honek.

Hau garbi utzirik, esan beharrean nago auzi honetan herri kontsultaren aldekoa naizela, hala eskatzen duelako herriaren zati batek, eta herri kontsulta betidanik izan delako Ezker Abertzalearen izaera politikoaren baitakoa.

Auzi honetan herri kontsultari uko egiten badiogu, zein argudio izan ditzakegu gerora beste egoera batzuetan herri kontsulta eskatzeko ?

Kontsulta egitea espero dut, gauza jakina baita, bizitzako beste hainbat arlotan legez politikan ere, hutsegiteak larrutik ordaintzen direla.




IGOR ARRESE

## Jose Antonio Perez, txapeldun

Jose Antonio Perezek irabazi zuen hilaren 3an Zanbranan jokatutako herriko ehiza txapelketa, bost eper eta faisai bat harrapatuta. Iñaki Urteaga, Francisco Rodriguez eta Jon Altzelai igo ziren podiumera.



INAZIO IRIZAR

## Duru eta Aloña artean 50 haritz landatu zituzten

Aloñako Lagunak taldekoek, Natur Eskolako Imanol Biainen eta Jon Betanzosen eta Imanol Artola eta Jon Ugarte basozainen laguntzarekin, 50 haritz landatu zituzten hilaren 11n, Duru eta Aloña arteko bidean, beheko aldeko pistaren bazterrean. 41 herritarrek parte hartu zuten landatzean. Eguna borobiltzeko, hamaiketako ederra egin zuten Duruko txabola batean.



Ganbara Abesbatzako kideak, uniforme berriarekin | AITOR BIAIN

# Ganbara Abesbatza 'A cappella' lehiaketan, folklore eta polifonia modalitateetan

## Berriobeitin (Nafarroa) abestuko dute oñatiarrek gaurtik domekara arte

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Ganbara Abesbatzak *A cappella* lehiaketan parte hartuko du aste bukaeran. Gaurtik domekara arte, Berriobeitin (Nafarroa) jokatuko den lehiaketan abestuko du beste hiru abesbatzarekin batera: Madrilgo Coro Lux Aeterna eta Vokalars eta Valentziako Grupo Coral Concordia. "Lan handia egin dugu azken asteetan, eta ilusio handiarekin goaz lehiaketara. Maila handiko abesbatzak dira gainerakoak, baina, gure maila ematen badugu, itxura ona emango dugu", esan digu taldeko zuzendari Aitor Biainek.

Ganbara Abesbatzak lehiaketak dituen bi modalitateetan abestuko du: polifonian eta folklorean. Polifoniako saioan lau pieza eskainiko dituzte: Victoriaren *Lauda Sion*; Rheinbergerren *Kyrie*; Miskinisen *Gloria*; eta Whitacreren *Sleep*. Folklore modalitatean, aldiz, bost kantu eskainiko dituzte: Josu Elberdinen *Izar ederra* eta *Segalariak*; Javier Bustoren *Sagastipean*; Haywood-en *Didn't may lord Daniel*; eta Aita Donostiaren *Iru txito*.

> **ESANAK**
>
> **"Lan handia egin dugu azken asteetan, eta, maila oneko abesbatzekin lehiatu arren, gogotsu gaude"**
>
> AITOR BIAIN | ZUZENDARIA

### Epaimahaiko kideak

Nafarroako Abesbatzen Federazioak antolatzen duen txapelketako epaimahaiko kideak Igor Ixurra, Josu Elberdin eta Javier Busto izango dira. Azken bien kantuak abestuko ditu Ganbara Abesbatzak *A cappella* lehiaketan. Gainera, Josu Elberdinek Ganbara Txiki eta Txikitxo abesbatzendako hainbat proiektu idatzi eta musikatu ditu.

# Musika eskolakoek egingo dituzte trikiti saioak Araotzen

**M.B.** | OÑATI

Badira urte batzuk Lizargarate Oñatiko trikitizale taldekoek eta Jose de Azpiazu musika eskolako ikasle gazte batzuek hil bakoitzeko lehen domekan Lizargarateko elkartean trikiti saioak egiten dituztela. Saio horietan, elkartean dauden pertsonek ordu eta erdian trikiti doinuekin gozatzeko aukera izaten dute.

Bada, azken hilabete honetan, Lizargarate Oñatiko trikitizale taldekoek pentsatu zuten Lizargarate elkarteko esperientzia hori Oñatiko beste auzoren batera zabaltzea aberasgarria izango zela; adibidez Araotzera.

Araozko hainbat auzotarren oniritzia jaso zuten, baina ikusita Lizargarate Oñatiko trikitizale taldekoei "zaila" egiten zitzaiela horrelako bigarren zerbitzu bat berme guztiarekin ematea –elkartean dozena bat pasa lagun daude–, Jose de Azpiazu musika eskolakoekin harremanetan jarri ziren.

### Musika eskolakoen ardura

Elkarren artean berba egin ondoren, hilaren 18tik aurrera, abuztuan izan ezik, hil bakoitzeko hirugarren domekan Jose de Azpiazu musika eskolako kideek hartuko dute araoztarren auzoko elkartean trikiti saioak egiteko ardura.

## Arku-tiroketako euskal ligako jardunaldia Zozopasen

Txantxiku Arkulariak taldeak antolatuta, basoko arku-tiroketako euskal ligako hirugarren jardunaldia jokatuko dute etzi Arantzazuko Zozopase gunean. Gipuzkoako eta inguruko lurraldeetako 70 bat parte-hartzaile espero dituzte. Txapelketa 09:30ean hasiko dute.

## Sukaldaritza makrobiotikoaren gaineko ikastaroa

Sukaldaritza makrobiotikoan lehen urratsa egin gura dutenendako ikastaroa egingo dute hilaren 22an Araotzen, 17:00etatik 21:00etara arte. Oinarrizko ikastaroa izango da. Interesatuek bi telefono hauetakoren batera deitu beharko dute izena emateko: 943 78 30 60 edo 658 71 90 89.

# Herriko gutxituekin lan egiteko boluntarioak behar ditu Atzegi elkarteak

**M.B.** | OÑATI

Herriko gutxituen taldeak Bidebarrietan duen lokalaren ardura Atzegi elkarteak hartuko du aurrerantzean. "Udaletik deitu ziguten esateko lokala hutsik zegoela, eta galdetu ziguten ea herriko 15 gutxiturekin lan egin gura genuen", esan digu Atzegiko kide Oihanek.

Orain, boluntarioak behar dituzte. Deialdia egin dute herritarren artean: 16 urtetik gorako edonor izan daiteke boluntario. Interesatuek bi bide dituzte informazioa eskatzeko edo izena emateko: 943 42 39 42 telefonoan Fran edo Oihanengatik galdetuta edo 688 88 40 36 telefonoan Aitorrengatik galdetuta.

# Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior taldearen ikuskizuna

**M.B.** | OÑATI

Antxintxiketan kirol taldeak Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior taldearen emanaldi bikoitza antolatu du biharko. Zubikoa kiroldegian egingo dituzte, 16:00etan eta 18:00etan. Sarrerak salgai daude: Oñatiko Mizke eta Kiku gozoki-dendetan; Arrasateko Luan; Bergarako kultura etxean; eta Aretxabaletako ludotekan eta Arkupen. Sei eurotan. Gainera, ikusleek opari bat jasoko dute ikuskizuna hasi aurretik.

Emanaldiotako sarrerekin jasotako dirua Corpus bezperako lasterketarako izango da.

# Natra Oñatiren partidura joateko autobusa

**M.B.** | OÑATI

EBA mailan jarraitzeko asmotan, partidu erabakigarria jokatuko du etzi, domeka, Natra Oñati saskibaloi taldeak: EHU Arabaren kontra neurtuko ditu indarrak, Mendizorrotzan, 18:00etan.

Bada, lehia ikusteko autobusa antolatu dute saskibaloi sailekoek: 16:30ean irtengo da postetxe aurreko geltokitik. Antolatzaileek eskatu dute kamiseta gorriak jantzi, eta zarata egiteko gailuak eroatea: turutak eta bonboak, besteak beste.

GOIAZ! Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka 2012 Apirilak 19-20

LASTER LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!

*Formazio eskaintza*
*Enplegu zerbitzuak*
*Ekintzaileentzako zerbitzuak*
*Tailer eta hitzaldiak*
*Esperimentuak eta lehiaketak…*

- **NORENTZAT?** Ikasle, langile eta langabetuentzat. Formazio edota lan bila dabilenarentzat.
- **Zein gairen gaineko hitzaldi edo tailerrak egongo dira?** Atzerrian lan egiteko aukerak, Lanbide ziurtagiriak, Lanbide Heziketako esperientziak, Ekintzaile gazteen esperientziak, eta lana bilatzeko elkarrizketak nola prestatu, besteak beste.
- **APIRILAK 19 eta 20an, Kulturaten, Arrasaten**

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

**LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ**

# *“Lanbide Heziketa unibertsitatea baino askoz praktikoagoa da; denbora laburrean askoz gehiago ikasten da”*



**Gorka Cid Luaces eibartarrak, unibertsitate ikasketak hasi zituen baina bukatu baino lehen Lanbide Heziketa egitea erabaki zuen. Orain Arizmendi Ikastolan dihardu, Eraikuntza Proiektuak goi-mailako zikloko bigarren mailan.**

**Zergatik hasi zinen Lanbide Heziketa ikasten?**

Burgosen Arkitektura ikasten egon nintzen bi urtez, eta zerbait laburragoa egitea erabaki nuen.

**Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?**

Lagun asko dauzkat Lanbide Heziketa ikasten eta niretzat ezaguna zen. Eraikuntza arloa gustuko nuen, eta argi neukan eraikuntzarekin zerikusia zuen ikasketa egingo nuela. Interneten informazioa topatu, eta oso gustura nago.

**Zer eman dizu Lanbide Heziketak?**

Lanbide Heziketan bi urtetan ikasten duzuna ikasteko denbora gehiago behar duzu unibertsitatean. Unibertsitatean ikusten nuen ikasgai asko espedientea betetzeko zeudela, eta gero lanerako edo bizitzarako ez zutela balio. Lanbide Heziketa askoz praktikoagoa da, denbora laburrean gehiago ikasten da.

**Zer egin zaizu gogorrena, eta errazena?**

Unibertsitatean ikasitakoarekin oinarri handia nuen, adibidez, fisika arloan. Bestalde, ahalegin handiagoa egin behar izan dut marrazketa programak erabiltzen ikasteko. Hori berria izan da niretzat. Lanbide Heziketan teoria ematen da, baina era praktikoago batean: enpresetara bisitak egin, enpresa arlokoen esperientziak ezagutu, obratan egon diren akatsak ezagutu.. Gainera, martxotik ekainera praktikak egingo ditut Bergarako enpresa baten.

**Eta, etorkizunean zer?**

Aukera bat da unibertsitatera bueltatzea, baina momentuz ez daukat asmorik. Dena den, gustura jarraituko nuke eraikuntzaren arloan ikasten.

# 180 tona organiko batu da urtebetean atez ateko bilketarekin

- Ontzi arinen birziklapen mailak %90ean egin du gora Antzuolan urte betean
- Hondakin bilketa gastua igo egin den arren, 9.703 euro gutxiago kostatu da hondakinen kudeaketa

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Iaz martxoaren 7an jarri zen abian atez ateko sistema. Hala, herritarrekin eta arduradun politikoekin hitz egin dugu urteko balorazioa jasotzeko asmoz.

Atez ateko jarraipen batzordeak urteko datuak argitaratu eta baloratu ditu. "Lehen urtean oso emaitza onak batu dira; tendentzia goranzkoa da. Egun batetik bestera %35 birziklatzetik %80ra pasatu gara. 180 tona organiko batu dira", azaldu digu Jose Mari Iturbek, batzordeko arduradunak. Gastuei dagokienez, azaldu du 2010ean baino 9.703 euro gutxiago kostatu dela hondakinen kudeaketa 2011n: "Bilketa gastua igo egin da, baina, birziklatutakoaz –%80–, errefusen tratamenduan aurreztu egin dugu–42.000 euro–"; "Hondakinen jaitsiera %15-20 bitartean kokatu da; kontuan hartu behar dugu ez dugula autokonpostaren igoera sartu, 115 familia gehitu dira-eta". Organikoari dagokionez, eguneko eta biztanleko 230 gramo batzen dela azaldu dute: "Bosgarren edukiontziaz, biztanleko eta eguneko 31 gramo batzen dira, zazpi bider gutxiago". Errefusari dagokionez, 2010arekin alderatuta, lau bider gutxiago batu dela diote –44 kilo biztanleko–. "Azaroan, lantegiak hasi direnean, ordea, hazi eginda errefusa; enpresekin aztertu beharko da, murrizteko". Ontzi arinei, dagokienez, %90 birziklatzea lortu da. Beirak eta paperak ere igoera izan dute. Helburua hondakinak jaistea eta, nagusiki, errefusa txikitzea dela azpimarratu digu Iturbek.

Urtebeteko atez atekoaren esperientzia izanda, herrian ere galdetu dugu. Positibotzat hartu dutenen artean, herritar batzuek aitortu digute hasieran beldurra ere bazutela. "Etxean beti birziklatu dugu, baina berriro ikasi behar izan dugu, ondo birziklatzeko; erraz moldatu gara eta oso gustura gaude; datuek dena esaten dute, sistema eraginkorra da", kontatu digute Edurne Olartuak eta Gotzon Gabilondok. "Herriarentzat positiboa da, beste herriei ere gomendatzen diegu", diote.

Bestaldeko iritziak ere jaso ditugu; hala, emakumezko bat haserre azaldu zaigu ordutegi eta egutegiarekin ados ez dagoelako. Adineko jende askorendako ez dela "erosoa" kontatu digu Antzuolan bizi den Monse Ugarte bergararrak.



Bi emakume atez ateko egituraren aurrean, berbetan. | MAIDER ARREGI

**'Zabor-turismoa'**

*Zabor turismoa*-ren gainean ere galdetu gura izan dugu, kalean entzuten den gaia da-eta. Denetariko iritziak eta esperientziak jaso ditugu. "Herrian entzuten da tarteka hondakinak Bergarara edo Zumarragara eraman dituztela, ikusi beharko litzateke ea egia den; kalean jendea gustura dagoela sumatzen da", dio lagun-koadrila batek.

Kamera atzean, inoiz zaborra Bergarara eraman izana ere aitortu digute: "Arazoa da guretzako ordutegi eta egutegi aldetik. Larrialdietarako jarrita dagoen zerbitzuak ere ez du ondo funtzionatzen. Aste bukaeran arazo bilakatzen da. Bazkari bat izan ostean hondakin asko batzen da, eta nora bota behar dugu? Larrialdietarako edukiontziak zabaltzeko giltza eskatu behar da udaletxean, eta zapatu arratsaldean itxita egoten da", azaldu digute.

"Norbaitek egingo du akaso; baina kalera irteten bazara gauean, zintzilikario guztiak beteta daudela ikusiko duzu, jendeak ondo birziklatzen du eta oso gutxik eramango du zaborra Bergarara edo Zumarragara", azaldu digu Jon Legorburu antzuolarrak.

Bergarako Urteaga kalera ere jo dugu; izan ere, aurrez, erredakzioan auzotar baten kexa jaso dugu. "Autoak edukiontzi aurrean gelditu eta maletategitik zabor poltsak ateratzen ikusi ditut", azaldu digu izen-abizenik eman gura izan ez digun bergarar batek. Bestalde, auzo bereko beste emakumezko batek ez duela horrelakorik ikusi ere esan digu: "Agian, antzuolarren batek egingo zuen, baina nik ez dut horrelako jarrerarik ikusi auzoan".

Horren gainean galdetuta, Inma Beristain Antzuolako alkateak Mankomunitatean ez dutela horren daturik esan digu. Gainera, urtebetean zaborra %2 jaitsi dela diote Mankonkumitatetik.

### HONDAKINAK – Kiloak biztanle bakoitzeko




**Ezker Abertzalea: balorazioa**

Antzuolako ezker abertzaleak ere urteko balorazio egin du: "Hondakinen gaia soluzio bidean jarri dugu. Antzuolan hondakinak bereizten ditugu zabor bihur ez daitezen. Egunero, antzuolarrok etorkizun hobea marrazten saiatzen gara; munduari egiten diogun aportazio xumea, baina garrantzitsua. Aurrera begira ere badugu non hobetu hiri hondakinen kudeaketan, zero zabor politika gure helburu izanik. Antzuolan %90 birziklatzen ez dugula esaten duenik ere bada. EAJri eta PSE-EEri errespetua eskatu nahi genieke antzuolarren eguneroko lanaren aurrean. Ongietorriak %80 birziklatzeko sistema bakarra martxan jartzeko borondatea adierazi duten debagoiendarrei eta soluzioaren parte izan nahi duten guztiei".

## Gustura zaude atez ateko sistemarekin? Zein da balorazioa?



**JESUS ETXEBERRIA**
ANTZUOLA

"Aldaketak kosta egiten dira beti. Lehen zaborra errekara botatzen zen, eta hori ere bizi genuen, baina aldaketak onerako dira eta positiboa da; bide onean goaz".



**JON LEGORBURU**
ANTZUOLA

"Lehengo aldean, orain gehiago birziklatzen dugu. Ume txikiarekin organiko asko sortzen dugu, baina erraz eramaten da; fardelak egunero jaisteko aukera dago".



**MONSE UGARTE**
ANTZUOLA-BERGARA

"Arazoak sortzen dituen sistema da, ez da erosoa. Adineko jendearendako eta igogailua ez dutenendako, bereziki. Orduak ere ez zaizkit ondo iruditzen".



**EDURNE OLARTUA ETA GOTZON GABILONDO**
ANTZUOLA

"Hasieran zalantza izan genuen, uste genuelako zailagoa izango zela. Baina oso ondo moldatu gara; garbiagoa ikusten dugu dena. Gustura gaude sistemarekin".

## OPOSIZIOAREN BALORAZIOA

**Maria Eugenia Arrizabalaga | EAJ**

### "Ez da erraustegiaren ordezko sistema"

"Batzuk itsu-itsu dabiltza atez atekoa dogma politiko bihurtuta, eta erraustegiaren aurka amorratuta. Europako herri aurreratuek zaborraren heren bat baino gehiago errausten dute: Suediak %49, Belgikak %35, Alemaniak eta Frantziak %34. Osasuna eta ingurumena zaintzeko, dioxinarik ez dute botatzen errauskailu berriek. Gainera, zaborra erraustuz argi-indarra sortzen da. Gipuzkoako errauskailuak 30MW sortuko luke: urtean 60.000 etxetarako argi-indarra. Gehien birziklatzen eta konpostatzen dutenak: Austria %70, Alemania %66, Belgika %60. Diputazioaren eta Batzar Nagusien planei esker zaborraren %44 birziklatu eta konpostatzen dugu. Helburua da %60ra iristea 5.edukiontzia zabalduz. Erraustegien ordezkoa ez da atez atekoa, zabortegia baizik. Espainiak oso gutxi errausten du, %9, eta asko botatzen du zabortegira, %52. Espainiakoa ala Alemaniako eredua nahi dugu?".

**Carlos Urrestarazu | PSE-EE**

### "Gurutze-bidea da antzuolarrendako"

"PSE-EEk salatu gura du atez ateko sistema antzuolar askorendako gurutze- bidea izaten ari dela. Edukiontzi sistema baino garestiagoa, deserosoagoa eta zikinagoa da; gainera, herritarra egunero hondakin mota bat jaistera behartzen da. Atez atekoaren ezarpenak atzerapausoa dakar garbitasunari, osasunari eta kaleetako itxurari dagokienez.
Bilduk, 34 herritan atez atekoaren ezarpena bultzatzeaz gain, agintzen duen Gipuzkoako instituzioetan, aurreko legealdian hondakinen kudeaketaren gainean hartutako erabakia ere geldiarazi egin du. Ondorioz, materia organikoa beste lurralde batzuetara esportatu behar du Gipuzkoak, eta kostu handia dakarkio. Hala, Igorreko zabortegira, hilero, 22 tona eramaten dituzte 100 kamioitan. Atez atekoa zaborra batzeko sistema bat da eta beti geratuko da zabortegira eraman beharreko eta erraustu beharrekoa".

## Martxoaren 8ko kartelak ikusgai Olaranen

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Panel didaktiko birekin osatutako erakusketa dago ikusgai Olaranen: batetik, Martxoaren 8ari buruzko historia azaltzen duena; eta bestetik, mugimendu feministaren bilakaera azaltzen duena. Zapatuan eta domekan 18:30etik 20:30era izango duzue joateko aukera.

Bestalde, Martxoaren 8aren harira egindako ekintzen parte-hartzea dela-eta, balorazio positiboa egin du Bideberri mankomunitateak. "Udalak konpromiso sendoa dauka; baina herritarren eta eragileen inplikazioa ezinbestekoa da", azpimarratu digute.



Murala egin zuten. | JULIO CALLEJA

## Grimm anaien ipuin saio birtuala Torresoroan

M.A | ANTZUOLA

Ahozko kontaketaren nazioarteko eguna ospatuko dute hilaren 20an, martitzenean. Horren harira, Oihulari Klownek ikuskizuna egingo du Torresoroan, 19:30ean. Familia osoarendako euskarazko ipuinak entzuteko eta bizi izateko aukera izango da, lehenik, zenbait ipuin kontalariren eskutik. Ondoren, helduendako gaztelaniazko ipuinak eskainiko ditu Virginia Imazek.

Aurten, gainera, Grimm anaiek *Cuentos para la infancia y el hogar* liburua argitaratu zutela 200 urte bete dira. Hala, Grimm anaien ipuinak hizkuntza ezberdinetan kontatuko dituzte. Saio birtuala izango da; izan ere, ipuin horiek grabatu egingo dira eta ondoren, nazioarteko webgunean jarriko dituzte beste herrialde batzuetako grabazioekin. Norberak nahi duen hizkuntzan eta hizkuntza horren kultura ezagutarriekin kontatzeko aukera izango du jendaurrean. Ateak zabalik dituzte ekimen honetan parte hartu gura dutenek.

**Erik Badillo** | Eskua Proiektuko arduraduna

# "Emaitza onak lortzea da helburua, bai kirol arloan, bai emozionalean"

- Eskua Proiektua dabil garatzen UDAko jokalari, entrenatzaile eta gurasoekin
- Alderdi emozionalak bat egingo du fisiko, tekniko eta taktikoarekin

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxabaleta Kirol Elkarteak Eskua Proiektua jarri du abian eta futbol jokalari, entrenatzaile eta gurasoekin dabil lantzen. Erik Badillo aretxabaletarrak du proiektu horren ardura, Igor Arenatza UDAko koordinatzailea lagun.

**Zer da Eskua Proiektua?**

Igorrek eta biok pentsatu genuen gizartea aldatzeko tresna ona zela futbola, eta hortik sortu zen gure proiektua; umeak haztea eta heztea da asmoa, baina futbola erabilita. Hain zuzen, hortik dator Eskua izena: Errespetua Sustatzeko Kirola Ulertuz Aretxabaletan. Eskua hartu dugu sinbolo gauza asko egin daitezkeelako: eman, besarkatu, txalotu... Orain dela urte bi inguru hasi ginen lanean, baina aurten sartu gara bete-betean.

**Zeintzuk dira helburuak?**

Gerora gizartean aginduko duten ume eta gazteek balio batzuk izan ditzatela gura dugu. Balio horiek, baina, nahastuta daudela uste dugu, bai kirolean, bai gizartean, eta indartzea da asmoa. Alderdi fisikoa, teknikoa eta taktikoa beti landu izan ditugu, eta orain, Eskua proiektuarekin, emozionala ere sartu gura dugu; horrela, laurek bat eginda etekin handiagoa aterata. Hortaz, emaitza da gazteen hobekuntza eta tresnak dira gurasoak, entrenatzaileak eta UDA.

**Goi mailako futbolean, askotan, balio horiek ez dira antzematen...**

Bai. Badakigu zeintzuk diren balioak, baina nork bere erara ulertzen ditu, eta Aretxabaletako umeek horiek argi izatea gura dugu. Ildo horretatik eskola bat sortu gura dugu, eta adin bakoitzaren beharrei erantzun.

**Eta zelan lantzeko asmoa duzue?**

Aztertzen eta gertatzen gabiltza, datorren urteari begira, adin tarte bakoitzarekin zer landu eta noraino jakiteko; izan ere, adimen emozionala era ezberdinean landu beharra dago umeekin eta gazteekin. Orain arte ez dago ezer eginda, eta hasten gabiltza. Emozioei eskainitako orduak entrenamendu orduen barruan sartu gura ditugu, gainera.

**Baina Eskua Proiektua orain ere bazabiltzate lantzen...**

Bai, bai. Futbol eskolako umeekin, batez ere, errespetua gabiltza lantzen, balio garrantzitsuenetakoa delako. Horrekin batera, euskara eta ingurumena ere garrantzitsuak dira guretzat. Haur edo infantiletatik gora euskara eta ingurumena landuko ditugu, baita drogak ere. Betiere, ahaztu barik alderdi fisikoa, taktikoa eta teknikoa.

**Ez dakit jendeak ondo ulertuko duen proiektua, futbolean irabaztea da-eta garrantzitsuena.**

Argi utzi gura dugu gure proiektua ez dagoela irabaztearen kontra; geu ere irabazle amorratuak gara, baina ez edozein preziotan. Orain dela urte batzuk, partidu bat galduz gero haserre joaten nintzen beti Ibarratik; orain, ostera, beste hausnarketa bat egiten dut: galdu egin dut, baina haserretuta ez dut ezer lortuko; konponbidea topatu behar dut, eta horretarako tresnak jarri.



Erik Badillo arduraduna Ibarra futbol zelaian. | M.A.

> "Futbol eskolako gaztetxoekin, batez ere, errespetua gabiltza lantzen"

> "Emaitza batzuk ikusten gabiltza: txartel gutxiago, jarrera ezberdina..."

**Zelako erantzuna jaso duzue ume eta gazteen aldetik?**

Oso gustura gaude. Txikienak hasieran harritu egin izan dira, egoera berria delako futbol zelaitik kanpo lantzea futbol kontuak, baina oso ondo erantzun dute.

Gazteek hainbat hitzaldi izan dituzte (drogak, elikadura...) eta jarrera ona erakutsi dute. Hala ere, jarraipena behar dute horiek, bestela, ahaztu egiten zaie-eta.

**Gurasoak ere sartu gura dituzue proiektu horretan, ezta?**

Bai, gurasoa delako umearengan zeresan handiena duena. Horregatik, umeen onerako, elkarrekin egin behar dugu bide hori. Hain zuzen, gurasoendako hitzaldi bat izan genuen aditu batekin, eta hark zioen partidu egunean umea urduri egoten dela; hortaz, gurasoak ez diezaiola tentsio hori handitu.

**Eta emaitzak noiz ikusiko dituzue?**

Kirol arloko emaitzekin oso lotuta joango direla uste dut. Lehiakortasuna galdu barik egin behar dugu lan, eta bi alderdietan emaitza onak lortu, kirolean eta emozionalean. Uste dut emaitza txiki batzuk dagoeneko ikusten gabiltzala: txartel gutxiago, elkarren arteko harreman hobeak, entrenatzaileen jarrera ezberdina... Hala ere, izugarrizko lana dago egiteko oraindik.

**Denboraldia bukatu bitartean zein ekintza egingo dituzue?**

Mikel Uribetxebarria Aldalurrekin *coaching*-aren bitartez motibazioa landuko dugu alebin, kadete eta haurrekin. Txikienekin, ostera, birziklapenaren gainean jardungo dugu, eta, horretarako, ontziak jarri Ibarran. Eta hainbat hitzaldi ditugu: epaileen ikuspuntua azaltzeko; jokalari nagusien bizipenen berri emateko...

## Antzuolako atez ateko zabor batzearen gaineko berbaldia dago martitzenean

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaleta Zero Zabor taldeak berbaldia antolatu du martitzenerako, hilak 20: *Hondakinak atez ate jasotzeko sistema Antzuolan*. Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan izango da (19:00) eta Pedro Iturbe Antzuolako alkate ohiak jardungo du gaiaren gainean. Eta aretxabaletarren kezka eta galderei erantzungo die.

**Orain dela urtebete Antzuolan**

Orain dela urtebete ezarri zuten atez ateko zabor batze sistema Antzuolan, Debagoieneko lehenengo herrian, hain zuzen, eta horren gaineko nondik norakoak azaltzera dator Iturbe gurera: zelan ezarri den, nolako esperientzia izan den... Gainera, atez ateko bilketaren gaineko jarraipen batzordeko kide da.

## Adarrara irteera eta sagardotegian bazkaria Murrukixorekin

Gipuzkoako kostaldean dagoen Adarra aldera egingo du mendi irteera Murrukixo mendizale elkarteak martxoaren 24an, zapatua (autobusa: 08:30, Azben). Gero, sagardotegian bazkalduko dute. Izena emateko azken eguna martitzena da, hilak 20. Horretarako, Durana kaleko egoitzara joan behar da (19:00-20:00).

## Ana Bolinaga alkatea Goiena telebistako 'Harira'-n martitzenean

Ana Bolinaga alkatea elkarrizketatuko dute Goiena telebistako *Harira* saioan hilaren 20an, martitzena (21:30). Ikus-entzuleek ere egin diezaiokete galderak zuzenean: telefonoz deituta (943 25 05 03) edo Twitter bidez (*#harira* traola erabilita). Eta aurretik bidalita, honako helbidera: *harira@goiena.com*.

# Pilotalekuaren aurrealdea guztiz itxiko dute

Usoek Iturrigorri pilotalekuan sortutako arazoa konpondu gura dute, itxita

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Aisialdirako hainbat ekipamendu berritu eta txukuntzeko asmoa agertu zuen Udalak 2012ko aurrekontua onartu zuenean orain hiru aste. Hala, Iturrigorri pilotalekua txukundu eta Gipuzkoa plazako jolas parkea berritzeko dirua gorde dute.




Pilotalekuaren aurrealdea neurtzen langile bat atzo. | M.A.

**Usoen arazoa konpontzea**

Pilotalekuarendako 80.000 euro gorde dituzte, eta asmoa da aurrealde guztia ixtea. Hirigintza Saileko teknikariak oraintxe dabiltza dokumentazio guztia gertatzen eta lan horiek egiteko eskaintzak eskatuko dizkiete gero, hainbat enpresari.

Usoak dira arazo Iturrigorrin; izan ere, pilotalekuko sabaia bizilekutzat hartu dute hegazti horiek, eta oso zikin uzten dute inguru guztia: jarlekuak, kantxa, kalea… Orain dela urtebete sarea jarri zuten goiko partean –sabaiko argiteria fokuak dauden parean– arazoaren konponbidea izango zelakoan, baina usoak berdin-berdin sartzen dira barrura, eta zikinkeriak bere horretan jarraitzen du. Horregatik Udalak erabaki du aurrealde guztia ixtea, eta behin betiko konpontzea arazoa.

Bestalde, Gipuzkoa plazako jolas parkea zahartuta geratu dela iritzi diote erabiltzaileek eta Udalak erabaki du bertako jolasak aldatu eta zorua berritzea; 40.000 euro erabiliko dituzte horretarako. Hirigintza Saileko arduradunek jakinarazi dute datozen hilabeteotan egingo dituztela lanok, baina oraindik ez dutela ezer zehaztu.

> **DATUA**
>
> **80.000**
>
> EURO
>
> Iturrigorri pilotalekuko aurrealde guztia ixteko gorde dute kopuru hori.

Beste hainbat aisialdirako gune ere berritu gurako lituzke Udalak, skate parkea eta Murubideko pilotalekua tartean, baina aurten ezingo diete heldu lan horiei.

**Kiroldegiaren esleipena**

Bestalde, kiroldegi berria zeinek kudeatuko duen erabakia egunotan hartuko dute. Horretarako sortutako mahaiak bi enpresen artean hautatu behar du: Goiena Sport batetik, eta hiru enpresek bat eginda aurkeztutako proposamena bestetik: LKS, Athlon eta Ondoan. Dagoeneko hainbat bilera egin dituzte eta erabakia seguru asko datorren astean hartuko dute. Ondo bidean martxoaren 26ko ohiko osoko bilkuran emango dute erabaki horren berri, eta orduan esleituko du udalbatzak kiroldegiaren ardura.

NIRE USTEZ

**GORKA ETXABE**



## Hedabideak kinka larrian

Komunikabideen etorkizuna kolokan dago, sektorea indefinizio prozesuan. Internetek aldaketa sakonak eragin ditu eta nabarmenagoak ekarriko ditu. Iraultza deklaratu da, eta inork ez daki zer gertatuko den. Jakina dena da orain artekoak ez duela balio. Era berean, egoera ekonomiko eta finantzarioak ere eragin handia izan du gertuko eta ez hain gertuko medioen desagerpenean. Azken hilabetean hiru hedabidek agur esan digute. Iruñeko *Canal 4* telebista kateak, Prisa taldekoak, orain hamabost egun egin zuen azken saioa. 20 langile kalean geratu dira. *Público* egunkariak ere paperezko edizioa bertan behera laga du. Ehun mila ale saltzen zituzten, eta ehundik gora lagun geratu dira langabezian. Gertuago, *Mondraberri* aldizkari digitalak agur esan digu. Jarraitzaile ugari zituen Arrasaten eta herritarrek estimatzen zuten, baina babes hori ez da nahikoa izan; diru-sarrera murrizketek kondenatu dute medioa. *Berria* egunkariak ere euskal komunitatearen ziztada behar omen du bizirik irauteko.

Albiste tamalgarria da medio hauen desagerpena: iritzi sortzaileak direlako, adierazpen askatasunaren bermatzaile, demokraziaren bultzatzaile, eta horrexegatik gure elkartasun mezurik argiena. Jakin dut *Mondraberri*-k abiarazi duela kanpaina bat medioa berriro martxan jartzeko. Zorterik onena! Eta laguntzeko prest!

**"Adierazpen askatasunaren bermatzaileak dira"**

### Ixadebalde merkealdien azokan zozketatutako zenbaki sarituak 40.649 eta 40.783 izan dira

**M.A.** | ARETXABALETA

Joan den zapatuan egindako Ixadebalde azokan zozketatutako zenbaki sarituek oraindik ez dute jaberik. Hona zenbakiak: 40.649 eta 40.783. Horien jabeek hainbat opari sortaren artean aukeratu ahal izango dute; tartean daude aste bukaera pasatzeko egonaldiak eta bainuetxetako jarduerak. Opari horiek 60 euroko balioa dute, eta Durana kaleko kioskoan dituzte aukeraketa egiteko.

Bestalde, gaur, hilak 16, azken hilabetean herriko saltokietan banatutako txartelen zozketa egingo du Aretxarte merkatarien elkarteak. Saria da sagardotegian afaria eta nekazari etxe batean gaua eta gosaria, bi lagunendako.



Prozesionaria harrak bidegorri bazterrean. | M.A.

# Pinuetako harrak jaitsi dira lurrera prozesioan

Herri barruan dauden zuhaitzetako poltsa guztiak ezin izan ditu kendu Udalak, oso altu daudelako

**M.A.** | ARETXABALETA

Pinu askok dituzten poltsa zurietan hazten egon diren harrak dagoeneko hasi dira jaisten lurrera, eta han eta hemen dabiltza prozesioan; bidegorrian, esaterako. Kalean bertan ere agertu dira prozesio horiek; Araba ibilbidean esaterako. Izan ere, herriko hainbat zuhaitzek dituzte poltsa zuriak adar puntetan. Hainbat herritarrek orain dela hilabete batzuk iragarri zuten zer gertatuko zen, eta poltsa horiek lehenbailehen kentzeko dei egin zioten Udalari. Batzuk kendu zituzten orduan, tartean Belorrieta auzoan Pausoka alboan zegoena, baina guztietara ezin izan dira iritsi, oso altu daudelako: "Ahalegindu gara kentzen, baina zuhaitz puntetan egiten dituzte, eta ezin iritsi guztietara… Udaletxeko lorategian dagoen zedroan, esaterako, oso altu dago, eta garabi bat beharko litzateke. Hori, baina, oso garestia da", argitu du Lore Martinezek, Ingurumen zinegotziak.

**Herritarrak, kezkatuta**

Aurten sekula baino goizago agertu dira harren poltsak pinuetan, udazken inguruan, hain zuzen. Eta "sekula baino gertuago", herriko hamabi bat zedrotan atzeman dituztelako.

Herritar horiek uste dute erakundeek ez diotela behar besteko garrantzirik eman arazoari: "Udalak eta Aldundiak zein neurri hartu dituzte? Gure herriak poltsadun pinuekin inguratuta daude, eta Aretxabaleta barruan ere gero eta zuhaitz gehiagotan agertzen dabiltza; lehenbailehen kendu ezean, gainera, zabaltzen joango dira", iragarri dute.



M.A.

## Dantza saio dotoreak ikasleekin

Leizarra musika eskolako dantzariek saio dotoreak eskaini dizkiete guraso, lagun eta herritarrei. Aste osoan egin dituzte saioak Arkupeko Zaraia aretoan, eta Aitor Villarreal irakaslearen esanetara orain arte ikasitakoaren berri eman. Umeek eta helduek, guztiek egin dituzte saioak, eta dantzan egin bitartean dantza bakoitzaren gaineko argibideak jaso dituzte ikusleek.

# Zaldibarrek oniritzia jaso du, atondu barik egon arren

Beñat Hercek eta Jose Angel Petralandak gidatuta, bisitak egin dituzte asteon

T.MADINA/M.BITERI | ESKORIATZA

Harrera ona izan zuten joan den martitzenean Santa Ana komentu zaharra Zaldibar antzokian bihurtzeko egiten ari diren lanak bertatik bertara ezagutzeko herritarrei eskainitako bisita gidatuek. Egindako bi hitzorduetan, 30 lagun inguruk adi entzun zituzten Kultura zinegotzi Pedro Angel Petralandak eta, bereziki, Beñat Herce alkateak emandako azalpenak. Lehen faseko obrak amaituta, eraikinak duen itxura ikusi eta etorkizunari begira aurreikusitako lanen berri jaso zuten ekimen hartan parte hartu zutenek.

Orain arte eraikinaren egitura berritu, intsonorizazioa eta geotermia bidezko klimatizazioa sartu eta komunak egin dituzte 150 lagunendako tokia izango duen aretoan, eta horixe izan zen, hain justu, herritarrek gertutik ezagutu zutena; eta, haien aurpegia ikusita, gustura geratu ziren ikusitakoarekin.



Beñat Herce alkatea, herritarrei azalpenak ematen. | TXOMIN MADINA

**2013ko Sanpedrotarako nahi**

Lan horiek amaituta, Udalak bigarren faseko proiektua onartu berri du Kultura batzordean; asmoa da apirileko osoko bilkuran onartzea. Jarraian, obra horiek esleitzeko prozesua jarriko dute martxan; eta behin obrak hasita, zazpi hilabeteko epea izango du adjudikazioa lortzen duen enpresak lan horiek egiteko. Horren harira, alkateak azaldu zuen diru arazorik egon ezean, datorren urteko sanpedroetarako gura dutela areto berria zabaldu.

Aretoa egokitzeak, denera, milioi eta erdiko kostua izatea aurreikusi badute ere, aurrekontua aspaldikoa dela eta kopurua berrikusteko asmoa dutela adierazi zuen.

**Kudeaketarako mahaia**

Martitzeneko bisitetan, areto horren kudeaketaz ere egin zuen berba Hercek. Horren harira, aipatu zuen asmoa dela Kultura Sailetik mahai bat bultzatzea, eta udal ordezkariekin batera herritarrak eta eragileak ordezkatuta egongo liratekeela bertan.



**IGOR EZPELETA**
ESKORIATZARRA

"Erabilera askotariko aretoa proiektu polita da; talde asko daude herrian eta gauza txukunak egiteko halako zerbaiten beharra dugu".



**IRAITZ ZUATZABEITIA**
ESKORIATZARRA

"Gustura egon naiz bisita gidatuan; berritu ostean, itxura ederra dauka. Ondo aprobetxatuta egongo dela ematen du".



**DAVID ARRIETA**
ESKORIATZARRA

"Polita geratuko dela uste dut. Goiko aldeak harritu nau; aurrera ekarri da, eta, horrenbestez, lekua irabazi da".

## Lehen sorospeneko ikastaroa dago hilaren 27an

M.B. | ESKORIATZA

Larrialdien aurrean nola jokatu behar den jakiteko oinarrizko ezagutzak eskainiko ditu DYAk martxoaren 27an, martitzena, herriko kultura etxean egingo duten berbaldian. Antolatzaileek jakinarazi digute bi ordu inguru iraungo duela, 18:30etik 20:30era, eta euskaraz izango dela.

Elkarteak larrialdien aurrean nola jokatu jakiteko beharrezkoak diren oinarrizko ezagutzak erakutsi nahi dizkie eskoriatzarrei, baita nola aurre egin eta nola konpondu. Horretarako, konortea galtzen diren egoerak, bularreko mina, konbultsioak, zauriak, traumatismoak eta erredurak azalduko dira, beste batzuen artean. Parte-hartze moduko formatuan gai horiek jorratuko dira, eta, azaltzen diren eduki teorikoez gain, esku-hartzaileen testigantza eta aholkuei eta iritziei buruzko mahai-ingurua antolatu dute.

Informazio gehiago gura duenak 943 46 46 22 telefono zenbakira dei dezake, edo *irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com* helbidera idatzi.

## OHARRAK

**MAHAI JOLASAK**
Gaur, mahai jolasak dituzte Tortolis ludotekan, 18:00etan.

**KIROL HITZORDUAK**
Gaur, gazteen mailako saskibaloi partidua dago: Eskoriatza vs Andraitz. 16:00etan. Eta areto futboleko Euskal Ligan, etxekoak Goierriren kontra lehiatuko dira bihar, 18:00etan.

**'URAREN BIDEA'**
Arrasate-Oñati espeleologia taldekoek *Uraren bidea* bideo emanaldia eskainiko dute gaur kultura etxean, 19:00etan.

**IRTEERA ETA ZINEA**
Bihar irteera dute gaztelekuan; eta etzi zine forum, 18:00etan.

**OGI MAMIEN EGUNA**
Corazon de Encina Extremadurako elkarteak Ogi Mamien Eguna egingo du etzi, plazan. Eguerdi aldera, plazan bertan gertatutako ogi mamiak eta Extremadurako bestelako produktuak banatuko dituzte.

**'HERRIXA DANTZAN'**
*Herrixa dantzan* egingo dute ostera ere etzi, 18:30etik 20:00etara. Eguraldiak laguntzen badu, unibertsitateko klaustroan egingo dute dantzaldia.

**DIPUTAZIOAREN UDALEKUAK**
Diputazioak antolatutako udalekuetan izena eman daiteke hilaren 23ra arte herriko kultura etxean.

## Koldotxoren otarrea, zaharren egoitzara

Aratusteetan Luis Ezeizako Koldotxo guraso elkarteak zozketatutako otarrearen irabazlea agertu ez denez, zaharren egoitzari opari egin diote; eguaztenean eroan zuen elkarteko kide Marta Caballerok. Han bizi direnak pozik jaso zituzten produktuak; bereziki, urdaiazpikoa, ardoa eta sagardoa.



MIRIAN BITERI

LAGUNAK DASTALEKU

Gustura egoteko!

Intxaurtxueta 8 ESKORIATZA
943 71 40 63



Aramaioko Ai Ene!, beste koadrila batekin, aurtengo txapelketan. | ARTXIBOA

# Aramaioko Ai Ene!, duela bi urteko arantza kentzera

Martxoaren 24ko final handian Gasteizko Martin Ttipiaren aurka lehiatuko dira, idatzizkoan

**J.B.** | ARAMAIO

Dena dago gertu Arabako Koadrila Arteko Bertso txapelketaren final handirako. Aramaioko pilotalekuan jokatuko da, martxoaren 24an. Bat-batekoan duela bi urte Aramaioko taldeak lortutako garaipena ezingo da errepikatu baina idatzizkoan aramaioarrek badute ordezkaritza: Aramaioko Ai Ene! koadrila, hain justu. Duela bi urteko arantza kentzera datoz, finalean egon bai baina ez zutelako irabazterik izan.

**Zer esateaz gain, nola esan**

Martin Arriolabengoa koadrilako kidearen arabera bertsoaren edukiaz gain, bertsoa aurkezteko moduak garrantzi handia dauka: "Bertsoa nola abesten den, ondo antzeztu den... Hainbat detaile hartzen dira kontutan, bertsoaren edukiaz haratago doazenak". Finalera begira, aurkari izango dituzten Gasteizko Martin Ttipia koadrila da faborito, Arriolabengoaren arabera: "Lan txukuna egitea da gure asmoa, besteek oso talde ona dute-eta". Bi taldeek honako gaia izango dute: *Zer falta zaio Arabari?*

Egitarau ederra prestatu dute hilaren 24rako: 12:00etan bertso-poteoa plazatik, 14:30ean herri bazkaria eta 17:30ean hasita, final handia.

ESANAK

**"Lan txukuna egin gura dugu, besteek oso talde ona dute-eta"**

MARTIN ARRIOLABENGOA
ARAMAIOKO AI ENE! TALDEKO KIDEA

# 'Fracking'-aren ondorioak herriari helarazteko lanean

Gasa lortzeko modu horren gainean informazio gutxi dagoela bistan geratu zen martitzeneko hitzaldian; bertaratutakoek ez zuten halako planik espero

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Gasa lur azpitik lortzeko *fracking* izeneko metodoaren gainean hitzaldia eskaini zuen martitzenean Mikel Otero Fracking Ez Araba plataformako kideak. Hitzaldiarekin pozik geratu zen Otero: "Lehena zen euskaraz ematen nuena eta beldurra nuen gaiak dituen alde teknikoak kontuan hartuta ea jendeak zerbait ulertuko zuen, baina nahiko ondo irten zen dena. Lekua oso aproposa zen eta oso ondo tratatu gintuzten". Hori bai, gai berria eta ezezaguna izanik, hitzaldiaren ostean jendeak "sustoa" hartu zuen, Oteroren arabera: "Ez zekiten eta ez zuten espero Aramaio inguruan halako planik zegoenik, inor ez zaielako azalpenak ematera joan".

**Herria informatzeko lanean**

Oterok adierazi duenez, lur azpian dauden gasdun haitzak txikitzen lortzen da gasa, horri deitzen zaio *fracking*. Eusko Jaurlaritza dabil gasa lortzeko modu hori bultzatzen eta aurrera egingo balu Gasteizen hasiko lirateke zulatzen. Baina Oteroren arabera, Euskal Herria ia osorik egongo litzateke arriskuan. Zein arrisku den? Bada, Fracking Ez Araba plataformako kideendako beldur nagusia edateko uraren kutsatzea da. Uraz gain, lurra bera eta airea kutsatzen dituela dio Oterok.

Plataforma sortu berria da eta bi lan esparru dituzte. Batetik, erakundeetan oposizio legala ari dira egiten, besteak beste, alegazio eta mozioak aurkezten. Bestetik, herri mugimendua ari dira sortzen eta horretarako ezinbestekotzat hartzen dute jendea gaiaren gainean informatzea: "Informazioa helarazi behar zaie herritarrei; orain lan horretan gabiltza. Izan ere, plana gauzatu gura dutenek hala erabaki dutelako, informazio gutxi eta eskasa dute herritarrek".

ESANAK

**"Sustoa, inor ez zaielako azalpenak ematera joan"**

MIKEL OTERO | FRACKING EZ ARABA




30 bat lagun elkartu ziren martitzenean, kultura etxean, Mikel Oteroren azalpenak jasotzeko. | ARAMAIOKO UDALA

## Orixol mendizale elkartearen eski irteera "giro ederrean" joan zen, eguraldi onak lagunduta

Joan den asteburuko eskiatzera joateko irteera antolatu zuen Orixol mendizale elkarteak, eta 28 lagunek egin zuten bat deialdiarekin. Egubakoitz iluntzean irten eta domeka iluntzean bueltatu ziren Aramaiora, 20:30erako-edo.

Bi egunean Astunen eskiatu zuten, eta, jakinarazi dutenez, "oso eguraldi ona" izan zuten aste bukaera osoan: "Pistetan egoera onean zegoen elurra; pistatik kanpo, berriz, ez zegoen elur askorik", adierazi dute. Orokorrean, antolatzaileak pozik daude.

## San Martin eskolako Haur Hezkuntzako ikasleek gaur ospatuko dute Zuhaitz Eguna

Aramaioko Udalak, San Martin Eskolak eta Urkiolako Parke Naturalak urtero antolatzen duen Zuhaitz Eguna dela-eta, joan den eguaztenean Lehen Hezkuntzako ikasleak Kurtzeta aldean ibili ziren pagoak, haritzak eta haginak landatzen. Bada, gaur Haur Hezkuntzako ikasleen txanda da. Andra Mari parkean ibiliko dira abeldarrak landatzen, eta, ingurumenaren aldeko ekimenarekin bat egiteaz gain, goiz osoan eskulanak eta jokoak egingo dituzte. Noski, hamaiketakorik ez da falta izango.

# 'Greban gaude' antzezlana gaur, Txirritolaren eskutik



*Greban gaude* obrako antzezle taldea. | GOIENA

**J.B.** | ARAMAIO

Topagunea elkarteak kudeatzen duen Kultur Errota zerbitzuaren bidez, Txirritola euskara elkarteak antzezlana antolatu du gaurko, kultura etxean (22:30): *Greban gaude*. Sarrera bi euro ordaindu beharko da.

Antzezlanaren protagonistak hiru garbitzaile dira, grebara joatea erabaki dutenak. Grebaren zergatia ez du inork argi, baina elkartu eta solasari ekingo diote. Oso desberdinak dira elkarren artean, eta, gaiak jorratzeko orduan, ezberdintasun horiek agerian geratuko dira. Ironia handiz eta umore ukitu nabariarekin hainbat gai izango dituzte hizpide: maitasuna, familia, sexua, ilusioak...

Labur esanda, emakumezkoen pentsaeraren hainbat ikuspegi azaltzen dira antzezlanean.

ELGETA

# Gazteak ez daude ados apirilean gaztelekua ixteko erabakiarekin

## Bilera eskatu diote alkateari, eta martxoaren 23rako ipini du Erostarbek

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

"Jakin dugu apiriletik aurrera gaztelekua itxita egongo dela. Ez dago dirurik, eta erabaki dute udaberrian ez dugula gaztelekuaren beharrik. Baina hori ez da horrela. Gu oso gustura joaten gara gaztelekura. Horregatik, eta gaztelekua ez ixtea lortzeko, kartelak ipini ditugu kalean. Gure ideia izan da. Gutun bat ere idatzi diogu Oxel Erostarbe alkateari. Bilera eskatu diogu; gurekin biltzea nahi dugu, ez gure gurasoekin".



Gaztelekuko erabiltzaile taldea pankartarekin. | L.Z.

Nerabeen aldarria gurasoekin bi batzar ireki egin ostean Udalak hartutako erabakiaren haritik dator. Maiatzari eta ekainari begira zerbitzua beste modu batera planteatu behar dela ere adostu zuten alde biek.

### Jolasteko eta ikasteko

Gaztelekuan elkarrekin jolasteko, pelikulak ikusteko eta tailerrak egiteko aukera dutela azaltzen dute gazteek. "Txikiek parkeak dituzte; gu parkean aspertu egiten gara", diote. Adin askotarikoak eta neskak zein mutilak elkartzen direla diote. Egindako lip duba, film laburren tailerra, sexualitate tailerra eta Martxoaren 8ko ekintza ipini dituzte adibide gisa. "Badakigu udaberrirako ekintza ezberdinak egitea dutela buruan, eta ideia ona da. Baina noizbehinka egitea planteatzen dute, eta ez aste bukaera guztietan. Egia da batzuetan kalean egotea nahiago dugula, baina gaztelekuak oso ordutegi ona du. Kalean apur bat egon, eta gero gaztelekura joaten gara".

### Bilera gaztelekuan

Oxel Erostarbe alkateak datorren barikurako, martxoak 23, deitu du gazte eta nerabeendako batzar irekia. "Gazteak etorri dira bilera eske, eta aurreratu diegu prest gaudela eurekin elkartzeko. Gainera, guk ere entzun egin nahi ditugu, eta Udalaren proposamena Udalaren ahotik jasotzea", adierazi du.

Alkateak gaineratu du ulertzen duela gazteek gaztelekua urte osoan zabalik egotea nahi izatea, baina Udalaren proposamena beste bat dela: "Zazpi hilabete zabalik egotea eta beste hiru hilabetean ekintza puntualak egitea". Erostarbek gehiago esan du: "Momentu honetan erabakita daukaguna apirilean gazteleku zerbitzurik ez ematea da, eta denbora horretan maiatzerako eta ekainerako ekintzak lantzea. Herritarrekin egindako batzar irekietan hartu genuen zaintza zerbitzua gura duten gurasoekin eta gaztelekuko erabiltzaileekin lehenbailehen egoteko, eta hurrengo astean guztiekin egoten saiatuko gara". Udal ordezkariak hurrengo barikuan, martxoak 23, joango dira gaztelekura bertako erabiltzaileekin 18:00etan batzarra egiteko.

### Zaintza zerbitzua

Zaintza zerbitzua erabiltzeko interesa duten gurasoak, berriz, martxoaren 21ean, 19:30ean, udaletxean egingo den bilerara deitu dituzte.

## Jokin Labaien, Manex Agirre eta Enaitz Alustitza, gaztetxearen urteurrenean

L.Z. | ELGETA

Biharko, zapatua, antolatu dituzte gaztetxearen urteurrena ospatzeko ekitaldiak. Intxortara mendi buelta eginez emango diote hasiera urteurrenari; 10:00etan abiatuko dira plazatik, eta Intxortan egingo dute hamaiketakoa.

Eguerdirako bueltan izango dira, eta poteoa iragarri du Gazte Asanbladak; trikitilariekin eta bertsolariekin egingo dute. Jokin Labaien, Manex Agirre eta Enaitz Alustitza daude Elgetara gonbidatuta.

### Bazkaria eta kontzertua

Herri bazkaria gaztetxean egingo dute. Bazkalosterako jokoak ere iragarri dituzte; karta jokoa, mahai-tenisa eta hiruko futbol txapelketa. Gauean, EZ! taldeak kontzertua egingo du.


L.Z.

## Lehenengoa euskaraz: Nora

Nora de Vega Oianguren da Elgetako epaitegian euskaraz erregistratu duten lehenengo jaioberria. Gurasoek otsailaren 7an erregistratu zuten, eta lehenengo aldiz Elgetan "gaztelaniaz edo euskaraz?" galdetu zieten. Nora da jaiotze-agiria euskara hutsean duen lehenengo elgetarra. Aurrerantzean, jaioberri guztiek izango dute aukera hori.

## OHARRAK

### ERRETIRATUEN BATZARRA

Xalbadorpe elkarteko zuzendaritza batzordeak urteko batzar orokorra deitu du gaurko, martxoak 16, 17:30ean. 2011ko balantze ekonomikoa aurkeztuko dute, baita 2012rako egitea aurreikusten duten ekintzen proposamena ere. Bazkide guztiak daude Ozkarbi elkartean egingo den batzarrean parte hartzera deituak. Bukaeran, pintxoak banatuko dituzte.

### DINAMIZATZAILEA KZGUNEAN

Elgetako KZguneko dinamizatzaile Eli Modrego kultura etxeko ordenagailu gelan izango da astelehenean, martxoak 19, 16.00etatik 19:00etara. Interesatuek doan hainbat ikastaro egiteko aukera izango dute; oinarrizko Internet, irudia eta soinua, 2.0 sare sozialak, software askea, Google Apps...

### LAPURRETA DENTISTANEAN

Astelehenetik martitzenerako gauean gertatu zen lapurreta saiakera Idoia Iriarte odontologoak Torrealdean duen hortz-klinikan. Kontsulta nahasia eta leiho bateko kristala apurtuta aurkitu zituzten. Dutxako kanila igarri dute faltan klinikan. "Ez dute besterik eraman ez zegoelako ezer", esan dute klinikatik. Salaketa ipini du Iriartek.

## FRONTENIS TXAPELKETA

### Bost norgehiagoka aste bukaeran

Txapelketa hasieratik jaun eta jabe diren bikoteek segitzen dute bi sailkapenetako lehenengo postuetan.

| AURREKO JARDUNALDIKO EMAITZAK | |
|---|---|
| Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Andoni Elortza-Eneko Maguregi | 25-14 |
| Adrian Gorostiza-Asier Osoro / Jon Irazabal-Ibon Untzetabarrenetxea | 25-15 |
| Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna | 25-18 |
| Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo / Maite Mandaluniz-Jabier Larrañaga | atzeratua |

| PARTIDUAK BARIKUAN, HILAK 16, 18:30EAN |
|---|
| Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna |
| Jon Irazabal-Ibon Untzetabarrenetxea / Mikel Zubiaurre-Danel Cusi |

| PARTIDUAK DOMEKAN, HILAK 18, 9:30EAN |
|---|
| Iban Retolaza-Xabier Ubera / Adrian Gorostiza-Asier Osoro |
| Idoia Elkoro-Enrike Elkoro / Maite Mandaluniz-Jabier Larrañaga |
| Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo / June Dosuna-Xanti Dosuna |

LEINTZ GATZAGA

# Elurretara irteera eta Udaberri Eguna, Gurelen hurrengo ekintzak

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Egunotan berritu du zuzendaritza batzordea Gurel guraso elkarteak. Lau lagunek osatzen dute eta horietako bik, Angelek eta Albertok, utzi egin dute. Haien ordez bi emakume sartu dira: Naiara eta Amaia. Eta sartu berri horiekin geratu dira lanean Imanol eta Ainhoa.

Batzorde aldaketarekin batera 2012rako egitarauaren zirriborroa gertatu dute: ohiko ekitaldiak zehaztu eta berriak proposatu. Hala, poliki-poliki hasiko da lanean osatu berri duten batzordea, eta ondorengo egunetan gurasoekin elkartuko dira asmoen berri eman eta behar izanez gero laguntza eskatzeko.

### Elurretara irteera

Udaberrirako dagoeneko hainbat proposamen dituzte mahai gainean. Martxoko azken aste bukaeran irteera egin gura dute, Valdezcaray ingurura, hain zuzen, elurretan ibiltzera. Baina eguraldi ona dela-eta ez dakite elurrik izango duten, eta guztiz zehaztu barik daukate irteera hori.

Bestalde, apirilean, Aste Santuko oporren ostean Udaberri Eguna ospatuko dute eta landareak landatuko dituzte herriko kale bazterretan.

## Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dago

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea zabaldu du Udalak egunotan, eta apirilaren 30era bitartean egin beharko dute herritarrek –ordainagiri helbideratuen kasuan izan ezik–. Udaletxeko bulegora joan behar da horretarako. Erreklamatu gura duenak ere bertan aurkeztu beharko du.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA




TXIRRINDULARITZA

**Iban Velasco** | Euskaltel-Euskadiko ziklista

# "Kanpoko ziklistak fitxatuta, taldeak izaera galduko luke"

Arrasatekoak Oñatiko erlojupekoa errepasatzen lagundu die taldekideei aste barruan, baina hark telebistaz segituko du Itzulia; Giroa prestatzeko bidean Kataluniara doa, Voltara

Iban Velasco, taldekideekin berbetan, Oñatiko Etxe Aundi jatetxearen parean, martitzenean, zirkuitua errepasatzen hasi baino minutu batzuk lehenago. | XABIER URTZELAI

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Beste denboraldi batzuekin alderatuta, aurten atzeratuta darama Iban Velascok (Arrasate, 1980) denboraldiko prestakuntza. Halaxe eskatu dio taldeak; iaz urtarrilean hasi zen lehian, eta aurten Giroan izango du lehen hitzordu handia. Bitartean, telebistaz segituko du Euskal Herriko Itzulian taldearen lana.

**Zer iruditu zitzaizun martitzenean Oñatin ikusitakoa?**

Ikusleendako oso erlojupeko polita izango dela, baina lehiatzeko... zaila da. Aldapa asko ditu, motzak, baina gogorrak, bihurgune asko... Zaila, oso zaila iruditu zitzaidan, eta euria egiten badu tarteren bat arriskutsua; baserri arteko errepide horiek, esaterako. Egia da azken erlojupeko horretan aurre-aurrean dabiltzanek baino ez dutela arriskatu behar izaten, hogei bat lagun-edo izango dira, eta erorikoren bat egon daiteke.

**Samuel Sanchez izango da taldeko liderra. Zer komentatu zuen?**

*Samu* ondo moldatzen da halako zirkuituetan. Oso esplosiboa da eta gorabehera handiko zirkuituetan gustura ibiltzen da. Gure artean komentatu genuen oso garrantzitsua izango dela erlojupekoan erabili beharreko materiala ondo aukeratzea. Bizikletaren garapenak, batez ere. Izan ere, aldapa gogorrak ditu, baina baita lautada luzeak ere. Ez da erraza izango.

**Martitzenean bertan egin zenituzten aukeraketa guztiak ala beste egun bat erabiliko duzue horretarako?**

Nik uste dut atzo hartutako erreferentziekin nahikoa dela, baina erlojupekoaren egunean beste errepaso bat emango diote, seguru. Etapa arratsaldean izango da, eta goiza horrelako kontuetarako aprobetxatuko dute.

## "Ikusleendako oso erlojupeko polita izango da, baina ziklistendako zaila"

**Esango nuke zirkuituko tramu teknikoetan, Oñatitik gora dauden baserri-bideetan, erlojupekoetako bizikletekin baino hobeto moldatuko zinateketela bizikleta normalekin.**

Lehenengo bost kilometroetan baietz esango nuke, baina Oñati eta Zubillaga arteko zatian erlojupeko bizikletak erabilita denbora irabaziko dugu.

**Kanpotik segituko duzu Euskal Herriko Itzulia. Inbidiaz, pentsatzen dut.**

Bai, ia-ia urtero egon naiz etxeko lasterketan, eta, gainera, aurten Oñatin amaitzen denez, polita

## "Garapen egokiak aukeratzea erabakigarria izango da erlojupekoan"

izango litzateke bertan parte hartzea. Baina aurten nire prestakuntza Girora bideratuta dago, eta oso gustura joango naiz hara.

**Ondo ezagutzen duzu Italiako lasterketa.**

Bai, 2007an eta 2008an izan nintzen bertan, profesional moduan egin nituen lehenengo urteak izan ziren eta oso oroitzapen onak ditut. Lasterketa gogorra da, Tourra baino gogorragoa dela esango nuke, baina ederra da. Motibatuta joango naiz hara.

**Iaz egin zenutena berdintzen erronka ederra du taldeak.**

## "Gizarte osoa dago krisian, eta ziklistok ezin dugu burbuila batean egon"

Bai, ez da erraza izango. Itzuli handi guztietan lortu genituen etapa garaipenak, eta bistan da iazko denboraldia errepikatzea zaila izango dela, baina horretan ahaleginduko gara.

**Euskal Herriko Itzulia kolokan egon da azken unera arte. Horrek erakusten du ziklismoa ze egoeratan dagoen?**

Seguruenik bai. Baina ez txirrindularitzan bakarrik, nik uste dut kirol guztietan dagoen arazoa dela. Akaso, futbolean gauzak bestelakoak izango dira, baina gizartea bera krisialdian murgilduta dago, eta horrek zuzenean eragiten du txirrindularitzan. Alde horretatik, ziklistok ezin dugu burbuila batean sartuta egon.

**Ze traza hartzen diozu Euskaltel taldearen etorkizunari?**

Guk ez dakigu askorik, babeslea aurtengo urterako baino ez dugula eta ikusi egin behar aurrera begira Euskaltelek segituko duen, beste babesleren bat beharko den... Ea zortea dugun eta taldeak segitzen duen.

**Igartzen da zuzendari aldaketa?**

Ez da aldaketarik igarri. Gorka Gerrikagoitiaren lan egiteko modua Igor Gonzalez de Galdeanoren antzerakoa da.

**Komentatu da taldeak filosofiaz aldatu beharko duela, kanpotarrak fitxatzearen beharra...**

Nire ustez, zaleek ez lukete ondo hartuko kanpotarrak fitxatzea. Futbolean Athletic izan daitekeena gara ziklismoan; izaera galduko luke taldeak.

## "Giroan askatasun handiagoa izango dut"

Itzuli garrantzitsuetan Velasco liderren aginduetara lanean ibili da, baina Giroan askatasun handiagoa izango du: "Nieve izango dugu sailkapen orokorrarengatik lehian, baina ez goaz horrekin itsututa. Ihesaldietan sartzea da asmoa, eta hala korritzea politagoa da. *Samu*-rekin joaten garenean garbi egoten da zein den egin beharreko lana".



Euskaltel-Euskadiko ordezkariak, Astorek diseinatutako arropekin. | X.U.

## Astorek kalerako Euskalteleko arropak aurkeztu zituen

Euskaltel-Euskadiren eta Astoreren artean 16 urteko harremana dago eta aurten ere txirrindulari taldearendako pertsonalizatutako diseinuak egingo ditu Arrasateko enpresak. Hala, martitzenean aurkeztu zituzten diseinuok: kamiseta eta mahuka motzeko poloa, txandala, kirol-jertsea gorroarekin eta bisera. Horietan guztietan, gainera, ez da kolore laranjarik falta izango. Euskal Herriko Itzulian egongo diren txirrindulariek egin zituzten modelo lanak, eta fundazioko presidente Migel Madariagak eskerrak eman zizkien Astoreko ordezkariei urte hauetako babesagatik. Horrekin batera, Iban Velascok azpimarratu zuen arropa politak direla eta seguru dagoela ondo salduko dituztela. Horren ondoren Oñatira joan ziren, entrenatzera.




Maider Unda, txapelketako une batean. | MAIDERUNDA.COM

BORROKA LIBREA

# Londresera bidean, Maider Undak brontzea jantzi du Europakoan

X.U. | ARRASATE

Maider Undak brontzezko domina jantzi du Belgraden egin duten 2012ko Europako borroka txapelketan. Kanporaketak Epp Mae estoniarrari irabaziz hasi zituen (1-0 eta 1-0). Final-zortzirenetan, Cinthya Vanesa Vescan frantziarra kanporatu zuen (0-1 eta 0-1). Eta final-laurdenetako borrokaldi gogor baten ondoren, orain arte Europako txapelketako zilarrezko dominaren jabe izan den Vasilisa Marzailuk bieloerrusiarra hartu zuen mendean.

Borrokaldi hartan 1-0, 0-2, 1-3 egin zuen oletarrak, eta finalerdiatarako txartela eskuratu zuen. Finalean, baina, Europako txapeldun izan zen Maja Gunbor Erlandsen norvegiarra ezin izan zuen gainditu. Lehia hori galduta, brontzezko dominarako bigarren aukeran Nataliya Palamarchuk azerbaijandarrari irabazi zion 0-1 ,0-2. Hala, 2010ean lortutako Europako txapelketako brontzezko domina berrestea lortu du Maider Undak: "Ondo hasi dugu urtea. Dagoeneko laugarren txapelketa izan da hau, eta, helburu nagusia Londreserako sailkatzea bada ere, bidean kontrario zuzenei irabaztea garrantzitsua da; eta, oraingoz, gauzak bide onetik doaz".

Iaz lesio batengatik denboraldia hutsean joan zitzaion Oletakoari; orain, Londresera joateko bide onean da.

FUTBOLA

## Aretxabaletak eta Aloñak derbia jokatuko dute domekan

Ohorezko erregional mailan Aretxabaletak (40) eta Aloñak (34) derbia jokatuko dute domekan. UDAkoek ez dute lortzen aurrealdeko taldea harrapatu eta bertan lekua egitea, eta Aloñak aukera polita du bien arteko aldea hiru puntura murrizteko.

Bergarak eta Mondrak ere etxean jokatuko dute. Bergarak bosgarren dagoen Oiartzun hartuko du, eta Mondrak partidu garrantzitsua izango du kontrario zuzena den Aurreraren kontra.

SASKIBALOIA

## Natra-Oñati Gasteizera, eta MUk Tabirako hartuko du

EBAn geratzen diren hiru *finaletako* bat jokatuko du Natra-Oñatik domekan Gasteizen (18:00). Garaipena behar dute itxaropenari eusteko, eta zaleendako autobusa antolatu dute.

Mondragon Unibertsitateak, berriz, ondo hasi du jaitsiera fasea, Barañaingo taldea mendean hartuta. Zapatuan (18:00), jaitsiera faseko talde indartsuetako bat hartuko dute, hirugarren dagoen Tabirako Baque; bigarren garaipenak fasea bideratuko luke.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**LEHENENGO MAILA**
Getafe-Reala
Zapatua. 18:00. Getafe.
Reala-Levante
Eguaztena. 20:00. Anoeta.

**EMAKUM. BIG. MAILA**
Gasteizko Aurrera-Mondra
Domeka. 11:30. Olaranbe.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Bergara-Oiartzun
Zapatua. 16:45. Agorrosin.
Mondra-Aurrera
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Aretxabaleta-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Ibarra.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Zestoa-Aretxabaleta B
Zapatua. 15:30. Iraeta.
Soraluze-Antzuola
Zapatua. 16:00. Ezozia.

**LEHEN ERREGIONALA, IGOERA**
Mondra B-Hondarribia B
Domeka.16:00. Mojategi.

**ERREGIONALA, KOPA**
Aretxabaleta C-Eibartarrak
Zapatua. 18:00. Ibarra.

**OHOREZKO GAZTEAK, IGOER.**
Añorga-Bergara
Zapatua. 17:30. Rezola.
Aloña Mendi-Aurrera
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**OHOREZKO GAZTEAK, KOPA**
Santo Tomas-Mondra
Domeka. 12:30. Berio.
Aloña Mendi-Aurrera
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**EMAKUMEZKOEN IGOERA F.**
Arizmendi-Zumaiako
Zapatua. 13:45. Ibarra.

**EMAKUMEAK, GAZTEAK**
Bergara-Euskalduna
Zapatua. 17:30. Ipintza.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Eskoriatza-Goierri
Eguna eta ordua zehazteke.

**GIPUZKOAKO BIGARREN M.**
Joxemari Tab.-Aretxabaleta
Gaur. 12:15. Donostia.

**SENIOR NESKAK**
Laskorain-Arizmendi
Gaur. 20:30. Tolosa.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Soraluce BKE-Deusto Loyola
Zapatua. 18:30. Labegaraieta.
Ford Mugarri-El Pilar
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**EMAKUMEZKO PREFERENT.**
Aloña Mendi-Leizaran
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

**LEHEN TERRITORIALA**
Leizaran-Izarraitz Aloña
Domeka. 11:45. Andoain.

**FEDERAZIO SARIA. GAZTEAK**
Bergara-Elgoibar
Zapatua. 16:30. Labegaraieta
Leizaran-Talleres Chapime
Domeka. 10:15. Andoain.

**SASKIBALOIA**

**EBA**
EHU Araba-Natra Oñati
Zapatua. 18:00. Gasteiz.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
MU-Tabirako Baque
Zapatua. 20:00. Iturripe.

**MAILA AUTONOMIKOA**
MU-Santurtzi
Domeka. 18:00. Iturripe.

**SENIOR GIZONEZKOAK**
MU-Easo Zahar
Gaur. 20:00. Musakola
Astigarraga-Soraluce BKE
Zapatua. 16:00. Astigarraga.

**SENIOR. BIGARREN MAILA**
Aloña Mendi-Kostkas
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**SENIOR. HIRUG. MAILA**
MU B-Zarautz Zast
Zapatua. 16:00. Musakola..

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
Añorga-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.

**ATLETISMOA**

**MULTIKIROLEKO SAIOA**
Zapatua. 09:30ean hasita.


AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



14.500€-tik aurrera

> FORD FOCUS
2011 | Diesela | 0 Km

MUGARRI

Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Mondeo 1.8 TDCI — 19.800 €
  2011 | Diesela | Zilarra | 0 Km
- Ford Focus TDCI 115 ZP 6 abiadura — 17.500 €
  2011 | Diesela | Beltza | 0 Km.
- VW Passat Avant 4x4 Highline 2000 TDI 140 ZP — 14.800 €
  2007 | Diesela | Beltza | 110.000 Km.
- Ford Focus TDCI 140 ZP — 19.800 €
  2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- Ford Focus TDCI 110 ZP — 10.500 €
  2008 | Diesela | Beltza | 49.000 Km
- Ford Kuga TDCI- 4W 140 ZP — 24.400 €
  2010 | Diesela | Urdina | 16.000 Km
- Mitsubishi Montero TDI 115 ZP — 13.800 €
  2006 | Diesela | Zilarra | 102.000 Km
- Mitsubishi Montero TDI 115 ZP — 14.800 €
  2007 | Diesela | Beltza | 128.000 Km
- Nissan Pathfinder X5E TDi 174 ZP — 14.500 €
  2005 | Diesela | Grisa | 130.000 Km
- Toyota Land Cruiser UX 170 ZP — 18.800 €
  2006 | Diesela | Zilarra | 120.000 Km



19.950 €

> Renault Laguna tom tom dci 130 zp
2011 | Diesela | Txuria | 0 Km

RENAULT AUTOBERRI

San andres auzoa 8
ARRASATE • 943 71 24 72

- CLIO 1.2 75 zp — 9.750 €
  2010 | Gasolina | Zilarra | 18.000 Km
- Renault Clio Gran Tour Dci 90 — 12.950 €
  2011 | Diesela | Urdina | 11.000 Km
- Renault Laguna Dci 130 zp — 14.950 €
  2008 | Diesela | Zilarra | 32.000 Km
- Renault Fulence Dci 105 zp — 16.150 €
  2009 | Diesela | Gorria | 14.000 Km
- Renault Megane Dyn Dci 110 zp — 15.350 €
  2010 | Diesela | Grisa | 25.000 Km
- Renault Megane G.T Dci 110 zp — 20.250 €
  2011 | Diesela | Beltza | 0 Km
- Renault Megane Coupe Dci 130 zp — 17.950 €
  2009 | Diesela | Beltza | 15.000 Km
- Renault Megane Cabrio Tce 130 zp — 20.750 €
  2010 | Gasolina | Txuria | 1.000 Km
- Renault G.Scenic 7 Plazas Dci 130 zp — 18.850 €
  2011 | Diesela | Zilarra | 28.000 Km



10.300 €

> Citröen C3 1.4HDi Attraction
2011 | Diesela | Gris argia | 15.500 km

CHAPIME
CITROËN
Debagoieneko Kontzesionario ofiziala

San andres auzoa 5
ARRASATE • 943 79 45 22

- Citröen Berlingo 1.6 HDI 110 XTR Plus — 14.500 €
  2010 | Diesela | Txuria | 41.820 Km
- Citröen Berlingo 1.6 HDI 90 SXMult — 13.700 €
  2011 | Diesela | Gris argia | 12.991 Km
- Citröen C4 1.6 HDI Cool 110 FAP — 11.000 €
  2010 | Diesela | Beltza | 47.634 Km
- Citröen C4 1.6 HDI Cool CMP 110 — 11.500 €
  2010 | Diesela | Gorri iluna | 36.200 Km
- Citröen C4 G.Picasso 1.6 HDI Seduction CMP 110 — 17.500 €
  2011 | Diesela | Morea | 25.950 Km
- Citröen C5 2.0 HDI Business — 17.300 €
  2010 | Diesela | Gris argia | 34.700 Km
- Citröen C8 2.0 HDI Premier — 18.800 €
  2010 | Diesela | Txuria | 34.000 Km
- Citröen C8 2.0 HDI Seduction — 22.800 €
  2011 | Diesela | Gris iluna | 16.900 Km
- Citröen DS4 1.6 e-HDi Design STT — 21.200 €
  2011 | Diesela | Urdin iluna | 2.000 Km
- Hyundai Trajet 2.0 CRDi — 7.300 €
  2005 | Diesela | Urdin argia | 95.400 Km

Iragarkia jartzeko: **943 25 05 05**


SORTUKO DIRA BESTEAK
XABIER LETE GOGOAN
EÑAUT ELORRIETA
MIKEL URDANGARIN
ALEX SARDUI (GATIBU)
PIER PAUL BERZAITZ
ARANTXA IRAZUSTA
PETTI
AMETS ARZALLUS
ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA
Martxoak 31
19:00etan
Antolatzailea:
Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón
Laguntzaileak:
argia
antza
A&M KULTUR PROMOTORA
619421153
goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA
Sarrera: 15€
Salmenta: leihatila eta
www.kutxasarrerak.net
943 00 12 00
www.kutxa.net

# KULTURA



Bergarako Udal Musika Bandak domekan egingo du kontzertua. | GOIENA

# Lokatzarendako doinua

- Bergarako Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan
- Berezia izango da: Lokatzakoendako ereserkia estreinatuko dute
- Alfredo Gonzalez Chirlaquek egin du ziklismo taldearendako abestia

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Ziklismoa eta musika. Biak elkartuko dira domekan Bergarako Udal Pilotalekuan. Ze lotura duten? Bada, Bergarako Udal Musika Bandako zuzendari Alfredo Gonzalez Chirlaquek Lokatza ziklismo taldeari eskainitako abestia egin du. Lan hori domekan estreinatuko dute, 12:30ean.

Ideia ziklismo taldekoek izan zuten. Taldearen aurkezpenak egiten dituztenetarako eta lasterketak antolatzen dituztenetarako musika izan gura zuten.

**Lasterketa musikatua**

Orain dela hiru bat hilabete jaso zuen Gonzalez Chirlaquek musika egiteko eskaera Mikel Larrañaga ziklismo taldeko presidentearen eskutik. Zer egin zezakeen pentsatzen jarrita, Chirlaquek argi izan zuen abestia ziklismoarekin lotu behar zuela. Horretarako, onena lasterketa baten deskribapena egitea zela pentsatu zuen. "Nire galdera izan zen: zer egin dezaket Lokatzaren inguruan? Nire ideia izan da abestia ziklismoarekin lotzea, lasterketa baten garapena deskribatzea", azaldu du zuzendariak. Hala, lasterketa baten izaten den giroa ekarri gura izan du Chirlaquek abestira: "Hasieran lasterketa aurretiko giroa azaltzen dut, gero lasterketako hasierako zatia, ondoren mendateetako giroa azaltzen dut eta amaiera polka azkar batekin egin dut", dio. Amaierako polka horrekin lasterketa amaieran izaten den esprintea irudikatu gura izan du Gonzalez Chirlaquek. Doinu geldoak eta azkarrak nahasten ditu abestian Chirlaquek: "Tempo ezberdinak erabili ditut", dio.



Alfredo Gonzalez Chirlaque. | GOIENA

Domekan izango da abestiaren estreinaldia: lehenengo aldiz entzungo duteLokatzaren ereserkia, bai Lokatzako kideek eta baita herritarrek ere.

**Instrumentuen garrantzia**

Bandak jokatzeko abestia da Chirlaquek egin duena eta gaineratu du instrumentu guztiek garrantzi bera hartuko dutela.

Larrañaga irrikan dago domekan abestia entzuteko: "Sorpresa izango da; niretako bai, behintzat. Uste dut bandakoez gain ez duela beste inork entzun. Domekan entzungo dugu". Gaineratu du semea daukala bandan, baina ez diola abestiaz ezer esan. Domekan, hortaz, Lokatzako kideak ez dira errepidean ibiliko, Udal Pilotalekuan egongo dira eurendako egindako "ereserkia" entzuten. "Ez dugu aurkezpen berezirik egingo, hasieran joko dugu abestia eta amaieran errepikatu egingo dugu. Hori bai, partitura emango diegu Lokatzakoei", azaldu du Gonzalez Chirlaquek. Zuzendariak berak ere ilusioz dagoela esan digu.

## DOMEKAKO EGITARAUA

Udal Bandaren ohiko egutegian sartzen den kontzertua da domekakoa. Bost lan aurkeztuko dituzte: *Laura* obertura bat da eta *El cinghiale di bronzo* Florentziako eskultura bati eskainitako lana da. Ikusle gazteak joango direla kontuan hartuta, *The Lion King* joko dute.

***Lokatza***
A. Gonzalez Chirlaque

***La princesa amarilla***
C. Saint-Saens

***Laura***
J. Haderman

***El cinghiale di bronzo***
K. Tanaka

***The Lion King***
H.Zimmer



GOIENA

**MIKEL LARRAÑAGA**
LOKATZA TALDEKOA

## "Gure asmoa abestia grabatu eta ondoren karreretan jartzea da"

Lokatza taldeak hartu duen maila kontuan hartuta, taldeko kideek uste dute "ereserki bat" merezi dutela. Domekan estreinatuko den abestia entzuteko irrikan daude.

**Nolatan izan duzue abestia egiteko ideia?**

Hor gauza bat baino gehiago elkartu dira: alde batetik, Bergara nahiko herri musikala da, elkarte batek baino gehiagok daukate ereserkia edo martxa; bestalde, Lokatza elkarte moduan lan ona egiten dabil azkenaldian. Uste dut maila jakin bat lortu dugula eta horrenbeste merezi dugula. Lokatzaren inguruan gabiltzan denok dugu musika-zaletasuna. Hori guztia kontuan hartuta erabaki genuen abestia eskatzea.

**Zuzenean jo zenuten Alfredorengana?**

Bai, elkartean berba egin genuen eta zuzenean jo genuen Alfredorengana, zer egin behar zen jakiteko. Bere esku hartu zuen lana, denbora hartzen zuenean egingo zuela eta abisatuko zigula esan zigun.

**Ekitaldietan jarriko duzue abestia?**

Ez dakigu zer den, ez zenbat irauten duen... Gure asmoa domekan bertan grabatu eta gero karreretan erabiltzea da. Ez dugu nahi partitura hori kutxan gordeta geratzea.

**Izango du letrarik abestiak?**

Ez dugu horri buruz berba egin... gure elkartean badago bertsolari bat; hortaz, ez dugu arazorik izango letra jartzeko. Hala ere, oraindik ez dugunez abestia entzun, ez dakigu nolako musika izango den. Lehenengo, entzun egin beharko dugu, eta gero erabakiko dugu letra jarri edo ez.

**"Entzun ondoren erabakiko dugu letra jarri edo ez"**

**Pablo Navarro** | Rombos Negros taldeko kidea

# "Erakutsi gura dugu punkak aurrera segitzen duela"

Rombos Negros, Subversion X eta Lobos Humanos taldeek kontzertua eskainiko dute gaur Arrasateko gaztetxean, 22:00etan; sarrera 5 euro da



Rombos Negros hirukotea. | ROMBOS NEGROS

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Rombos Negros taldeko gitarra-jole Pablo Navarrok gaurko kontzertuaren berri eman digu. Bergarako taldea disko berria prestatzen dabilela dio, irailerako gertu egongo den lana.

**Parte hartuko duzuen hiru taldeek antolatutako kontzertua da.**

Bai; gaztetxera joan ginen kontzertua egiteko data bat eskatzera. Parte hartuko dugun hiru taldeak Madrilgo VC diskoetxekoak gara. Subversion X taldeak Bilbo inguruan jarri ditu kartelak, guk Gipuzkoan eta Lobos Humanos taldeak Madril inguruan egin du publizitatea.

**Nolako kontzertua izango da?**

Egun garrantzitsua izango da guretako. Erakutsi gura dugu punk musikak aurrera segitzen duela eta, gainera, bilakaera garrantzitsua izan duela. Garai batean punk primitiboa egiten zen, jendeak ez zekien jotzen eta, gainera, baliabide gutxi zegoen. Orain, hori aldatu egin da. Baina punkaren mamia bera da eta, gainera, rockak indarra ematen dio. Nik 15 urte nituenean harrituta ikusten nituen garai hartako punk taldeak; bada, guk orain gauza bera egin behar dugu gaztetxoek punkarekin segi dezaten.

**Rombos Negros taldea noiz eta non sortu zen?**

Gasteizen sortu genuen taldea, orain dela zortzi urte. Hasiera baten, bi taldekide bakarrik ginen, bateria-jolea eta gitarra-jolea. Ondoren, baxu-jole bergararra sartu zen. Azkenean, Bergarara etorri nintzen bizi izatera, eta gaur egun talde osatzen dugun hirurak Bergaran bizi gara.

**"Disko berriko abesti batzuk ere eskainiko ditugu kontzertuan"**

**Disko berriko grabazio lanetan zabiltzate. Noiz izango duzue diskoa kalean?**

Bai, Bergarako estudio batean grabatzen gabiltza lana. *Primero el rock luego la carne* izango da izenburua. Izenak dena dio: garrantzitsua da lehenengo musika bera, sentimendua adieraztea, eta gero etorriko da fama edo dena delakoa. Guk uste dugu irail inguruan argitaratuko duela lana Madrilgo VC etxeak. 11 abestiz osatutako lana izango da.

**Diskoa orain artekoaren jarraipena da?**

Bai; guretako, Rombos Negros gure identitatea da. Izan dugun bilakaeraren erakusle da. Abesti landuagoak egin ditugu eta soinua ere landuagoa da. Esperientzia igarri egien da musika egiterakoan.

**Betiko abestiez gain, gaurko kontzertuan abesti berriak ere eskainiko dituzue?**

Bai,hori da. Kontzertuan disko berriko abestiak ere sartuko ditugu. Gainera, Lobos Humanos taldeak ere disko berriko lanak eskainiko ditu: *Cementerio de animales*. Lan berriarekin buru-belarri dabiltza eta abesti berriak eskainiko dituzte. Subversion X taldeak diskoa aurkeztuko du datorren hilean eta haiek ere lan berriko abestiak ekarriko dituzte gaztetxera.

**Zuzeneko irudiak grabatuko dituzue ikus-entzunezko bat egiteko.**

Bai, talde bakoitzak bere herritik gaztetxerako bidea bideoz grabatuko du eta irudi horiekin ikus-entzunezko bat egingo dugu. Uste dugu hilabete pare batean ikusgai jarriko dugula, Interneten. Emanaldi berezia izango da; izan ere, kazetari bat ikusleei inkestak egiten ibili da zuzenean, eta hori ere sartuko dugu muntaian.

**"Zuzeneko irudiak grabatuko ditugu eta gero muntaia egingo dugu"**

# Javier Gil madrildarraren argazkiak ikusgai Oñatin



*Invisibles* erakusketa zabalduko dute kultura etxean. | JAVIER GIL

A.E. | OÑATI

Ilunpetan argazki taldeak antolatu du argazki erakusketa. Astelehenean zabalduko dute eta apirilaren 2ra arte egongo dira ikusgai kultura etxeko aretoan, 18:00etatik 20:00etara. *Invisibles* da erakusketaren gaia. Javier Gil madrildarrak egindako argazkiak dira. Argazkilaria bera erakusketaren inaugurazio egunean egongo da Oñatin proiektua aurkezten. Thailandiak bizi duen hazkunde geldiezinak sortutako arazoak jasotzen ditu formatu handiko 13 argazkitan Gilek. Aire zabalean aurpegia estalita lan egiten duten langileak ageri dira irudietan; hain zuzen, kutsadura maila handiagatik eta Asian estetikarekiko duten zaletasunagatik estaltzen dute aurpegia maskarekin langile horiek.

# Inoren Ero Ni taldearen txanda datorren eguenean

A.E. | ARRASATE

Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan, Inoren Ero Ni taldeak jardungo du datorren eguenean gaztetxean, 22:00etan. Sarrera 5 euro da.

Bap!! taldearen erراutsetatik jaiotako euskal rockaren palindromo ezagunenak diskoa kaleratu du *Fregoli* izenarekin. Aurreko lanarekin jo ezin izan zutena lan berriarekin jotzera datoz andoaindarrak. Azken orduko aldaketa bat dakarte, gainera: Mikel Pintzak taldea utzi, eta Guantxek (Señor No, Lobo Electrico...) ordezkatu du. Denbora luzez ibili da Guantxe talde berriarekin entseatzen. Okene abeslariaren hitzetan, "free-hardcore-jazz" egiten du Inoren Ero Ni taldeak.

**Martxoa amaitzeko, Sharon**

Datorren astean, berriz, hirukote oñatiarrak eskainiko du kontzertua gaztetxean. *Puntu bakar baten elkartzen diren ertzak* disko berriko abestiak eta betiko abestiak eskainiko ditu Sharon Stoner taldeak Arrasaten. Otsailean argitaratu zuten oñatiarrek diskoa, eta orain aurkezpenekin dabiltza.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



SARRERAK
SORTUKO DIRA BESTEAK Xabier Lete Gogoan kantaldirako sarrerak.



OTARREAK
Astelehenean, erantzun *Debagoiena ezagutzen* galderari eta irabazi JAKIONEKO OTARREAK!



SARRERAK
EUREKA MUSEOA ikusteko gonbidapenak.



SARRERAK
MARKELIÑE taldearen "Hareazko ipuinak" antzezlanerako gonbidapenak.

Zuretako nahi? Adi astelehenean!

goienakluba 2012

Tel.: **943 25 05 05** | e-posta: *kluba@goiena.com* | *goienakluba.com* | Urteko kuota: **50 €.**

# Beste behin ere, metal doinuek hartuko dute Bergarako gaztetxea goizaldera arte

## Leni Metal Fest jaialdia egingo dute zapatuan gaztetxean, 22:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Debagoienean eta Bergaran badaude metal eta heavyzaleak. Horregatik, musika estilo hori indartu eta zaleek euren gustuko musikaz gozatzeko aukera izan dezaten metal jaia antolatu dute. Zapatuan izango da, Leni Metal Fest izenarekin, Bergarako gaztetxean.

Asier Lenisoro dabil jaialdia antolatzen. Orain dela lau urte hasi zen metal festarekin, baina izen horrekin antolatzen den bigarren aldia izango da aurtengoa. Aurtengo edizioa iazkoa bezain gogor eta indartsu dator. Hiru talde igoko dira taula gainera: Dawn of the Maya, OST eta Dark Code bergararrak.

**Bergararrek disko berria**

OST Bermeoko metal-thrash taldeak bosgarren diskoa argitaratu berri du. Lan hori esku artean dutela etorriko dira Bergarara. Indar guztiarekin defendatuko dute *bOST* izeneko diskoa.

Down of the Maya Iruñeko taldea da. Hainbat musikalditan ibilitakoak, Bergarako gaztetxera etorriko dira. Metal-hardcorea indarrez eta bizkortasunez egiten dutela erakutsiko dute.

Azkenik, Bergarako Dark Code taldeak joko du. Bergararrek lehenengo diskoa aurkeztuko dute herritarren aurrean: *Raise of death*. Azkoitiko Matadeixen aurkeztu zuten diskoa bergararrek. Taula gainean ondo moldatzen direla erakutsi dute behin baino gehiagotan. Gazteak dira, baina hainbat lehiaketatan ospea hartu dute: adibidez, Alemaniako Wacken metal jaialdian parte hartutakoak dira: "Madrilen jokatu ziren finalerdiak eta Bartzelonan jokatu zen finala irabazi zuten eta horren bidez txartela lortu zuten Alemanian jotzeko", azaldu du Lenisorok. Gainera, taldeak lan berria salgai jarriko du bihar kartzela zaharrean eskainiko duten kontzertuan. Jaialdia amaitzeko, DJ Lenimetalek musika jarriko du: "Heavy eta metal musika jarriko dut. Gau osoan musika bera entzuteko aukera egongo da", azaldu du. Gaineratu du goizeko ordu txikiak arte iraungo duela festak gaztetxean.



Dark Code taldeak gaztetxean aurkeztuko du lehenengo diskoa. | GOIENA

> ESANAK
>
> **"Heavy eta metal musika gau osoan entzuteko aukera dago"**
>
> **"Lehenengo edizioarekin oso pozik gaude, jende asko etorri zen"**
>
> ASIER LENISORO | ANTOLATZAILEA

**Kanpotik etorriko da jendea**

Lenisoro pozik dago iaz jaialdiak izan zuen harrerarekin: "Oso pozik gaude, jende asko etorri zen eta oso esperientzia ona izan zen". Bihar ere debagoienetik kanpoko jendea etorriko dela espero du: "Orain dela gutxi bazkari bat izan genuen heavy zaleok, 70 bat lagun elkartu ginen". Han esan zioten Bergarako jaialdira etorriko direla: "Bermeo eta Gernika inguruko jendea etorriko da", azaldu du. Metal musika gustuko dutenendako jaialdi aparta izango da.

# Klak!son antzuolarrek 'Zait at Devo City' lana aurkeztuko dute Oñatin

A.E. | OÑATI

Antzuolako Klak!son taldeak Oñatiko Aker tabernan zuzenekoa eskainiko du gaur, 23:00etan hasita. *Zai At Devo City* diskoa iazko azaroaren 25ean kaleratu zuten; orduan, Antzuolako Torresoroan aurkeztu zuten.

*Zai At Devo City* diskoak zazpi abesti biltzen ditu eta taldekideen esanetan disko abstraktua eta poetikoa da. Letrek joko fonetiko polita sortzen dutela gehitu dute. 2008an hasi ziren diskoa prestatzen eta grabazio lanekin, ostera, 2009an hasi ziren DYAren egoitzan duten entsegu lokalean. Grabazio artisanala egin zuten, eta nahasketak eta masterizazio lanak Bartzelonan egin zituzten, Joseba Iturbe *Pit*-ekin. Abestietako letrak Jon Pinillosek egin ditu.



Taldekoak grabazioan. | MYSPACE

**Rock melodikoa**

Rock melodikoa eta psikodelikoa egiten du Klak!son taldeak. Disko berria aurkezten dabiltza han eta hemen azkeneko hilabeteetan. Gaur Oñatin aurkeztuko dute eta hilaren 24an Arrasateko Ekaitz tabernan eskainiko dituzte lan berriko abestiak.

# Folk eta rock doinuak izango dituzte bihar gaztetxean

A.E. | ARRASATE

Arrasateko gaztetxean giro bikaina jarriko dute bihar Bizardunak eta Jon Ulecia & Cantina Bizarro taldeek. 22:30ean hasiko da kontzertua, 5 euroren truke.

Bizardunak talde nafarra bi diskoak esku artean duela etorriko da gaztetxera: *Bizardunak* eta *En zugzwang*. Folk eta rock doinuekin girotuko dute gaua, eta, nola ez, parrandarik ez da falta izango nafarren emanaldian.

Nafarren aurretik, Jon Ulecia & Bizarro taldeak girotuko du zuzenekoa. Iruñeko laukoteak rock-and-rolla egiten du, rock-and-roll klasikoa. Soinu garbia duen taldea da, baina esperimentaziora ere jotzen du hainbat abestitan.

# Rock amerikarra eta ingelesa oinarri duen lana

A.E. | OÑATI

Borja Estankona gitarra-jole eta abeslaria Estankona proiektu berriarekin etorriko da Antton tabernara gaur, 20:00etan. Hiruko formatuan taularatuko dira Estankona taldekoak. Beste bi kideak dira: Jimmy Arrabit (Itoiz, Anje Duhalde) baterian eta Itsaso Etxebeste (Katamalo) baxuan. 2011ko maiatzean argitaratu zuten diskoa eskainiko du hirukoteak.

Estankona proiektua hainbat musika estilotan oinarritzen da, baina taldearen oinarria rock amerikarra eta ingelesa da, malenkonia oinarriak dituena. Abeslariaren ahotsa da beste oinarrietako bat. Hamar abestiz osatutako diskoa aurkeztuko dute.

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN
2012
martxoak 17
apirilak 21
maiatzak 19
ekainak 16
uztailak 21
irailak 15
urriak 20
azaroak 17
Antolatzailea: Arrasateko Udala Ayuntamiento de Mondragón Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizuete.





Laurent Richard, Galdamesko (Bizkaia) Artekona koban, Marlene delako salan.

TEIO FERNANDEZ

**Laurent Richard** | Espeleologoa

# "Gazte edo heldu izan, espeleologia egiteko, gogoa eta konpromisoa beharrezkoak dira "

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE

Aloña Mendi (AMET) eta Besaide espeleologia taldeek *Uraren bideak* delako diapositiba emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Eskoriatzan. Azken bi urteetan egindako lanaren emaitza da. Laurent Richard taldeko kidea da. Emanaldiaz eta espeleologiaz egin dugu berba.

**Zer da *Uraren bideak*?**

Azken bi urteetan egin ditugun ekintzetan lortutako emaitzak erakutsi gura ditugu. Bideoak eta erretratuak erakutsiko ditugu. Urte emankorrak izan dira: ia lau kilometro galeria berri topatu ditugu, hartz baten hezurdura...

**Non egin dituzue aurkikuntzak ?**

Gure ekintzak Oñati, Arrasate eta Aretxabaleta inguruetan egin ditugu. Leku aberatsak dira, eta ezagutu bako toki asko dituzte oraindik.

**Zer egiten duzue espeleologian?**

Lehenengo urratsa lekuak edo gauzak topatzea da; hau da, behatu egiten dugu. Dena den, ez da erraza leku berriak topatzea. Bestalde, aspaldi esploratu ziren zuloetara bueltatzen gara, oraingo teknikekin ea beste zerbait aurkitzen dugun ikustera.

**Sifoietan urpean igeri egiten duzue.**

Espeleologiaren beste urrats bat da. Nik hiru daramatzat urpean igeri egiten. Galeriak esploratzen gaudenean, puntu batera heldu-ta, aurrera egiteko, urpean ibili behar dugu. Bestela, galeria noraino heltzen den edo bestaldean zer dagoen jakin barik geratuko ginateke.

**13 urte daramatzazu espeleologia egiten. Zer dauka?**

Behin probatuz gero, engantxatu egiten du. Espeleologiak alor asko ditu: zientifikoa, kirola arloa, turistikoa, artistikoa eta esplorazioa. Azken horrek engantxatu egin nau: inork zapaldu ez dituen leku berriak aurkitzea. Gainera, askotan, leku horiek etxetik gertu daude. Aizkorri, Kurtzeberri eta Udalatx inguruetan leku asko daude. AMETek eta Besaidek urte emankorrak izan zituzten, eta lan handia egin zuten. Baina, egun dauden teknika berriekin, gauza askoz gehiago aurkitzeko esperantza daukat.

**Kirol fisikoa da?**

Kirola denik ez nuke esango, lehiaketarik ez delako jokatzen. Gainera, ikuskizunik ez dagoenez, dirurik ere ez du ematen, baina gizarteari asko ematen dio espeleologiak: egiten diren ikerketak, aurkikuntzak...

Espeleologian ibiltzeko lan egiteko gogoa eta konpromisoa behar dira, norberak duen adina kontuan izan barik. Gazte edo heldu izan, dedikazioa eskatzen du espeleologiak.

Gero, norberak lortu gura dituen helburuen arabera, fisikoa eta beste arlo batzuk landu behar dira.

**Dedikazioa eta lanerako gogoa aipatu dituzu. Zaila da konprometitutako pertsonak topatzea?**

Espeleologia ez da futbola. AMET eta Besaide taldeetan gazte gutxi gaude. Ikasketek eta lanak ordu asko hartzen diete gazteei, eta, aisialdian galeria baten sartzeko, lanerako gogo handia izan behar da. Oñatiko eta Arrasateko espeleologia taldeetan dauden kideek lan handia egin dute, eta egiten dute. Egia esan, jende berria eskertuko genuke. Norbait animatzen bada...

**Zuk lan egiten duzu, baina badaukazu denbora espeleologiarako.**

Bai, eta denbora daukat Eskoriatzako saskibaloi taldea entrenatzeko ere. Neskak entrenatzeko engainatu ninduten. [Barre]. Egia esan, saskibaloia gustuko dut, eta oraindik ordu batzuk libre ditut astean zehar.

**Frantziarra zara eta Eskoriatzako baserri batean bizi zara. Konbinazio bitxia.**

Grenoble aldekoa naiz, Alpeen inguruan bizi nintzen, eta, Debagoienera heldu nintzenean, aproposa iruditu zitzaidan baserri baten bizi izatea. Oso gustura nago.

**Espeleologiaren kontura, asko bidaiatu duzu?**

Mexikon, Georgian, Kretan, Laosen egon naiz... baina orain etxe inguruan nabil.

## PERTSONALA

**Zure herriko txoko maiteena:** Eskoriatzako Mirandaola auzoa.

**Amets bat:** Esploratzen dugun galeriaren batean marrazki errupestreak topatzea.

**Espeleologia egiteko leku bat:** Iparraldeko hainbat leku eta Urkulu inguruan dagoen Arbe harana.

**Bidaitzeko leku bat:** Kretako irla. Konbinazio polita dauka: itsasoa eta 2.000 metroko mendiak oso gertu. Paisaia zoragarriak ditu.

**Pelikula bat:** Luc Bessonek zuzendutako *El gran azul.* Itsasoa da protagonista pelikulan.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Etxe bakarra salgai. 8.000 metro koadroko lursailarekin. Lorategi, ortu eta fruta -arbolekin. Oso prezio onean. 636 94 81 31

**Arrasate.** Aukera paregabea. 204.000 euro. Eguzki dorrean etxebizitza salgai. Eraberritua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua. Denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. Deitu 650 01 05 15 zenbakira.

**Arrasate.** Zigarrola auzoan etxebizitza salgai. 72 metro kuadro. Lau logela, sukaldea, jangela-egongela, komuna eta balkoia. Eguzkitsua. Deitu eta ikusi konpromiso barik. 140.000 euro. Negoziagarriak. Deitu 688 60 73 79 telefonora.

**Eskoriatza.** Apartamentua salgai Gaztanadui kalean. Aukera paregabea. Berri-berria, eguzkitsua eta oso erosoa. Deitu telefono hauetara: 653 71 53 58 edo 943 03 89 49

**Eskoriatza.** Erdigunean etxebizitza ia berria salgai. 102 metro koadrokoa. Duplexa. Bi logela, ikasteko gela, bi komun, sukaldea, eta egongela handia. Garajea eta trastelekua. Beherapen oso handiarekin. 245.000 euro. Interesatuok deitu telefono hauetara: 675 71 16 93 edo 688 67 63 96

**Soraluze.** Etxebizitza salgai. Hiru logelakoa. Terraza handiarekin. 608 57 37 50

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Erdigunean estudio txikia ematen da errentan, emakumezko batentzat. 616 75 41 30

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan Durana kalean. Hiru logela, sukalde-egongela eta komuna. 658 70 44 62

**Arrasate.** 80 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Bi logelakoa. Berriztua. 659 59 71 21

**Bergara.** 90 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Bi plazako garaje itxiarekin. 618 62 79 89 edo 663 86 11 37

**Bergara.** Erdigunean 72 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. Eguzkitsua. 606 65 58 08 edo 660 04 25 25

**Bergara.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. Berokuntzarekin. Jantzia. 649 56 34 92

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Espoloian. Hiru logelakoa. Komun bat. Berriztua. 600 euro hilean. 655 74 69 44 edo 943 76 29 91

**Oñati.** Kurtzebide 1C atartean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta bi bainugela. Igogailuarekin. Etxe berria. Jantzia. 615 73 29 83

**Oñati.** Plazatik oso hurbil etxebizitza ematen da errentan. Etxe berria, igogailuarekin eta dena jantzia. Lau logela eta bi bainugela. 659 64 39 63

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa. Partikular artekoa. 634 12 56 87

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelakoa. Balkoi edo terrazaduna, nahiago. Hilean 600 euro ordain ditzaket. Andrea. 617 28 08 07

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola.** Baserri baten logela ematen da errentan, sukaldea eta komuna erabiltzeko aukerarekin. 679 34 00 45

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Kontratuarekin. 678 73 66 54

**Arrasate.** 36 urte neska pertsona baten bila etxebizitza osatzeko. 680 74 67 80

**Arrasate.** Pertsona bat behar da Erguin aldean etxebizitza osatzeko. Ignacio. 670 59 73 62

**Bergara.** Logela ematen da errentan etxebizitza osatzeko. Erdigunean. 608 17 77 55

**Bergara.** Logela ematen da errentan gela komunak erabiltzeko aukerarekin. Prezio onean. Erdigunean, toki egokian. 655 71 41 24

### 106. BESTELAKOAK

**Trukea.** Saloun (Pineda) daukadan etxebizitza trukatuko nuke Arrasateko etxebizitza bategatik. Erdi berria. Urbanizazio pribatua. Hondartzatik 300 metrora. 943 79 45 74

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** 15 metro koadroko garaje itxia salgai Espoloian. 20.000 euro. Deitu 19:30etatik 22:00etara zenbaki honetara: 606 74 15 32

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garaje bat errentan hartuko nuke Oñatiko Bidebarrieta kalean. 626 59 91 86

## 3. LOKALAK

### 302. EROSI

**Bergara.** Lokal bila gabiltza San Lorentzo edo Matxiategi kaleetan. 50 metro koadrotik gorakoa. 654 35 50 16

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ANTZUOLA**
Ile-apaintzailea behar da.
943 76 63 33

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta edo Arrasate.** Haur Hezkuntza ikasi duen 22 urteko neska haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Goizez edo arratsaldez. 688 88 39 57

**Aretxabaleta.** Emakume euskalduna umeak edota pertsona nagusiak zaintzeko prest. 666 26 07 62

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu plantxa edo etxeko garbitasunak egiteko. 699 54 17 27

**Arrasate.** Eskarmentudun gidaria lanerako gertu. B, D, D1 eta BTP baimenak ditut. Mudantzatan laguntzen ere bai. Nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko gertu. Gurutze Gorriaren titulua daukat. 698 59 37 57

**Arrasate.** Neska gertu ospitalean gauak egiteko, garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko. Egoitzatan eskarmentua dut. 693 40 88 86

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

**Bergara eta Arrasate.** Nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke, baita garbitasuna lanak egiten ere. Ordutegia: 16:00etatik 21:30era. Esperientzia eta erreferentziak. 677 81 10 00

**Bergara.** Goizez lan egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbiketak egiten. 680 77 06 46

**Debagoiena.** 10 urte baino gehiagoko esperientziadun lehen mailako igeltserua lanerako prest, alikatatu eta pladur ezagutza maila handia. Eusebio. 633 68 89 23

**Debagoiena.** Emakume arduratsua garbiketa lanak egin (etxebizitzak, bulegoak, eskailerak..) eta pertsona nagusiak saintzeko prest. 671 98 94 34

**Debagoiena.** Erizaintza laguntzaile tituludun bikotea, baserrietan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Bertan bizitzeko aukera. 697 35 62 49

**Debagoiena.** Esperientzadun gizona artzai lanetarako eta baserriko mantentze lanak egiteko eskaintzen da. Ezagutza traktore eta bestelako makinari manejuan. Eusebio. 633 68 89 23

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zubiaurre 82 m². Igogailua eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailua eta berogailuarekin. Prezio ona.
- Masterreka 70 m². 2 logela. Igogailua eta garajearekin.
- Zabalotegi 55 m². Balkoia eta trastelekuarekin. Prezio jeitsierarekin. 114.192 €.
- Artekale 70 m². 2 logela. Berogailuarekin. 123.707 €.
- Justo Garate Plaza. 80 m². 3 logela. Ia berria. Garajea aukeran.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berriztua. Oso ondo. 144.243€.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin. Aukera ona. 234.395 €.
- San Lorenzo 80 m². 3 logela. Garajearekin. 228.384 €.
- Simon Arrieta 80 m². 2 logela. Balkoia, igogailua, berogailu eta trastelekuarekin. 210.354 €.
- Zubiaurre 51 m². 102.000 €.
- Herri Lagunak 60 m². 2 logela. Oso ondo. 160.771 €.
- Zabalotegi 54 m². Balkoiarekin. 96.000 €.
- San Pedro 65 m². 2 logela. Erabat berriztuta. Kamarotearekin. 122.606€.
- Burdiñate. 104 m². Garajearekin. Oso prezio ona.
- Martoko 70 m². 2 logela. 110.000€.
- Bolu 140 m² duplexa. Terraza eta garajearekin. Aukera ona.
- Ibargarai 74 m². Igogailua eta garajearekin.
- Burdiñate 53 m². Apartamentua, oso ondo.
- Bidekurutzetan 60 m² obra egiteko. Oso prezio ona.
- Zubieta 240 m², ortuarekin.
- Urteagan pisuak estrenatzeko. 195.000 €.
- Bidekurutzetan pisuak estrenatzeko. 1,2,3 eta 4 logela. Aukera ona.
- Masterreka 104 m². 3 logela. Estrenatzeko. Trastelekuarekin. 294.495€.
- Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona.
- Lorentxokon pisuak estrenatzeko. 3 eta 4 logelatakoak. AUKERA ONA.

**Antzuola:**
- Baserria 200 m². 3 logela. Berria. Garajea. Lur sailarekin.
- Buztinzurin apartamentua estrenatzeko. Aukera ona.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

**Soraluze:**
Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**Elgeta:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.

**Debagoiena.** Gela-zerbitzari tituludun emakumea hotel eta ostatuetan lan egiteko prest. Esperientziaduna.Deitu 671 98 94 34 telefonora.

**Debagoiena.** Gizon arduratsua, pladur montatzaile laguntzaile bezala lan egiteko prest. Esperientziduna. 677 62 22 21

**Debagoiena.** Neska euskalduna eta esperientziaduna goizetan haurrak zaintzeko prest. Deitu 685 76 91 11 telefonora.

**Debagoiena.** Neska arduratsua umeak zaindu, orduka garbiketak egin edo nagusiak zaindu zein paseoan laguntzeko. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

**Debagoiena.** 25 urteko gaztea arotz lanak edo margoketa lanak egiteko prest, prezio onean. 603 61 61 38

**Debagoiena.** Erizaintzako laguntzaile tituludun gizon esperientziduna, pertsona nagusiak atenditzeko prest, baita ospitaletan gauak pasatzeko ere. 697 35 62 49

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumezko batek, nagusiak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzte. Deitu 650 17 74 87 edo 943 76 48 26 telefono zenbakietara . Maite.

**Debagoiena.** Garbiketak egiten, nagusi zein umeak zaintzen edo sukaldari lanetan jardungo nuke. Elikagaiak erabiltzeko agiria daukat. Roxana. Deitu 634 40 64 65 telefonora.

**Debagoiena.** Igeltsero edo konpontze lanak egingo nituzke. Baita sukalde laguntzaile ere. Rolando. Deitu 639 41 68 38 edo 943 70 79 82 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Lan egingo nuke elkarte, etxe, atari eta abarrak garbitzen. Baita nagusiak zaintzen ere. Deitu 678 80 96 01 telefono zenbakira

**Debagoiena.** Mutila gertu sukalde laguntzaile edo sukaldari bezala lan egiteko. Baita garbiketak egiteko ere. Sukaldean 8 urteko eskarmentua. 634 41 90 51

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari lanak egiteko, eta garbiketa edo bestelakoetan jarduteko. 671 84 71 71

**Debagoiena.** Mutila prest garbiketa lanak egiteko edota adinezko pertsonak zaintzeko. 680 95 65 57

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Baita garbitasun lanetan ere. Egunez, gauez edo ospitalean ere bai. Angela. 659 57 93 89

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Baita garbitasun lanetan ere. Egunez, gauez edo ospitalean ere bai. Elena. 627 6049 99

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo denetariko garbitasun lanetan jardungo nuke: atari, elkarte, taberna eta abarrak. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Deitu 682 31 97 37 telefonora.

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Erizain laguntzaile titulua daukat. Bestelako lanak ere egingo nituzke. 689 18 04 12

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Legezko paperak ditut. 638 59 04 71

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak lagundu eta zaintzeko. Deitu 628 52 74 68 edo 943 53 49 71 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Neska euskalduna umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. Informeak ditut. Disponibilitate osoa. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanak, nagusiak zaintzen, sukalde lanetan eta abarrean lan egiteko. Deitu 610 99 70 46 telefonora.

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka, egun osoz, asteburu, gau zein etxean bertan bizi izaten. Erreferentzia onak. Berehala hasteko moduan. Deitu 638 93 11 48 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko, baita etxean bertan bizi izaten ere. Umeak ere zainduko nituzke edo garbiketa lanak egin. Baserrietan ere bai. 669 10 13 94

**Debagoiena.** Neska prest garbiketa lanak egiteko eta baita ere haurrak edo adinezko pertsonak zaintzeko. Deitu 618 04 15 45 telefonora.

**Debagoiena.** Orduka zein asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. 659 90 85 13

**Debagoiena.** Webguneak diseinatzen lan egingo nuke. Sandra. 618 04 15 45

**Esperientziaduna lan bila.** Neska euskalduna naiz. Esperientzia daukat ostalaritzan, ume zaintzan eta etxeko lana egiten. Harremanetarako deitu telefono honetara: 615 72 72 86

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana.** Perfilatua. Citroen Jumper Moncayo Halcon 455 hdi 130 cv. Beti garajean. 55.000 km. Matricula: 2674 CRD.4 bidaiari. Airbaga gidariarentzat. Telebista estrenatu gabea. Antena parabolikoa. Atzeko kamera. Alarma. Eguzki plakak. Motorra eramatekoa. Lau bizikleta eramatekoa. Ordenagailua. Toldoa. Gurpil berriak. Tapizeria estrenatzeko. Extrak. 653 73 08 04

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Astoak.** Zazpi asto gazte, emeak, salgai. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 635 73 35 15

### 703. EMAN

**Spaniel Breton txakurra.** Emea. Usaimen oso onekoa. Bi urte dauzka. Txerto, txip eta paper guztiak dauzka. Diana izenekoa. Zuri beltza. Leku faltagatik ematen dugu. 945 44 54 62 edo 651 94 96 72

**Txakurkumeak.** Hilabeteko txakurkuma elegantiak opari. 690 79 78 00

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Baserritar jantzia.** Mutikoarendako baserritar jantzia salgai. 1-4 urte bitarteko umearentzat. Praka, alkandora, blusoia, txapela, galtzerdiak eta abarkak. 50 euro. 653 72 22 54 edo marysea15@hotmail.com

**Baxuarendako anplifikagailuak.** Bi anplifikagailu. Peavey eta Academy etxekoak. Prezio oso onean. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 652 71 38 28

**Berogailu ekologikoa.** Pelet sistema darabilen berogailu ekologikoa salgai, egoera onean. Interesa izanez gero idatzi mitartegarai@euskalnet.net helbidera edo deitu zenbaki honetara: 943 79 17 51

**Chaise Longueak.** Banakako 2 chaise longue. Beltzak. Tamaina ezberdinak. Leku faltagatik saltzen dira. Berriak. Prezio interesgarria. 635 71 80 28

**Gimnasiorako bonoa.** Bi bono saltzen dira Arrasaten. 17 hilabeterako. Egunero joan zaitezke, astelehenetik larunbatera, eta edozein eskolatara. 320 euro bakoitza. 607 06 22 20 edo anunciointer@yahoo.es

**Kristalezko mahaia.** Bulegorako kristal eta altzairuzko mahaia salgai. 160x78x76 neurrikoa. Egitura altzairu eta kristal tenporizatuzkoa. Deitu 619 87 95 57 zenbakira.

**Ohe egiten den sofa.** Bi lagunentzat ohe egiten sofa. Ikea PS Lovas markakoa, beltza arraia zuriekin (koltxoia barne). 160x205cm. Berria. Leku faltagatik saltzen da. Prezio interesgarria. 635 71 80 28

**Panteoia.** Panteoia saltzen da Arrasateko hilerrian. Lau leku dauzka. Erabili gabea. 685 77 66 63

**Puff-a.** Pistatxo koloreko puff-a (materiala: polipiel). Leku faltagatik saltzen da. Berria. Prezio interesgarria. 635 71 80 28

**Trabesiako botak.** Trabesiako eski botak salgai. Dynafit ZZERO3 modeloa, 28 neurria (43), laranja kolorekoa. 2 urte pasatxo. 160 euro. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 670 48 91 49

### 802. EROSI

**Lursaila.** Lursaila erosiko nuke Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619 87 95 57

**Sevillana soinekoa.** Sevillana soineko bat erosiko nuke, hau probatzeko aukera izanda. Bidali argazki eta prezioa mesedez: alazne.pst@gmail.com.

**Sofak eta mahaia.** Hiru plazako sofa bat, plaza bakarreko bi eta egurrezko mahia salgai. Denak errustikoak. Egoera onean. 300 €. 943 77 08 49

**Txanponak.** Zilarrezko eta urrezko txanponak erosiko nituzke. 656 75 76 98

### 806. GALDU

**Argazki kamera Gorbeian.** Otsailaren 18an, zapatua, Gorbeia menditik jaistean argazki kamera digitala galdu nuen. Argazki garrantzitsuak nituen. Norbaitek topatu badu deitu mesedez telefono honetara: 686 65 98 08

**Belarritakoa.** Aretxabaletako Errekabarren eta Durana kaleen artean galdu nuen urrezko belarritakoa otsailaren 13an. Sarituko da. 628 89 30 68

**Betaurreko graduatuak.** Aretxabaletan galdu nituen, Aratuste-domekan. Aurkitu dituenak dei egin dezala, mesedez. 628 69 93 82

**Eskumuturrekoa Bergaran.** Ibargarai kalean martxoaren 11n zilarrezko eskumuturrekoa galdu nuen. Eskertuko nuke norbaitek aurkitu badu deitzea: 943 76 70 95 edo 661 10 29 66

**Kirol praka Bergaran.** Kirol praka beltza, berria, galdu nuen Matxiategiko 30 eta 32 atarteen artean, otsail hasieran. Aurkitu baduzu deitu mesedez. 943 76 41 31

**Umearen txamarra.** Aretxabaletan, Aratuste-domeka arratsaldean galdu nuen. Marroia da, Quiksilver etxekoa eta 4 tailakoa. 659 35 89 92

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasatetik Donostiara autoan.** Egunero Arrasatetik Donostiara joateko autoa partekatzeko jende bila nabil. Arrasatetik 7:15ean irtetzen naiz eta Donostiatik 17:30etan, gutxi gora behera. Deitu 669 13 20 08 telefonora eta Imanolengatik galdetu.

## ASTEA GOIENAN


OLAIARENERRONKA.NET

### 'Ekogune' programa berria estreinatuko dugu

Martitzenean ikusgai izango den saio berrian, *Olaiaren erronka* ezagutuko dugu erreportaje baten bitartez eta Uraren Nazioarteko Eguna dela-eta elkarrizketa bat ere egingo du Julen Iriondo aurkezleak.

**'Ekogune'**
Martitzena, 22:23


GOIENA

### Aretxabaletako alkatea izango dugu 'Harira'-n

Datorren asteko *Harira* saioan Aretxabaletako alkate Ana Bolinaga elkarrizketatuko du Eneko Azkarate aurkezleak. Herriko kontuak izango dituzte hizpide eta ikus-entzuleek parte hartzeko aukera izango dute.

**'Harira'**
Martitzena, 21:23

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 16**
**12:30** Magazinea
**13:15** Gipuzkoa kultura
**13:45** Walker
**14:12** Onein
**14:35** Planik bai?
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:15** Planik bai?
**15:25** Bizitegia
**15:55** Berbaz
**16:55** Berriak
**17:20** Eguraldia
**17:25** Planik bai?
**17:35** 28.Klip
**18:01** Harira
**18:56** Berbetan
**19:32** Planik bai?
**19:42** Berriak
**20:07** Eguraldia
**20:12** Planik bai?
**20:22** Harira
**21:22** Berriak
**21:47** Eguraldia
**21:52** Planik bai?
**22:02** AsteON
**22:32** Tertulia

**ZAPATUA, 17**
**10:00** Ipupomamua
**10:26** 28.Klip
**10:56** Planik bai?
**11:06** AsteON
**11:36** Mendialdean bizi
**12:01** Bizitegia
**12:31** Ur eta lur
**13:01** Onein
**13:23** Berriak
**13:38** Magazinea
**14:38** Gipuzkoa kultura
**15:08** Harira
**16:08** Planik bai?
**16:18** Berriak
**16:33** Onein
**16:56** Tertulia
**18:26** Gipuzkoa kultura
**18:56** GCC
**19:22** Altxor Txokoa
**19:56** Berbaz
**20:56** Beranduegi.tv
**21:11** Magazinea
**22:11** Planik bai?
**22:21** Harira
**23:21** Gipuzkoa kultura
**23:51** AsteON

**DOMEKA, 18**
**10:00** GCC
**10:26** Ipupomamua
**10:56** Onein
**11:31** Magazinea
**12:31** Bizitegia
**12:56** Berriak
**13:11** Mendialdean bizi
**13:41** Onein
**14:04** Gipuzkoa kultura
**14:34** Berbaz
**15:34** Erreportajea: Gabiriako Rallya
**16:00** Berriak
**16:15** AsteON
**16:41** Gipuzkoa kultura
**17:11** Berriak
**17:26** Magazinea
**18:26** Harira
**19:26** Beranduegi.tv
**19:41** Magazinea
**20:41** GCC
**21:07** Berriak
**21:22** Tertulia
**22:52** Bizitegia
**23:22** Magazinea
**00:11** Eguraldia

**ASTELEHENA, 19**
**12:30** Magazinea
**13:30** Onein
**13:52** Altxor Txokoa
**14:26** Beranduegi.tv
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:10** Ur eta lur
**15:50** GCC
**16:16** Erreportajea
**16:42** Berriak
**17:02** Eguraldia
**17:07** Walker
**17:37** Onein
**18:01** Berbaz
**19:06** Ikusmira
**19:21** AsteON
**19:51** Berriak
**20:11** Eguraldia
**20:16** Magazinea
**21:01** Berriak
**21:26** Eguraldia
**21:31** Harmailatik
**22:16** Magazinea
**23:01** Harmailatik
**23:46** Berriak
**00:03** Eguraldia

**MARTITZENA, 20**
**12:30** Magazinea
**13:15** Harmailatik
**14:00** Beranduegi.tv
**14:18** AsteON
**14:43** Berriak
**15:03** Eguraldia
**15:08** Beranduegi.tv
**15:25** Harmailatik
**16:10** Onein
**16:45** Berriak
**17:10** Eguraldia
**17:15** Bizitegia
**17:45** Harmailatik
**18:30** Altxor Txokoa
**19:03** Goierri Creation Center
**19:29** Beranduegi.tv
**19:48** Berriak
**20:08** Eguraldia
**20:13** Magazinea
**20:58** Berriak
**21:18** Eguraldia
**21:23** Harira
**22:23** Ekogune
**22:53** Magazinea
**23:38** Berriak

**EGUAZTENA, 21**
**12:15** Magazinea
**13:00** Harira
**14:00** Beranduegi.tv
**14:18** Ekogune
**14:48** Berriak
**15:08** Eguraldia
**15:13** Gipuzkoa kultura
**15:43** Onein
**16:06** Berbetan
**16:42** Berriak
**17:02** Eguraldia
**17:07** Mendialdean bizi
**17:35** Harmailatik
**18:20** Tertulia
**19:50** Berriak
**20:10** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Berriak
**21:25** Eguraldia
**21:30** AsteON
**22:00** Magazinea
**22:45** GCC
**23:15** Berriak
**23:40** Eguraldia
**00:02** Eguraldia
**00:07** Planik bai?

**EGUENA, 22**
**12:30** Magazinea
**13:15** Onein
**13:37** Ikusmira
**13:52** Harira
**14:52** Berriak
**15:12** Eguraldia
**15:17** Bizitegia
**15:42** Berbaz
**16:45** Berriak
**17:05** Eguraldia
**17:10** Mendialdean bizi
**17:36** Beranduegi.tv
**17:54** Ikusmira
**18:09** Altxor Txokoa
**18:41** Ur eta lur
**19:16** Ekogune
**19:46** Berriak
**20:06** Eguraldia
**20:11** Planik bai?
**20:21** Magazinea
**21:06** Berriak
**21:31** Eguraldia
**21:36** Planik bai?
**21:46** Ekogune
**22:12** Planik bai?
**22:22** Gipuzkoa kultura
**22:52** Magazinea
**23:37** Berriak
**00:21** Eguraldia
**00:26** Planik bai?

## ARRASATE IRRATIA

### 'Hareazko ipuinak' haurren antzerkirako sarrerak zozketan

Markeliñe taldearen *Hareazko ipuinak* antzerkia izango da Amaia antzokian, eta bertara joateko sarrerak dauzkagu zozketan. Parte hartu 943 25 05 05 telefonora deituta, *irratia@goiena.com*-era idatzita edo *#arrasategoiena* jarrita.

### Arrasateko alkateak telebistan esandakoak, 107.7an

*Harira* izeneko saioan izan zen aurreko astean Inazio Azkarragaurizar Arrasateko alkatea. Bertan esandakoak entzungai izango dituzue irratian *Asteko gainbegiratua*-n zapatuan eta domekan, 10:00etan, 107.7an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 17** | ETXEBERRIA | Zarugalde, 42, 44 | 943 77 16 30 |
| **Domeka, 18** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| **Astelehena, 19** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| **Martitzena, 20** | CORCUERA | Aranbarri plaza, 1 | 943 79 22 26 |
| **Eguaztena, 21** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Eguena, 22** | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Egubakoitza, 23** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 17** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Domeka, 18** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Astelehena, 19** | ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| **Martitzena, 20** | MOZOS | Iparragirre | 943 76 12 15 |
| **Eguaztena, 21** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguena, 22** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Egubakoitza, 23** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 17** | IGARTUA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Domeka, 18** | IGARTUA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Astelehena, 19** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Martitzena, 20** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguaztena, 21** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguena, 22** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Egubakoitza, 23** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA / ESKORIATZA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 17** | FERNANDEZ | Gorosarri plaza, 1 (Esk.) | 943 71 48 28 |
| **Domeka, 18** | FERNANDEZ | Gorosarri plaza, 1 (Esk.) | 943 71 48 28 |
| **Astelehena, 19** | ANITUA | Belorrieta, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |
| **Martitzena, 20** | ANITUA | Belorrieta, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |
| **Eguaztena, 21** | ANITUA | Belorrieta, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |
| **Eguena, 22** | ANITUA | Belorrieta, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |
| **Egubakoitza, 23** | ANITUA | Belorrieta, 1 (Are.) | 943 08 11 43 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2012 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA


**Max.** 20º
**Min.** 7º

**ZAPATUA, 17**
Goizean zehar hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira zapatuan. Arratsaldean hodeiak ugaritu egingo dira.


**Max.** 19º
**Min.** 6º

**DOMEKA, 18**
Eguraldiak okerrera egingo du. Han-hemenka zaparradak bota ditzake eta hodei ugari izango dira zeruan.

## HILDAKOAK

**Felipe Zabala Errasti.**
Arrasaten, martxoaren 8an. 87 urte.
**Paco Mentxaka Mancebo.**
Arrasaten, martxoaren 9an. 83 urte.
**Herminia Valle Avis.**
Arrasaten, martxoaren 9an. 81 urte.
**Marcelina de Jesus Mauro.**
Bergaran, martxoaren 9an. 91 urte.
**M. Felisa Goenaga Eizmendi.**
Arrasaten, martxoaren 10ean. 93 urte.
**Benita Etxebarria Ugarte.**
Aramaion, martxoaren 10ean. 90 ute.
**Jose Garro Abarrategi.**
Eskoriatzan, martxoaren 11n. 84 urte.
**Petra Jausoro Aperribai.**
Aretxabaletan, martxoaren 11n. 85 urte.
**Luis Jose Intxausti Goikoetxea.**
Bergaran, martxoaren11n. 64 urte.
**Jose Unzueta Arteaga.** Bergaran, martxoaren 12an. 85 urte.
**Eusebia Errazkin Agirre.**
Arrasaten, martxoaren 13an. 85 urte.
**Carmen Calvo Lizarraga.**
Arrasaten, martxoaren 13an. 81 urte.
**Pedro Sein Oliden.**
Arrasaten, martxoaren 13an. 71 urte.
**Jose Blanco Andres.**
Bergaran, martxoaren 14an. 89 urte.

## URTEURRENA



### Teodoro Zubizarreta Azkarate

'Tololo'

2011ko martxoaren 4an hil zen, 83 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoaren 18an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

**Elizkizunera joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

## URTEURRENA





### Jose M. Guridi Arregui

2011ko martxoaren 16an hil zen, 79 urte zituela.

*Beti egongo zara gure bihotzetan*

—

Lehen urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 17an,
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian izango da.

**Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**



## Osvaldo eta Inma

Osvaldo Tello eta Inma Esnaola martxoaren 17an ezkonduko dira: "Plaentziako koadrila osoaren partetik, Osvaldo eta Inma zoriondu nahiko genituzke, martxoaren 17an ezkonduko dira-eta. Egun zoragarria pasa dezatela eta bizitzako garai berri honetan gauza guztiak ondo irten daitezela, hori opa diegu".




## Liher eta Oihana

Liher Gracia eta Oihana Ezkurra Arrasateko udaletxean ezkonduko dira martxoaren 17an. Zorionak, bikote. Oso ondo pasatu eguna, familiaren eta lagunen partetik.

---

ESKER ONA

## Braulio Zubia Zubia



2012ko martxoaren 6an hil zen, 99 urte zituela.

Samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

—

*Atxian putxian, perolin pan*
*nere semia errotan*
*errotatxuan klin-klan.*

**Oñatin, 2012ko martxoaren 16an.**

---

ESKER ONA

## Petra Jausoro Aperribai



Txomin Ezkurraren alarguna

Aretxabaletan hil zen 2012ko martxoaren 11n, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidai dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Aretxabaletan, 2012ko martxoaren 16an.**

---

ESKER ONA

## Gloria Aguirrebeña Lizarazu



Bergaran hil zen 2012ko otsailaren 29an, 99 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurra bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Bergaran, 2012ko martxoaren 16an.**

---

ESKER ONA

## Jose Garro Abarrategui



Eskoriatzan hil zen 2012ko martxoaren 11n, 84 urte zituela.

Lerro hauen bidez Joseren senideek
eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz
bihotzez horrenbeste eratan maitasuna
eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

**Eskoriatzan, 2012ko martxoaren 16an.**

---

ESKER ONA

## Jose Unzueta Arteaga



'Txintxur'

Bergaran hil zen 2012ko martxoaren 12an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorri zaretenoi
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko familiaren partetik.

**Bergaran, 2012ko martxoaren 16an.**

---

ESKER ONA

## Paco Mentxaka Mancebo



Pastora Agirreurretaren alarguna

Arrasaten hil zen 2012ko martxoaren 9an, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Arrasaten, 2012ko martxoaren 16an.**

---

URTEURRENA

## Felisa Pedrejon Balbas



Liborio Mujikaren alarguna

2011ko martxoaren 21ean hil zen, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoaren 18an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

**Elizkizunera joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

---

OROIGARRIA

## Jose Unzueta Arteaga



'Txintxur'

Bergaran hil zen 2012ko martxoaren12an, 85 urte zituela.

*Beti gure bihotzean egongo zara.*

**Eudiko loibak maitasunez.
Bergaran, 2012ko martxoaren 16an.**

---

OROIGARRIA

## Joaquin Ibabe Orueta



1933/8/16 - 2011/03/21

*Ondion ez gara ahaztu zurekin ikasitakoekin.*

**Etxekoak.
Arrasaten, 2012ko martxoaren 16an.**

---

URTEURRENA

## Jesus Ezkurra Murua



Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 18an,
12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian izango da.

—

*Zure irrifarra eta maitasuna,*
*betirako gurekin geratu dira.*
*Sekula ez zaitugu ahaztuko, aititi.*

**Elizkizunera joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

---

OROIGARRIA

## Jose Unzueta Arteaga



'Txintxur'

Bergaran hil zen 2012ko martxoaren12an, 85 urte zituela.

*Zu zerura piztera jun zan*
*izarrai begira egongo ga, aittitte.*

**Zure poittek: Naia, Maialen, Lur eta Ekia.
Bergaran, 2012ko martxoaren 16an.**

---

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: *euskalduna@harrespil.net*

**ARRASATE Fight to Life**
Bi talde gaztek, biak hardcorearen bueltan, diskoak aurkeztuko dituzte zapatuan. Fight to Life arrasatearrak dira eta orain dela gutxi atera zuten diskoa kalera. No Hope, ostera, aretxabaletarrak dira eta laster kaleratuko dute lana. Jaialdia Arrasateko Orhipean kultura eragile taldeak antolatu du.
Bihar, zapatua, Irati tabernan, 18:00etan.


ARTXIBOA


ROMBOS NEGROS

**ARRASATE Subversion X, Lobos Humanos eta Rombos Negros**
Punk jaialdia gaur Arrasateko gaztetxean. Gasteiztik bi talde etorriko dira: Rombos Negros eta Lobos Humanos. Eta Santurtzitik, ostera, Subversion X taldea etorriko da punk musikaz jositako jaialdira.
Gaur, gaztetxean, 22:00etan.

# NON-ZER

MARTXOA 16
MARTXOA 22

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

## MUSIKA

**BERGARA Leni Metal Fest jaialdia**
Leni Metal Fest jaialdiaren bigarren edizioa aurrekoa bezain gogor eta indartsu dator aurten ere. Dawn of the Maya, OST eta Dark Coderen kontzertuez gain, Leni Metal bera ariko da musika jartzen kontzertuen ondoren. Sarrera 5 eurotan izango da.
Martxoaren 17a, zapatua, Bergarako gaztetxean, 22:30ean.

**ARRASATE Bizardunak eta Jon Ulecia & Cantina Bizarro**
Bizardunak talde nafarrak emanaldia egingo du gaztetxean bere bi lanak aurkezteko. Horiekin batera, Jon Ulecia & Cantina Bizarro iruindarrek eskainiko digute euren zuzenekoa. Sarrera 5 euro.
Martxoaren 17a, zapatua, gaztetxean 22:00etan.

**ARRASATE Fight to Life eta No Hope taldeak**
Orhipean Kultur Eragintza taldeak antolatuta kontzertuak egongo dira Arrasateko Irati tabernan, Fight to Life arrasatearren eta No Hope aretxabaletarren eskutik. Fight to Life talde gazteak argitaratu berri duen diskoa aurkeztuko du eta No Hope taldeak, ostera, laster aterako duen diskoko abestiak eskainiko ditu.
Martxoaren 17a, zapatua, Irati tabernan, 18:00etan.

**OÑATI Klak!son taldearen emanaldia**
Antzuolako Klak!son musika taldeak disko berria aurkeztuko du Aker tabernan: *Zai at Devo city*. Nortasun handiko kantuak biltzen dira diseinu ederreko zorroan sartuak.
Gaur, Aker tabernan, 23:00etan.

**OÑATI Kepa eta Ander, Top eta Joxe Mari Anduagaren kantaldia**
Oñatiko Zero Zabor taldeak antolatuta.
Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 22:30ean.

**BERGARA Metal eta hardcore gaua**
3797 metala eta hardcorea nahasten dituen talde berria da, eta bertako kideak aurrez Materia eta Spezial Guest taldeetan ibilitakoak dira. *El principio del fin* aurkeztera etorriko dira Bergarako gaztetxera. Nessun Dorma Lekeitioko metal taldea da eta jaialdian hartuko du parte. Sarrera 3 euro da.
Gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean 22:30ean.

**BERGARA Bikustik taldearen emanaldia**
Bikustik 2008ko maiatzean sorturiko proiektua da, rockaren klasikoak eta gaur egungo beste hainbat kantu modu akustikoan moldatzen dituen bikotea. Jon Gurrutxaga (Jon & Sugramas, Arima Beltza, Uek) eta Patxi Zabaleta (Andrakan, Arima Beltza, Sinuose) dira bikotea osatzen dutenak. Beatles, Led Zeppelin, Rainbow, Queen eta Creedence Clearwater Revival taldeen kantuak entzun daitezke.
Gaur, egubakoitza, Laino skate parkean, 22:30ean.

**ARRASATE Subversion, Lobos Humanos eta Rombos Negros**
Punk kontzertuak Gasteizko Rombos Negros, Lobos Humanos eta Santurtziko Subversion X taldeekin.
Gaur, egubakoitza, Arrasateko gaztetxean, 22:00etan.

**OÑATI Estankona taldea**
Borja Estankona gitarra-jole eta abeslariaren proiektu musikal berria Estankona izenarekin dator. Hiruko moduan taularatzen da Jimmy Arrabit (Itoiz, Anje Duhalde) baterian eta Itsaso Etxebeste (Katamalo) baxuan, taldekide izanik. 2011ko maiatzean Baga Biga Musika zigiluren babesean argitaratutako diskoa entzuteko aukera izango da.
Gaur, egubakoitza, Antton tabernan, 20:00etan.

**BERGARA Auzoko trikitilarien emanaldia**
Angiozarko saloian auzoko trikitilari eta pandero-joleen emanaldia izango da. Aurten hasitako taldetxo bat –neska-mutikoak eta baita gurasoak ere–, eta urteetan dabiltzan soinujoleek emanaldi polita eskainiko dute.
Gaur, Angiozarko saloian, 20:00etan.

## DANTZA

**ESKORIATZA Herrixa Dantzan**
Gidatutako dantzaldi irekia, Euskal Herriko eta oro har Europako dantza tradizional ludikoekin osatutakoa: sokan, borobilean, bikoteka... denetarik. Helburua, adin ezberdinetako herritar soilak elkarrekin dantzan gozatzea. Sarrera doan eta parte-hartzea libre. Eguraldiak laguntzen badu, klaustroan egingo dute dantzaldia.
Martxoaren 18a, domeka, Unibertsitateko kaperan, 18:30ean.

**ARETXABALETA Musika eskolakoen dantza erakustaldia**
Leizarra musika eskolako ikasleek erakustaldia egingo dute.
Martxoaren 16a, egubakoitza, Arkupeko Zaraia aretoan, 17:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**ELGETA Gaztetxearen XVI. urteurrena**
Egun osoko egitaraua gertatu dute gaztetxekoek. 10:00etan, plazatik, mendi buelta egingo dute Intxortara eta hamaiketakoa ere egingo dute. Eguerdian herrian, poteoa trikitilariekin. 14:30ean, herri bazkaria, bertsoak eta jokoak. Bertsolariak: Jokin Labaien, Manex Agirre eta Enaitz Alustiza. 22:30ean, kontzertua EZ! taldearekin.
Martxoaren 17a, zapatua, Elgetako gaztetxean, 09:00etan.

**ARRASATE Baserritarren martxoko azoka**
Martxoko hirugarren zapatua izango da asteon eta beraz, baserritarren azoka egingo dute, hilero egiten duten moduan. Herriko nekazarien produktuak egongo dira.
Zapatua, Seber Altune plazan, 10:00etan.

## ANTZERKIA

**ARAMAIO 'Greban gaude'**
Txirritola euskara elkarteak antzezlan interesgarria ekarriko du Aramaiora.
Martxoaren 16a, egubakoitza, Kultur etxean, 22:30ean.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

**ARRASATE 'Haizea eta sustraiak', Txikiren bizitza**
Txikiren bizitzaren bitartez frankismoaren azken fusilamenduetan sartuko gaituen dokumentala. Iraupena: 90 minutu. Argia Egunak ekimenaren baitan.
Martxoaren 21a, eguaztena, Jokin Zaitegi aretoan, Kultur Aten, 18:30ean.

## ERAKUSKETAK

**OÑATI 'Invisible' argazki erakusketa**
Ilunpetan taldeak antolatuta Javier Gil madrildarren argazkiak erakutsiko dituzte. Asiako hego -ekialdeko, eta Tailandiak bizi duen hazkunde geldiezineko aktore nagusiak agertzen diren formato handiko 13 erretratu dira.
Martxoaren 19a, astelehena, Kultura etxean, 18:00etan.

## TOPAKETA

**OÑATI Joan Mari Torrealdai Elkar Hezi ikastetxean**
Batxilergoko 2.mailako ikasleak Juan Mari Torrealdairen *El libro negro del euskera* liburua iraku-

**BERGARA Lenni Metal Fest**
Bigarren urtea da antolatu dutena eta iaz besteko indarrez itzuliko da Bergarako jaialdi "metalzalea" gaztetxera. Bihar, hiru taldek joko dute: Dawn of the Maya, OST eta Dark Code. Kontzertuekin batera Leni Metal bera ibiliko da musika jartzen kontzertuen ostean. Sarrera 5 euro izango da.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.


ARTXIBOA


ESTANKONA

**OÑATI Estankona**
Borja Estankonak proiektu berria dakar eta alboan izango ditu Jimmy Arrabit bateria jotzen eta Itsaso Etxebeste baxuan. Iaz kaleratu zuten diskoa Baga Biga Musikarekin eta lan hori aurkeztuko dute Oñatin.
Gaur, Antton tabernan, 20:00etan.

rri dute. Idazleak bere liburuari buruz egingo du berba.
Martxoaren 22an, eguena, Elkar Hezi ikastetxean, 08:00etan.

## HITZALDIAK

**OÑATI 'Hegoaldera bizikletaz' ikus-entzunezkoa**
Joanes Gibelalde tolosarrak Ameriketako iparraldetik hegoaldera bizikletaz egindako bidaiari buruz berba egingo du.
Martxoaren 22a, eguena, Euskaltegian, 18:30ean.

**OÑATI Konposta egiten erakusteko hitzaldia**
Konpostan aditua den Kiko Martinezek egingo du berbaldia.
Martxoaren 17a, zapatua, Natur Eskolan, 17:00etan.

**ANTZUOLA Alkoholikoen senide eta lagunen elkartea**
Al-Anon (alkoholikoen senide eta lagunen elkartea) elkarteak antolatuta. Hizlariak: alkoholiko anonimo bat, psikiatra bat eta senide bat.
Martxoaren 21ean, eguaztena, Olaranen, 19:00etan.

**OÑATI Errausketa**
*Etorkizuna erraustuz. El sucio negocio de la incineracion en Sakana* bideo emanaldiaren ondoren, Sakanako errauskailuaren kontrako taldekoek berbaldia egingo dute.
Martxoaren 16a, egubakoitza, Kultura etxean, 18:30ean.

## BESTELAKOAK

**ESKORIATZA 'Uraren bidea' emanaldia**
Azken bi urtetan Oñatin, Aretxabaletan eta Arrasaten egindako ekintzatan ateratako irudiekin emanaldia egingo du Aloña Mendi espeleologia taldeak.
Martxoaren 16a, egubakoitza, Kultura etxean, 19:00etan.

**ELGETA Erretiratuen urteko batzarra**
Diru kontuak, eta ekintzen proposamenak izango dituzte besteak beste aztergai. Amaieran pintxoak banatuko dituzte
Gaur, Ozkarbi elkartean, 17:30etan.

**ARRASATE Otxia txakolinaren aurkezpena**
Otxia txakolinaren aurkezpena egingo dute. Arduradunen arabera, aurtengo txakolinaren mahatsa "sano eta heldutasun mailla onekoa" izan da. Irailaren azken asteburuan batua izan zen. Tenperatura onekoa –10,5 gradu– eta garraztasun orekatua ei dauka: "Fruta usain bizia eta freskoa, ahotik pasatzerakoan leuna eta ondorengo gustua alaia eta aromatikoa da", adierazi dutenez.
Martxoaren 18an, domeka, Kajoi tabernan, 12:00etan.

## ZINEMA

**BERGARA Laburbira**
Urtero bezala, Laburbira, film laburren zirkuitua martxan jarri da. Aurten, zirkuituaren bederatzigarren edizioa izango da. Aurten, zortzi film erakutsiko dira emanaldi bakoitzean. 87 minutu inguruko iraupena izango du.
Martxoaren 21a, eguaztena, Zabalotegi aretoan 20:30ean.

## LEHIAKETAK

**OÑATI III. mahai-futbol txapelketa gaztelekuan**
Gaztelekuan egingo dute. Izena txapelketa hasi aurretik eman.
Martxoaren 17a, zapatua, Gaztelekuan 17:00etan.

## IKASTAROAK

**OÑATI Emakumeendako autodefentsa ikastaroa**
Sei ordukoa izango da eta interesatuek kultura etxean edo *txantxiku.feministak@gmail.com* helbidean eman izena.
Zapatuan, Zubikoa kiroldegian, 10:30ean.

**ARRASATE Arnasketa bizitza luze eta osasungarri baterako**
ELKARTrUk egitasmoa, 2011ko azaroan jarri zuen martxan AEDk elkarteko bazkideek. Arnasketa teknika ezberdinak ezagutzeko aukera izango dugu Maitena Aranarekin, eguneroko bizitzan antsietatea, estresa, nekea edo kezkak gainditzen ikasteko erabilgarri izango zaizkigunak.
Martxoaren 17a, zapatua, AEDren egoitzan, 10:30ean.

# ZINEMA

## ARRASATE

### AMAIA ANTZOKIA

**El invitado**
Zapatua: 19:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Los Muppets**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

## BERGARA

### ZABALOTEGI

**Zooloco**
Domeka: 17:00.

**Mientras duermes**
Domeka: 19:30.

## OÑATI

### KULTURA ETXEA

**The artist**
Barikua: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

## ARETXABALETA

### ARKUPE

**Los descendientes**
Barikua: 22:00.
Zapatua: 22:00.
Domekan: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Luke eta Lucy**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**Albert Nobbs**
Eguena: 19:30.

## EIBAR

### COLISEO ANTZOKIA

**Contraband**
Barikua: 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Viaje al centro de la tierra 2 3D**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

### COLISEO 1

**Esto es la guerra**
Barikua: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

### COLISEO 2

**Dictado**
Barikua: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

## GASTEIZ

### GURIDI

**John Carter 3D**
Barikutik martitzenera: 17:30, 20:00.
Eguazten eta eguena: 17:00.

**Los descendientes**
Barikurik martitzenera: 22:30.

**Los idus de marzo**
Barikurik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Viaje al centro de la tierra 2: La isla misteriosa**
Barikurik eguenera: 17:30.

**Luces rojas**
Barikurik eguenera: 20:00, 22:30.

**Esto es la guerra**
Barikurik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**The artist**
Barikurik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**La invención de Hugo**
Barikurik eguenera: 22:30.

**Dictado**
Barikurik eguenera: 22:30.

**Contraband**
Barikurik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

### FLORIDA

**Intocable**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:00.

**John Carter**
Barikutik eguenera: 17:00.

**Y ahora, ¿Dónde vamos?**
Barikutik eguenera: 19:45, 22:30.

**De tu ventana a la mía**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Tan fuerte, tan cerca**
Barikutik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

**Las malas hierbas**
Barikutik eguaztenera: 18:00, 20:15, 22:30.
Eguena: 18:00, 22:30.

**La montaña rusa**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Tenemos que hablar de Kekin**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

## GASTEIZ

### BOULEVARD

**Viaje al centro de la tierra 2: La isla misteriosa**
Barikutik eguenera: 16:10, 18:10, 20:10.

**Dictado**
Barikutik eguenera: 22:10.

**Luces rojas**
Barikutik eguenera: 15:45, 18:05, 20:25, 22:40, 01:00.

**La invención de Hugo**
Barikutik eguenera: 16:30, 19:15, 22:00, 00:30.

**John Carter 3D**
Barikutik eguenera: 16:00, 19:00, 22:00, 00:40.

**Los Muppets**
Barikutik eguenera: 15:50, 18:05.

**Indomable**
Barikutik eguenera: 20:25, 22:25, 00:20.

**Esto es la guerra**
Barikutik eguenera: 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

**John Carter**
Barikutik eguenera: 16:30, 19:30, 22:30.

**Contraband**
Barikutik eguenera: 15:50, 18:00, 20:15, 22:35, 00:50.

**Devil inside**
Barikutik eguenera: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Chronicle**
Barikutik eguenera: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

**Los idus de marzo**
Barikutik eguenera: 16:10, 18:15, 20:30, 22:40, 00:45.

**Una aventura extraordinaria**
Barikutik eguenera: 15:50, 18:05.

**El invitado**
Barikutik eguenera: 20:15, 22:35.

### GORBEIA

**Contraband**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30
Bariku eta zapatuan, baita: 15:45.
Zapatu eta domekan, baita: 00:45.

**Devil inside**
Barikutik eguenera: 18:15, 20:15, 22:15.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:15.
Zapatu eta domekan, baita: 16:15.

**La montaña rusa**
Barikutik eguenera: 17:45, 20:00, 22:15.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:30.
Zapatu eta domekan, baita: 15:30.

**John Carter**
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**John Carter 3D**
Barikutik eguenera: 18:45, 21:30.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:15.
Zapatu eta domekan, baita: 16:00.

**Intocable**
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30
Bariku eta zapatuan, baita: 15:45.
Zapatu eta domekan, baita: 00:45.

**Los idus de marzo**
Barikutik eguenera: 17:50, 19:50, 22:00
Zapatu eta domekan, baita: 00:00.

**Esto es la guerra**
Barikutik eguenera: 18:30, 20:30, 22:40.
Zapatu eta domekan, baita: 00:40.

**Luces rojas**
Barikutik eguenera: 17:45, 20:00, 22:20.
Zapatu eta domekan, baita: 00:40.

**Indomable**
Barikutik eguenera: 17:45, 19:45.
Bariku eta zapatuan, baita: 15:45.

**Chronicle**
Barikutik eguenera: 20:20, 22:20.
Zapatu eta domekan, baita: 00:20.

**La invención de Hugo**
Barikutik eguenera: 19:00, 21:45.
Zapatu eta domekan, baita: 00:30.

**Infierno blanco**
Barikutik eguenera: 20:10, 22:30.
Zapatu eta domekan, baita: 00:45.

**El invitado**
Barikutik eguenera: 21:45.
Zapatu eta domekan, baita: 00:15.

**Una aventura extraordinaria**
Barikutik eguenera: 18:00.
Bariku eta zapatuan, baita: 15:50.

**Viaje al centro de la tierra 2**
Barikutik eguenera: 18:00.

**Viaje al centro de la tierra 2 3D**
Bariku eta zapatuan: 18:20.

**War Horse**
Bariku eta zapatuan: 15:40.

**Los Muppets**
Bariku eta zapatuan: 15:40.

**Alvin y las ardillas**
Bariku eta zapatuan: 15:40.

# KRITIKA

**LOS IDUS DE MARZO** ★★★★☆
**Zuzendaria:** George Clooney.
**Herrialdea:** Estatu Batuak.
**Urtea:** 2011.
**Aktoreak:** Ryan Gosling, George Clooney, Phillip Seymour Hoffman.
**Iraupena:** 101 minutu.




# Zintzotasuna eta handinahia

*Los idus de marzo*-n George Clooneyk zuzendari, aktore, gidoilari (beste batzuekin batera) eta ekoizle lanak betetzen ditu. Beraz, datu horiekin antzeman dezakegu buru-belarri murgildu dela proiektuan. Egin duen filma politika munduan kokatzen da. Alderdi demokratak hautagaia aukeratu behar du AEBetako presidentziara aurkezteko. Alderdi barruan gertatzen diren azpijokoak ikusteko aukera izango dugu. Gauza bat da jendeari bidaltzen dizkioten mezuak eta beste gauza desberdin bat da azpitik gertatzen diren portaerak.

Film politikoak, askotan, nahiko astunak izaten dira. Mundu korapilatsu horretan erabiltzen diren terminologia eta datuak konplexuak izaten dira. Dena den, kasu honetan filma oso ondo ulertzen da. Pertsonaiak maltzurrak eta anbiguoak dira, ez dituzte euren kartak garbi erakusten, eta susmoak dauzkagu beti esaten ari direnari buruz. Filma oso interesgarria egiten zaigu ze nahiz eta politikariei buruz hitz egin, kontatzen dena orokorrean gizakiak bizitzan izan behar duen portaerara zabaldu baitaiteke. Politikan boterearen lorpena izaten da helburu nagusia. Eta irrika hori ez da bakarrik politikariena, horien laguntzaileek, komunikabideek... berdin jokatzen dute. Horrela Clooneyren filma zintzotasunaren eta handinahiaren arteko gatazka da. Politikariak mundu labainkor batean mugitzen diren pertsonak dira. Mundu horretan azpijoko eta tranpa ugari ematen dira eta giro horretan hobekien mugitzen dakienak gora egiten du.

Hori dena ondo azalduta dago *Los idus de marzon*. Oso garbi eta dotoreziaz filmatuta dago; gidoia oso ondo neurtuta dago istorioan ematen diren aldaketak eta biraketak behar den bezala aditzera emateko; eta aktore guztiak goi mailakoak dira. Guzti honekin Clooneyk film kritikoa, entretenigarria eta kezkagarria egiten du.

ANTONIO ZABALA




goiena“
2012-03-16
HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

# Eski pistetatik jaitsi eta txotx egitera

▶ Andorrako Vallnord eski estazioan dagoen sagardotegian lan egiten du Jon Sanchez arrasatearrak

▶ Astigarragako Zapiain sagardotegiko sagardoa eskaintzen dute, bezeroei gehien gustatzen zaiena delako

**ARRITXU BARRUSO** | ARRASATE

Euskal Herriko mugak gainditu eta sagardoa ere nazioartekotzen ari da. Kasu honetan, gainera, sagardo kupelek elurra, teleaulkiak, eskiak eta snowko taulak dituzte lagun. Andorran, Vallnord eski estazioaren aparkalekuan dagoen Herri sagardotegia aurkeztu digu Jon Sanchez arrasatearrak; zerbitzari eta DJ lanak egiten ditu bertan: "Eibarko eta Gasteizko bi lagunek martxan ipinitako proiektua da. Urte asko daramatzat haiekin elurretara joaten denboraldi osoak egitera. Orain, Andorran bizi naiz eta sagardotegian lan egiten dut". Andorran bizi den arren, egunotan Arrasaten dago, snowboarda egiten sekulako kolpea hartu zuen eta bertebra bat apurtu du-eta.



Andorrako sagardotegia. | HERRI

### Elurrez inguratutako txotxa

Eguna elur-pistetan pasatu eta gero, bakailaoa eta txuleta on bat jateak sekulakoa izan behar du, eta garrantzitsuena, hori guztia nahi beste sagardo edanda: "Horixe da bezeroei gehien gustatzen zaiena: kupeletara nahi dutenean gerturatu eta nahi beste sagardo edateko aukera izatea. Gu ohituta gaude horretara, baina Euskal Herritik kanpo arrotza da". Sanchezek kontatu digu beti-betiko sagardotegiko menua eskaintzen dutela: "Sukaldaria hernaniarra da, Karlos Argiñanoren eskolan ikasitakoa, eta Euskal Herriko sagardotegietan eskaintzen den menu berbera ematen dugu".


Jon Sanchez. | J.S.

Sagardoa ere Euskal Herritik eramaten dute eta bezeroek, gainera, argi daukate zein sagardo gustatzen zaien gehien: "Astigarragako Zapiain sagardotegian hartzen dugu sagardoa eta geuk eramaten dugu Andorrara kupeletan. Beste sagardo batzuk ere probatu izan ditugu, baina bezeroek argi esan digute, beti, Zapiaingoa dutela gustukoen".

Bezeroen jatorriari dagokionez, mundu osoko jendea joaten dela kontatu digu: "Irlandatik eta Ingalaterratik turistaz betetako autobusak etortzen dira Andorrara, baina azkenaldian errusiarrak ere hasi dira agertzen. Horrez gain, bertako bezeroak ere gero eta gehiago etortzen dira, dagoeneko nahiko ezaguna da eta enpresako afariak egitera, esaterako, asko etortzen dira".

### Sagardotegia baino gehiago

Gauetan ere eskaintza zabala izaten dute, eta hortik dator bere izena: Sagardotegi Herri Pub: "Hilabete osorako egitaraua antolatzen dugu eta egubakoitzetan eta zapatuetan kontzertuak egiten ditugu, edo, bestela, musika elektronikoa ipintzera etortzen dira DJak. Giro polita egoten da".

Ping-pong txapelketak ere antolatzen dituzte. Beraz, aspertzeko denborarik ez dago sagardotegi horretan.

AZKEN BERBA



AINTZANE OIARBIDE

## Zaborren menpe?

Hau zalaparta dabil Debagoienean! Harategian, arraindegian, ileapaindegian, tabernan, medikuenean… ez dabil beste gairik: atez ateko zaborbilketa.

Jendea, adin guztietakoa eta kolore politiko guztietakoa, sua dariola dabil eredu honen aurka. Hori zikinkeria bat da! Ez dut nahi zaborra izotzgailuan sartu! Etxe-soto barruan ipiniko dituztela zintzilikarioak? Nire zaborpoltsa publikoa izango dela? Eta herritarron intimitatea, zer? Gu aspaldian saiatzen gara zaborrak sailkatzen kontenedoretan! Zergatik ez ipini 5.ena materia organikoa jasotzeko? Nire iritziak ez al du ezertarako balio? Gainera zabor erreziboa garestituko dela? Hau da esperpentoa! Valle Inclanen antzerkietako elkarrizketa dirudi… Oraindik kosta egiten zait ulertzea zergatik dabilen Bildu hain burugogor atez-ateko eredu hau Gipuzkoako 34 herritan ezarri nahian. *Artículo treinta y três, herritarrari kasu izpirik ere ez!* Lastima da egunerokotasunean beharrezkoa dugun zerbitzu bat bandera politiko bezala erabiltzea. Agian, *Hordagoa* botatzen denean zaila izaten da atzera egitea. *Bohemiako argiak*, etor zaitezte argi piska bat egitera…

